

XI. IDAZLAN KOADERNOA

DBH / Batxillergoa 2012

GERNIKA-LUMO

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Azalaren egilea:

- Txanton Freundlich Zubiaga (DBH 4. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Inprimaketa:

- Graficas Lizaso SL

2012ko edizioa.

AURKIBIDEA

IZENA	MAILA	IDAZLANA	Or.
Imanol Ziluaga Esteban	DBH 1. maila	<i>"Altzor galdua"</i>	5
Zalao Iturbe San Jose	DBH 1. maila	<i>"Lotsatu zergatik?"</i>	8
Georgiana Cocuz	DBH 1. maila	<i>"Itxaropena edukitzea"</i>	11
Maria Zorrozuza	DBH 2. maila	<i>"Herralde desberdinekoa naizelako ez?(prosa)</i> <i>"Beti gogoratuko zaitut" (olerkia)</i>	13
Nora Bonilla	DBH 2. maila	<i>"Barkamen gutuna"</i>	18
Eneko Fuentes	DBH 2. maila	<i>"Beti dago aukeraren bat"</i>	20
Asier Zabaljauregi	DBH 2. maila	<i>"Denboran harrapaturik"</i>	23
Aritz Mendiola	DBH 2. maila	<i>"Milizia = Desgrazia"</i>	26
Xabier Oianguren Asua	DBH 2. maila	<i>"Zein zaila den semea izatea"</i>	29
Olaia Zenigaonaindia	DBH 2. maila	<i>"Esperientzia ahaztezina"</i>	33
Malen Akordagoitia	DBH 3. maila	<i>"Nahiko da"</i>	36
Ainhoa Elejaga	DBH 3. maila	<i>"Froga"</i>	39
Eneko Lazaga	DBH 3. maila	<i>"Amaren sekretua"</i>	43
Sirats Barandiaren Mandaluniz	DBH 3. maila	<i>"Amodio marraztua"</i>	48
Ainhoa Zarrabeitia Zabala	DBH 3. maila	<i>"Gabon giroa"</i>	52
Nile Petralanda Undabarrena	DBH 4. maila	<i>"Desamodioaren osteko amodiorik zirrara garriena"</i>	56
Maidier Bilbao Ozamiz	BDH 4. maila	<i>"Itxaropena da bizia, bizia da itxaropena"</i>	60
Pablo Calleja	DBH 4. maila	<i>"Azken itxaropena"</i>	63
Irati Asategi	DBH 4. maila	<i>"Aitaren esaldia"</i>	67
Annet Unda Endemaño	DBH 4. maila	<i>"Beti gogoratuko zaitut"</i>	71
Bittor Rodriguez	BATX. 1. maila	<i>"Egiatzat kontatua, kontatutako egia"</i>	73
Alazne Arrazola Sastre	BATX. 2. maila	<i>"Biok bat"</i>	79
Jone Irigoien	BATX. 2. maila	<i>"Urtarrilaren lehenengoa, 8 hilabete"</i>	84
Ane Ramos Etxeandia	BATX. 2. maila	<i>"Ehizazazu zure iragana"</i>	90
Ander Ponte	BATX. 2. maila	<i>"New eta, askatasuna"</i>	93
Gorka Madariaga Ikarán	BATX. 2. maila	<i>"Klik eta klik" (prosa)/ "Errealitatea" (olerkia)</i>	98
Jasmina Sanchez	BATX. 2. maila	<i>"Zoritxar Madarikatua"</i>	105
Maite Santiago Garabieta	BATX. 2. maila	<i>"Harriko Harritxu"</i>	109
Mikel Elgezabal Garmendia	BATX. 2. maila	<i>"Eskola kontuez?"</i>	112
Alazne Undabarrena	HHI/EPA	<i>"Egunerokoa"</i>	117
Marian Amutxastegi Gabiola	HHI/EPA	<i>"Euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza"</i>	123

XI. IDAZLAN KOADERNOA

DBH / Batxillergoa 2012

GERNIKA-LUMO



Imanol Ziluaga Esteban
DBH 1. maila
“Esku-pilota atsegin dut”

ALTXOR GALDUA

Bazen behin Hondarribian, Aritz deitzen zen mutil bat. DBH 2. kurtsoa amaitu eta udako oporrak heldu ziren. Etxean zegoen, eta ez zekien zer egin. Orduan hondartzara joatea pentsatu zuen.

Hondartzara heldu, eta bainatu egin zen. Ondoren zulo bat egin zuen. Zuloa egiten zebilela zerbait aurkitu zuen. Egurrezko kaxa bat zen. Barruan altxor mapa bat zuen, eta bere lagun hoberenari erakustera joan zen. Bere lagun hoberena Eneko deitzen zen.



Gau hartan, Enekok eta Aritzek batera egin zuten lo. Hurrengo egunean mapak atzeko aldean zerbait idatzita zeukala konturatu ziren:

“Mila urtean behin, irla txiki bat irteten da Hondarribiako hondartzatik 500

metro inguru;, han altxor bat dago ezkutaturik. Baina kontuz ibili beharko zarete, denbora asko tardatzen baduzue, zorigaitzen bat gertatuko zaizue”.

Horrez aparte beheko aldean beste zerbait zegoen idatzita:

“Noiz irtengo den jakin nahi baduzue, joan zaitezte hondartzako harri handienera, han azken aldiz noiz irten zen irla jakingo duzue”.

Hurrengo egunean, hondartzara joan ziren. Harri handienera data hura zegoen idatzita: “1003/07/22”.



Data horri mila urte gehitzen bagenizkion 2003ko uztailaren 22a izango zen, eta 27 egun bakarrik falta ziren egun hura heltzeko.

Dena planifikatzen hasi ziren. Eta behar zuten gauzen zerrenda bat egin zuten: 2 linterna, bokatak, txalupa bat, iparrorratza, lurra zulatzeko palak, urez beteriko kantiplora, motxila bat...

Aste bete pasa zen eta itsasoak, txalupa bat ekarri zuela hondartzara konturatu zirenean, zerra, marteilu, eta iltzeekin, hondartzarantz abiatu ziren. Egun hartan ez zen inor hondartzara joan, egun txarra baitzegoen. Txalupa hobetu eta etxerantz joan ziren.

Eguna iritsi zen, Aritzek Enekorri tinbrea jo zion, eta elkarrekin dena prestatu zuten. 18:00rak ziren, eta itxaroten gelditu ziren itsasertzean.

Denbora aurrera zihoan, hala ere, irla ez zen irteten. Baina etxeratzeko zeuden momentuan, han irten zen. Ez zen oso handia, baina txalupa hartu eta irlarantz abiatu ziren. Irlak putzu asko zituen, ur barnetik irten baitzen.

Irlako hondartza txikira heldu ziren. Han txalupa utzi eta bidetxo batetik aurrerantz segitu zuten. Baina bidea ebakitzen zuen kobazulo bat ikusi zuten.

Linternak piztu eta korrikan pasatu zuten kobazuloa. Bideak berriz ere jarraitzen zuen, eta basotxo bat aurkitu zuten. Mapan ipintzen zuen basoa zeharkatu behar zutela.

Zeharkatzen hasi ziren, baina pixka bat galdurik sentitu ziren. Orduan, mapa eta iparrorratza erabiliz basoa zeharkatu zuten. Bidea berriz ere topatu eta aurrerantz segitu zuten. Geroxeago ura edatea eta bokatak jatea erabaki zuten, goseak baizeuden. Bokatak jan eta gero, bidea jarraitu zuten. Bidetxotik zihoazela, laku batera heldu ziren, eta

alboan, apurturik zegoen zuhaitz batetik enbor zati bat hartu zuten. Enborra uretara sartu zuten, enborra obatuz eta hankak mugituz, lakua zeharkatu zuten. Azkenik “X” gunera heldu ziren. Han zulatzen hasi ziren, baina bat batean irla mugitzen hasi zen. Korrika joan ziren oztopo guztiak pasatuz, eta azkenik txalupa hartu eta hondartzarantz joan ziren.

Bertatik ikusi zuten irla nola hondoratzen zen. Eta inoiz ez zuten jakin irla bitxi hartan zer egon zen ezkutaturik.





Zaloa Iturbe San Jose
DBH 1. maila
“Saiatu, lortuko duzu eta”

Lotsatu zergatik?

Bazen behin Bilboko herrian bizi zen hamar urteko neska gazte bat. Ane zuen izena eta bi ahizpa eta neba handi bat zituen. Ahizpak Izaro eta Paula ziren eta bi urte zituzten, eta neba handiak Asier zuen izena eta hemezortzi zeuzkan. Ane adoptatua zen; sei urte bete zituenean, Etiopiatik ekarri zuten.

Aneren familiak erdaraz hitz egiten zuen, Anek ez baitzekien oraindik euskaraz. Baina egun batean Ane bere nebari euskaraz hitz egiten hasi zitzaion :

- Asier, emango didazu diru pixka bat?- galdetu zion.

Asierrek, harriturik, galdetu zion:

- Dirua, zertarako?
- Nire ikaskideek bezala euskaraz hitz egiteko.
- Euskaraz zure ikaskideek bezala hitz egiteko?
- Bai, hiztegi bat erosi behar didazu!

Asierrek dirua eman zion, baina ez zuen ulertzen zertarako behar zuen hiztegia, jadanik ondo mintzatzen baitzen.

- Ane, zergatik ez duzu euskaraz hitz egiten gure gurasoen aurrean?- galdetu zion Asierrek.
- Eta akatsen bat egiten badut, ikaskideek nire lepotik barre egingo dute, eta gurasoak ez dira nitaz harro egongo.

Asierrek proposamen bat egin zion; onartzen bazuen, arrebari euskaraz irakatsiko zion. Anek pozaren-pozez onartu zuen; baina nola hitz egingo zuen nebaren aurrean, lotsa ematen baitzion jendearen aurrean hitz egiteak?

Hiru urte pasatu ziren Anek bere nebak ematen zizkion klaseak hasi zituenetik, eta jadanik gurasoek bazekiten neskak zuen arazoa zein zen: **lotsa**.

Anek asko hobetu zuen euskara baina oraindik bakarrik etxean hitz egiten zuen, pentsatzen baitzuen ez zekiela jakin beharreko gutzia.

Ikastetxera joaten zen bakoitzean, bere ahizpekin eskutik joaten zen. Erdaraz hitz egiten zien eta horregatik jendeak ez zien ongi begiratzen. Etxera itzultzen zen negarrez irakasleak arbelera irteteko esaten zion bakoitzean, baina egun batean Asier agertu zen eta denen aurrean bere arreatxoaren arazoa kontatu zuen. Anek ez zekien non sartu lotsaren lotsaz!

Atsedendian, Ane Asierrekin hitz egiten ari zen bitartean, ikaskideak agertu zitzaizkion Aneri eta beraiekin jolastu nahi zuen galdetu zioten. Neskak bere nebari begiratu zion eta mutilak buruarekin baietz esan zion. Onartu zuen neskatoak.

Harrapaketan aritu ziren, baina Anek ez zuen hitz bat ere esan. Bere ikaskideek bost urtetan egin ez zizkioten galderak egin zizkioten, baina ez zuten erantzunik jaso galderak entzundakoan, Ane komunean sartu baitzen. Bere lagunak komunera joan eta, bakoitzak egiten ez zekien gauza bat aitortzen hasi zen:

- Ane, nik ez dakit ingelesez hitz egiten!- esan zion Mikelek.
- Guk ez dakigu erdaraz hitz egiten!- esan zuten beste komunetan zeuden neskek.
- Nik ez dakit eragiketean egiten!- esan zion beste batek.

Ane negarrez atera zen komunetik, eta bertan zituen laguneri besarkada handia eman zien esanez: *“Eskerrik asko lagunok. Aurrerantzean denok euskaraz hitz egingo dugu, eta zerbait ez badakit zuei galdetuko dizuet. Zuek ere erdaraz ez dakizuena niri galdetu diezadakezue, oso pozik erantzungo dizuet, baldin eta badakit, behintzat. Ados?”*. Lagunak komunetik atera zirenerako, atsedendia aspaldi bukatuta zegoen eta neska mutilak segituan gelara sartu ziren. Irakaslearen zigorra entzun baino lehen, Anek zera esan zuen Mikeli eskua emanez: *“Nire errua izan da!. Neu zigortu! Komunean egon naiz eta nire zain egon dira”*.

Irakasleak hori entzundakoan, harriturik bakoitza bere tokian esertzeko esan zien; eta Ane, harro, Mikeli begira geratu zen. Harro sentitzen zen bere ikaskide guztien aurrean euskaraz hitz egin zuelako. Baina bat-batean irakasleak Aneri esan zion arbelera irteteko etxerako bidali zuen euskarazko ahozko aurkezpena egiteko. Neska oso urduri jarri zen, bere lagun berriei begiratu zien eta haiek buruarekin baiezka ari zitzaizkion. Ane lasaitu egin zen, begiak itxi zituen eta bere etxean egongo balitz bezala kontatu zuen etxean prestatutako lana. Saioa amaitutakoan, irakaslearekin hitz egiten geratu zen:

- Ane, gaur animatu zara ikaskideen aurrean hitz egiten! -esan zion irakasleak oraindik harriturik.
- Nire lagunek animatu naute -erantzun zion neskatzak guztiz lotsaturik.
- Ezin dut ulertu nola egun batetik bestera ahozko notetan gutxi bat izatetik, oso ondo bat izatera pasatu zaren!-esan zion berriro ere andereñoak.

Ane, oso harro, bere etxera itzuli zen. Ikastetxean gertatutakoa etxean kontatu zuenean, denak oso pozik jarri ziren, baina benetan guztiz poztu zena Asier izan zen, bere arreak izan zuen aurrerapena ikusita.

Urte asko pasatu ziren. Anek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa amaitu zituen eta unibertsitatean joan beharra zeukan. Anek argi zeukan irakaslea izan nahi zuela. Unibertsitatean onartu zuten eta han ikasi zuen.

Handi egin zenean, Anek uste zuen dena zeukala: lana, lagunak... ; baina oraindik gutxien espero zuena gertatu zitzaion. Txikitan ikasi zuen ikastetxean omenaldia egin zioten euskaraz aurrerapen handiena egin zuen ikasle gisa. Lagun

guztiak zituen bertan; batzuk batxilergoa eta Derridorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu zuenetik ikusten ez zituenak ere, bertan zeuden. Baina hori ez zen guztia, bere ahizpa Izaro eta Aneri hiru hilabeterako bidaia bat eman zien Alemaniako ikastetxe batean euskaraz irakasteko.



Georgiana Cocuz
DBH 1. maila

“Irakurtzea eta lagunekin egotea dut gustoko”

ITXAROPENA EDUKITZEA

“Kaixo! Andrea dut izena eta 12 urteko neska bat naiz. Umezurtza naiz. i urte nituenean nire gurasoak istripu baten hil ziren eta hilabete bat geroago hona etorri nintzen, geroago nire etxea izango zen umezurtz etxera, hain zuzen.

Hemen lagun asko egin ditut, baina etsai batzuk ere bai. Jende askoren arabera umezurtz etxean oso txarto bizitzen da. Baina, egia esan, kalean bizitzea baino nahiago umezurtz etxean bizi.

Altxatzen naizen egun guztietan adoptatuko nautelako itxaropena daukat. Baina oraindik hemen jarraitzen dut.”

Hauxe da Andreak idatzi zuena bere lagun onenak oparitutako egunerokoan. Egun hartan, urtarrilaren 25ean hain zuzen ere, Andreak egunerokoa ohe gainean utzi eta jantzten hasi zen. Andreak logelari 4 ohe zeuden eta logelari ez zenez oso handia, mugitzeko leku gutxi zuen. Bere logelari beste hiru neskek ere egiten zuten lo: Amaiak, Monicak eta Lik. Amaia, Andreaken lagun onena zen, eta euskalduna zen. Monica, Brasilekoa zen baina jaiotzez euskalduna. Duela 10 urte etorritakoa, baina umezurtz etxera orain dela 2 urte etorri zen. Li, aldiz, txinatarra zen eta 2 hilabete besterik ez zeramatzan umezurtz etxean. Oso lagun onak ziren hirurak eta elkarrekin ondo konpontzen ziren.

Jantzi ondoren gosaltzera jaitsi ziren. Sukaldea oso handia zen arren, mahaiak eta aulkiak oso zaharrak izateaz gain sukaldean ez zegoen berogailurik.

Laura, umezurtzen etxeko zuzendaria zen. 50 urte, ile beltza, eta aurpegi zorrotza zuen. Umeek beldurra ziotenez ez zioten inoiz ezer eskatzen.

Hiru lagunak sukaldetik irtetzen zeudela, berba eta berba hasi ziren:

- *“Nire ustez, zuzendariari berogailua jartzeko eskatu behar diogu”* -Amaia ausartu zen esatera-
- *“Bai zera! Burutik jota al zaude? Ez duzu ikusi zuzendariaren aurpegia? Mamua dela dirudi!”*
- *“Eta zuk, Andrea, zer uste duzu egin behar dugula?”*
- *“Nik... Ez dakit”*.
- *“Zer pasatzen zaizu neska, altxatu garenetik buru makur zabilta”*. Esan zion Amaiak.
- *“Bihar nire urtebetetzea da eta...”*
- *“Badakit! Festa bat nahi duzu!”*
- *“Ez, ez da hori...”*
- *“Badakit! Egin dezagun mendira!”* -Li-k orduan.
- *“Bai zera, mendira! Hondartzan festa bat nahi du!”*
- *“Ez, mendira!”*
- *“Hondartzara!”*
- *“Mendira!”*
- *“Ez!!! Isildu zaitetze behingoz! Familia bat nahi dut! Ez dut nahi ez festarik ez mendiko irteerarik”* -eta Andrea bere logelara joan zen korrikan-
- *“Arrazoia du. Oparirik onena familia izatea da”* -esan zuen Li-k ahots tristez.
- *“Bai, egia da!”* -oraingoan Amaiak, ahots altuz-

Bitartean, Andreak negarrez jarraitzen zuen bere logelan. Halako batean, Amaia eta Li logelan sartu ziren.

- *“Parkatu”* -esan zuen Li-k-
- *“Ez zintugun minik eman nahi”*.
- *“Ez zaitetze kezkatu, ez du axola”*.
- *“Ikusiko duzu, egun batean familia bat edukiko duzu; zaude lasai!”*

Hurrengo goizean Andreak, 5etan esnatu arren, ohean jarraitu zuen. Itxaropentsu zegoen, ilusionatuta sentitzen zen, egunen batean bere bila norbait etorriko zelakoan.

Halako batean, esnatu zen eta jarraian Amaia, Li eta Monica sartu zitzaizkion logelan.

- *“Andrea!! Ezetz jakin zer gertatu den!!”* -Monica-k-
- *“Ez da horrela sartzen”* -Andrea haserre zegoen-
- *“Zuzendariarekin hitz egin dugu et, azkenean zuretzako familia bat aurkitu du.”*
- *“Zer?! Ziur al zaudete? Ez da txantxa bat izango, ezta? ONENAK ZARETE !!!”*

Andrea ziztu bizian sukaldera jaitsi zen. Sartu bezain laister bikote bat ikusi zuen zuzendariarekin.

Hau da benetako lagunaren istorioa, itxaropena edukitzea zeinen garrantzitsua delako istorioa.



Maria Zorrozueta
DBH 2. maila

Herrialde desberdinekoa naizelako ez?

Urduri nengoen. Izan ere, opor luze batzuk pasatu eta gero berriro ere eskolara joan beharra nuen. Baina nahiz eta betiko moduan izan, oso garrantzitsua zen niretzat zeren, Argentinatik iritsi berria nintzen Euskal Herrira eta, egia esan, dena zen berria niretzat: hizkuntza, lagunak.....

Goizeko zortziak ziren, ama gelara sartu zen eta esan zidan:

- Juan, zortziak dira, eskolara joan behar duzu.

Jaiki egin nintzen, arropa aukeratu, eskailerak jaitsi eta sukaldera joan nintzen. Gosaria prest zegoen, gosaldu, hortzak garbitu, motxila hartu eta eskolarantz abiatu nintzen.

Bertara iristean, ume guztiak jolastokian zeuden. Ni barrurantz abiatu nintzen, nire gela aurkitu eta sartu egin nintzen. Amaieran zegoen mahai batean sartu nintzen eta txirrina jotzerakoan denak sartu ziren gelara, andereñoa ere.

Sartzerakoan esan zuen:

- Kaixo gazteok, espero dut opor onak pasako zenituztela eta gogo handiekin etortzea eskolara. Beno aurton, ikasle berria dugu, Juan deitzen da eta Argentinatik etorri berria da, berarekin ondo portatukozaretela espero dut.

Denek esan zuten:

- Bai andereño!!!- horrek oso harrituta utzi ninduen, zeren nire urduritasunetako bat jendeak ondo ez hartzea zen.

Klaseak bukatu eta gero ia pertsona gehienak parkera joaten ziren. Ni atzetik joan nintzen eta bertara heltzean denak futbolean jolasten zebiltzan. Orduan, beraiengana hurbildu eta urduritasun, lotsaz eta asko kostata esan nien:

- Zuekin jolastu ahal dut?

- Euskalduna zara?

- Ez -esan nien harrituta-.

- Orduan ez! Ja! Ja! Ja! Ja!, hemen euskaldunek bakarrik jolasten dute. Agur txotxolo!-eta denak barrezka hasi ziren. Burumakur jarri eta etxerantz abiatu nintzen.

Etixerako bidean nindoala, neska bat deitzen hasi zitzaidan:

- Ei, zu!- atzerantz begiratu nuen eta nire adineko neskatxa bat zetorren; gelditu egin nintzen eta nire albora iritsitakoan esan nion:

- Bai, zer nahi duzu?

- Ikusi dut nola utzi zaituzten bakarrik, lasai, izan ere, nik ere ez daukat lagunik. Gustatuko litzazuke nire laguna izan?

- Benetan? Noski baietz!!! Nola duzu izena??

- Nire izena Leire da eta zurea Juan, ezta?

- Bai- esan nuen oso pozik-.

- Beno Juan, nik joan beharra daukat; bihar ikusiko gara. Agur!

Leire utzi eta gero berriro etxerantz abiatu nintzen, oso pozik, lagun bat nuelako. Afaltzerakoan, gurasoek eguna nola joan zitzaidan galdetu zidaten; nik, ez larritzeko, dena ongi joan zela esan nien. Bukatutakoan segituan ohera joan nintzen oso nekatuta bainengoen.

Hurrengo eguna iritsi zen. Beti bezala, amak zortzietan esnatu ninduen, prestatu eta eskolarantza joan nintzen.

Bertara iritsi nintzenean, kartel bat ikusi nuen; "gaitasunen lehiaketa" ipintzen zuen orduan Leire agertu zen:

- Apuntatu nahi duzu?

- Gustatuko litzaidake baina gauza da zerbait euskeraz egin behar dela eta nik oraindik ez dut oso ondo menperatzen.

- Lasai, nahi baduzu nik lagunduko dizut; gainera bi egun falta dira lehiaketarako. Lortuko dugu.

Orduan, aurreko eguneko gazte koadrila hurbildu zitzaidan eta esan zidaten:

- Zer txotxolo, aurkeztu egingo zara?-erdi barrezka-

- Bai, arazoren bat?
- Ez, baina zer, gazteleraz egingo duzu, ezta? Noski euskeraz justu dakizun, olerki edo kanta bat euskeraz kantatzeko moduan ja! Ja! Ja! Ja! -eta denka barrezka hasi ziren-.

Triste jarri nintzen orduan. Leirek lepoa ukitu eta esan zidan:

- Lasai lortuko dugu, gero etorri nire etxera eta kanta bat aukeratuko dugu.

Arratsaldean Leireren etxera joan ginen. Bere logela CD-ez beteta zegoen, orduan bat hartu eta esan zuen:

- Talde hau oso famatua da momentu honetan, eta kanta hau ere, hauxe kantatuko duzu.

Kanta asko gustatu zitzaizkidan; bi egun eman niteun hura entzuten eta Leirek ere asko lagundu zidan.

Egun handia iritsi zen, beti bezala oso urduri jarri nintzen. Lo handirik ere ez nuen egin, izan ere ni neu altxatu nintzen ama gelara esnatzera etorri behar barik. Korrikan altxatu nintzen, korrika jantzi nintzen, korrika gosaldu nuen eta korrika irten nintzen etxetik. Bidean mobila atera eta kantatu behar nuen kanta ipini nuen. Eskolara iristean han zegoen Leire niri itxaroten.

Nahiz eta goiz jaiki eta hori dena, berandu iritsi nintzen zeren jada hasia zegoen lehiaketa eta, are txarrago, hurrengoia ni nintzen.

Nire aurrekoak bukatutakoan ni irten nintzen, denek begiratzen zidaten arraro, seguruenik denek pentsatu zuten gaztelaniaz kantatuko nuela. Arnasa sakon hartu eta kantatzen hasi nintzen. Bukatutakoan momentu batean denak isilik gelditu ziren eta segituan txalo zaparrada bat eman zidaten. Oso pozik jarri nintzen, baita Leire ere, gure ustetan irabazi egingo genuela pentsatu genuen.



Irabazlea esatera zihoazen, denak oso urduri jarri ginen eta, bat batean, Leirek eta nik genuen poztasun aurpegia, aurpegi triste bilakatu zitzaigun. Izan ere, ez genuen irabazi. Bigarren gelditu ginen, baina ez zitzaigun asko axola izan, zeren, bat batean, burlaka izaten genituen gazteak. Guregana hurbildu eta esan ziguten oso harrিতuta gelditu zirela nola moldatu nintzen kantatzeko. Barkamena ere eskatu ziguten eta gero beraiekin joateko gonbidatu ziguten.

Azken finean, ez zen egun oso txarra izan, axola gabeko gauza bat galdu genuen baina trukean, gauza handi bat lortu genuen .

BETI GOGORATUKO ZAITUT

(Egilea: Maria Zorrozuia)

Herenegun gogoratzen zaitut
famiariaren sua zinenean
zurekin jolastea
ipuinak kontatzean
ni besoetan hartzean
zure irribarrea ikuste
matraila musukatzean
ama eta ni babeste
batera sentitzean.

Herenegun gogoratzen zaitut
zurekin haserretzean
negar egitean
biok damutzean
parkamena eskatzean
musukatuz dena konpontzean
batera sentitzean.

Atzo gogoratzen zaitut
zurekin izarrak ikuste
sekretoak kontatzean
alaitasuna adieraztean
barrez lehertzean
biok kotxean abeste
bizitasuna erakuste
batera sentitzean.

Atzo gogoratzen zaitut
gutxika-gutxika gaixotzean
ospitalean besarkatzean
izkutuan negar egitean
beti gurekin egongo zarela esatean
eskuak laztantzean
begiak ixtean
betirako agur bat esatean
urrunago sentitzean.

Gaur gogoratzen zaitut
egunero zugaitik otoitz egiten
zure irudia nere barnean konserbatzen
bizitako momentuak inoiz ez ahazten
gorantz begiratuz zure irudia bilatzen
zure hutsunea nabaritzen
bizia aurrera jarraituz
are eta urrunago sentituz.

Gaur gogoratzen zaitut
zure izena hilerrian ikustean
bihotza hnkitzean
ahaztezina izango zarela konturatzean
aitarik onena izan zarela baieztatzean
arrosa sorta bat zurekin utziz
ene barnean izango zarela adieraziz
noizbait elkartuko garela pentsaraziz
hirurok batera berriz.



Nora Bonilla
DBH 2. maila

“Eman ezazu lehengo pausua”

Barkamen gutuna

2011ko abenduaren 31

Kaixo Iraia:

Badakit, denbora asko dela elkar ikusi ez dugula. Haserretu ginen egunean ez ginen gu. Oorain, denbora bat igaro ondoren, konturatu naiz oso gaizki egin nuela zuri erru guztia leporatzen; ezin nuen onartu gertatutakoa, ezin nuen sinetsi; barruan neukan haserrea zurekin ordaindu nuen eta ez da bidezkoa. Asko sentitzen dut Iraia; nire arreba bakarra zara eta ez zaitut galdu nahi.

Istripuaren egunean lagun bat galdu genuen, Lander. Autoan gindoazen zu, Lander, Olatz eta ni. Gutako inork ez zuen gogoratzen nor zihoan gidatzen, oso mozkortuta baikeunden. Ez dakit zergatik, baina zu zinela erruduna esaten genuen guztiok, ezer gogoratu gabe.

Zu, Iraia, denbora hartan Landerren neska-laguna zinen. Hasieran ez zinen errudun sentitzen, ez baitzenuen ezer gogoratzen guk guztiok bezala; baina azkenean guk errudun sentiarazi zintugun. Oraindik ez dut ulertzen zergatik, baina horrela suertatu zen.

Zu Japoniara joan zinen bizitzera, dena ahazten hasteko; ez dakit nola zauden, zure helbidea dakit bakarrik, eta orain arte ez naiz ausartu ezer idazten, hemen Olatz eta ni oso errudun sentitzen garelako oraindik. Baina berreskuratu egin nahi zaitut eta beharbada gutun hau lehen pausoa izan daiteke. Ez dakit, agian ezkondu egin zara japoniar batekin, ama izan zara eta nik une polit horiek guztiak galdu ditut eta ezin izan naiz zure ondoan izan.

Ni Olatzekin ezkonduko naiz hiru hilabete barru eta bioi zu gurekin egotea gustatuko litzaiguke. Ama eta aita oraindik harrিতuta daude hartu zenuen erabakiarekin eta horregatik ez dizute gutunik bidali. Aitonaren osasuna gero eta txarragoa da, zutaz oroitzen da egunero; gu, familiakoak, ez gaitu ezagutzen. Zure izena egunean hainbat biderrez esaten du eta horiek dira egunean esaten dituen hitz bakarrak.

Amona orain dela bi urte hil zen minbiziaren erruz. Oso gaizki pasatu genuen guztiok, baina batez ere amak.

Mixi katuak katakumeak izan zituen eta batekin gelditu ginen; Kiti jarri genion izena. Badakizu, Mixi amonaren katua zen; amona hil eta bi egun geroago hil zen katutxoa ere. Ez dakit, beharbada amona faltan botako zuen. Kiti orain amak zaintzen du, eta oso ondo gainera, amona zaintzen zuen bezala.

Ni herriko institutuko matematika irakasleetako bat naiz. Oso gustuko dut lan hau, ez dakit gogoratzen duzun, baina nik txikitan oso gustuko nuen matematika. Amonak beti zioen zerbait egin behar nuela zaletasun horrekin, eta begira, orain irakaslea naiz.

Olatzek euskara irakasten du Bergarako institutuan. Hasieran biok (batak euskara eta besteak matematika) irakatsi genuen Frantzian, Estatu Batuetan eta Australian; baina familia biziki botatzen genuen faltan eta gure herrira, Eibarrera, bueltatu ginen.

Eibarren gauzak ez dira asko aldatu zu joan zinetik. Hori bai, eraikin gehiago daude, eta krisiaren ondorioz jende asko eta asko lanpostu bila dabil. Hori ez da gure herrian soilik gertatzen, inguruko jendea ere horrela dabil.

Olatzek eta biok asko botatzen zaituztegu faltan Lander eta zu; Lander zoritxarrez ezin dugu berriz ikusi, baina zu, Iraia, Japonian bizi zara, leku hori oso urruti dago gu bizi garen herritik, baina telefono bidez, eskutitzez, internetez... komunika gaitzke. Guztiz botatzen zaitut faltan, benetan, edozer egingo nuke zu berriz ikusteko edo zurekin berriz hitz egiteko.

Istripuaren eguna behin eta berriz ikusten dut egunero nire buruan, ez dakit zer egin, agian zurekin hitz egingo bagenu, zure barkamena jasoko bagenu, lasaiago sentituko ginatke.

Gutun hau idazten nagoen bitartean, negar malkoak sortu zaizkit begietan, dena bizi eta sentitu dut berriro, zure lekuan jarri naiz eta oso gaizki sentitu naiz. Esan nizekin hitz guztiez damutu naiz. Ez ginen neba-arreba onak izan. Orain urte batzuk pasatu eta gero, uste dut zuk egin zenuen berbera egingo nuela, bizi berri bat hasi munduko beste puntan.

Gurasoek egunero egiten dute berba zutaz; zure bizitza nolakoa izango ote den pentsatzen hasten dira. Ez dakit zer gehiago egin familia animatzeko. Urte asko dira zu joan zinela, baina gertatutakoa ezin dut ahaztu, ez nik, ez Olatzek, ezta familiako inork. Benetan, arrebatxo maitea, barkaiguzu egin eta esan genizun guztia. Denak lur jota gaude oraindik, zure falta handia sentitzen dugu.

Gutuna idatzi kanpoaldeko helbidera edo telefonoz deitu mesedez; dena konpondu dezakegu zuk nahi izanez gero. Maite zaitugu.

Aitor



Eneko Fuentes
DBH 2. maila

“Irakurtzea eta lagunekin egotea dut gustoko”

BETI DAGO AUKERAREN BAT

Kaixo! Andoni dut izena eta 13 urte ditut. Nire familia ez da oso normala. Aintzane izeneko arreba bat dut. Gaixotasun arraro bat du, ondorioz, ez da bere kabuz jateko gai eta gazurraren bidez elikatzen da. Gaixotasun horrek sendatzeko modu bakarra du: Houstonera joan beharra tratamendua egitera, munduko mediku onenen artean. Nire familia nahiko pobrea denez, aita egunero 12 orduko lanaldiak egiten hasi zen. Ama, bestalde, lanik gabe dago eta etxeko lanez arduratzen da Aintzane zaintzen ez dagoenean.

Goiz batean, iratzargailuak jo, berehala altxatu eta gosaltzera joan nintzenean, sukaldean aita ikusi nuen. Hori arraro samarra iruditu zitzaidan, ez baitzen ohikoa aita etxean ikustea.

- *“Zer dela eta zaude hemen, aita?”* – galdetu nion. Aitak niri begiratu bezain laster aurpegi goibela jarri zuen.

- *“Zer dela eta?”*- arduratu egin nintzen – *“Zer gertatu da?”*

- *“Lantegia itxiko dute!”* – eta gehiago aguantatu ezinik negarrez hasi zen. Aitak zur tratamendua egiten zuen lantegi batean ziharduen lanean -.

- *“Baina orduan...”* - galdetu nion goibel – *zer gertatuko da gurekin? Eta Aintzanerekin?”*

- *“Ez dakit, baina nire eskuetan dagoen guztia egingo dut lantegia itxi ez dezaten!”* –esan zidan negarrez-



Egun hartan goibel eta pentsakor joan nintzen eskolara. Zer egin nezakeen nik lantegia itxi ez zezaten? Erantzuna, bigarren klaseko bukaeran txirrinak jo zuenean etorri zitzaidan. Manifestazio handi bat antolatuko nuen udaletxearen aurrean ia honek zerbait lortzen zuen! Honetarako, nire lagun guztiei laguntza eskatu nien.

Denen artean izugarrizko kartel deigarri bat disenatu genuen eta 50 kopia egin genituen. Kalera irten eta hiri osoan zehar jarri genituen. Zapaturako jarrita genituen.

Zapatuan, altxatu bezain laster, lagunei deitu eta Peioren etxean geratu ginen, dena eztabaidatzeko. Peruren etxean geundela pankarta batzuk egitea bururatu zitzaigun; hauetan *“Lantegia ez itxi”* eta *“150 langile kalera”* idaztea erabaki genuen.

Bostetan udaletxerantz abiatu ginen. Manifestazioa 6.30ean hastekoa zen eta. Udaletxean, zain geunden bitartean, hitz egiten egon ginen. Manifestazioa nahikoa ez zela bagenekienez, soluzio gehiago bilatzeko pentsakor geunden arren, ez zitzaigun ezer bururatu.

Seiak eta hamabostean plaza ia beterik zegoen. Nire aitaren lagun asko ikusi nituen, baita aita ere! Ez genuen uste hainbeste jende etorriko zenik.



Tamalez, manifestazioak ez zuen soluziorik eman. Egoera larriagotzen zihoan heinean, nire burua gero eta makalago ikusten nuen.

Handik egun batzuetara, eskolatik irtetzerakoan Peru hurbildu zitzaidan:

- *“Kaixo Andoni!”* – bota zidan-.
- *“Epa Peru! Zer berri?”* – erantzun nion-.
- *“Berri onak dakarzkizut! Begira, dakizuenez nire aita Geologoa da eta lehengo egunean berriak ikusten geundela, Araban harriari lotuta dauden Gas – Naturalaren boltsak aurkitu direla ikusi nuen.”*
- *“Eta? Zer on ekarriko digu bada horrek guri?”*
- *“Baina oraindik ez duzu ulertzen?”* – esan zidan – *“Lantegiaren inguruko lurra Arabako enegitura berdinekoak dira aita dioenez, eta, horregaitik, ikerketa bat burutuko du lantegia eraikita dagoen lurretan Gas – Naturala dagoen jakiteko.”*
- *“Baina...”* - aurpegia argitu zitzaidan – *“Horrek, Gas – Naturala aurkituz gero, ez dutela lantegia itxiko esan nahi du!”*
- *“Hori da! Ulertu duzu azkenean!”*

- *“Ze ondo! Baina... Noizko egongo dira ikerketak bukatuta?”*
- *“Aitaren ustez, hilabete barru”*
- *“Jo! Aitari esatera noa!”*- Eta korrika alde egin nuen-.

Hilabetea ikaragarri luze egin zitzaidan. Bukaezina iruditu zitzaidan, baina azkenean ikerketak bukatu ondoren lantegiko langileentzat bilera bat antolatu zen, erantzuna jakin zezaten.



Egun hori hilabete osoa baino luzeagoa egin zitzaidan, baina azkenean, une erabakiorra iritsia zen.

Etxeko atearen soinua somatu bezain laster bertaratu egin nintzen. Han zegoen aita. Ez nintzen gai pozik ala triste zegoen jakiteko. Nire ikusmin aurpegia ikusi zuenean barreka hasi zen.

- *“Lortu dugu, seme!”*



Asier Zabaljauregi
DBH 2. maila

“Gitarra jotzea gustatzen zait”

Denboran harrapaturik

Eguzkia ekialdetik irtetea, orratz itxurako eraikin haietan islatzen zen eguzkiaren indarra nola handitzen zihoan. Ezinean ikusten zen hura ere auto zalapartatsu haien erruz, airean ostendurik zihoan kutsadura gorantz. Berriro ere beste egun bat zen unibertso honetako denboraren joanean. Ikusten ziren kolore bakarrak beltza grisa eta tristetasuna ziren. Harriturik, ez. Denboraren jaunak bazekiten hori gerta zitekeela. Gizakiak dituen gaitasun guztiak eta baliabideak edukita: pentsatzeko indarra, imajinazioa, sormena, ideiak burutzeko materiala eta elkar maitatzeko gaitasuna. Nola ahal izan dugu hain barrurainoko hanka sartze bat egin. Aipatutako azken hau: elkar maitatzeko ahalmena gutxien ikusten dudanetarikoa da, egia esan familia gutxi batzuetan bakarrik irauten du. Egunero altxatzean halako pisu bat nabari dut ariman eta itxaropen izpi baten beharra dut.

Mundua usteltzen ari da. Zerbait egin beharko da hau iluntasunen mundutik ateratzeko edo gutxienez tirakada bat emateko.

Hortaz doa nire istorioa. Ni Hobokengo mutil bat naiz. Hau da, New Yorken ingurutik dagoen hiri batekoa. Denboran bidaiatzea ezinezkoa zela uste nuen. Ezer ez da ezinezkoa. Garaiko zientzialariek posible zela zioten, baina zaila izango zela egitea. Egin behar zen bakarra denboraren puntu batera joatekotan bertan ere kokatu behar ziren denboraren makinak. Bi ate balira bezala kokatu eta erdiko bidea zeharkatzea zen gauza. Hori ez zekien inork. Bakarrik zientzialariek eta nik.

Dena hasi zen ordenagailuan nenbilela. Azterketa neukan eta ohar berrien bila nenbilen gero ikasteko. Beti gertatzen den bezala, informazioa

bilatzean behar duzunaz aparte beste gauza batzuk ere aurkitzen ditugu. Loturei klik egin eta egin, azkenean ikasi behar zenuenarekin zerikusirik ez duen orrialde batera heltzen zara. Gauza harrigarri eta arraro batzuk jartzen zituen batera heldu nintzen.

Bat-batean hau aurkitu nuen. Hainbat filmetan ikusitako denboraren makinari eta hari buruzko datuak agertu ziren.

Honek ukitu egin zidan jakin-nahia. Hari buruz bilatzen jarraitu nuen hurrengo egunetan.

Kasualitatea, bi asteren buruan Washingtoneko etxe zuria ikustera gindoazela. Datu haietako batek zioenez, horrelako sekretuak Ameriketako Estatu Batuetako lehendakariak gordetzen zituen.

Eguna heldu zen. Denak gindoazen ibilgailu haietan. Bi talde egin genituen. Ni leihatilatik begira nioan. Paisaia ilun hura leihatilan eta nire begietan islatuak tristetu ninduen. Lurra berdea eta kutsatugabea zenean ama lurra pozik zegoen.

Ez dakit zergatik gizakiak egin zion halakorik bere amari. Daukagun adimenarekin bera kaltetuko ez duten asmakizunak egin ahal ditugu, soberan.

Horri bueltak ematen jardun nuen eta denboran atzera egitea otu zitzaidan arinagoko belaunaldiei inspiratzeko eta ezbeharririk gertatu baino lehen historia aldatzeko. Baina hori ezinezkoa zela zirudien. Gida batek etxea erakutsi zigun, baina bakarrik gela batzuk, besteak debekatuta baitzeuden. Orduantxe hasi zen dena.

Gela batean konferentzia bat edo batzar bat egiten zeudela iruditu zitzaidan. Hortaz, belarria jarri nuen horman hobeto entzun nezan. Aho bete hortz geratu nintzen huraxe entzutean: *“Denboraren makina ia amaituta dago jauna”*

Buelta amaitzean furgoneta zuri bat ikusi nuen eta bata zuri bat duten pertsona batzuk kargamendua sartzen. Hori nire begiekin ikusi behar nuen. Korrikan joan eta sartu nintzen furgonetaren atzeko aldean.

Hainbat ordu barru, ez bainuen erlojurik, basamortu moduko batera heldu ginen. Eta ezerezaren erdian eraikin zuri eta borobil bat hainbat paraboliko eta antenarekin. Gero hainbat proba zeuden hatz-markena gero begiena eta listu laginarena. Oso arraroa zen eta apur bat gehiegizkoa iruditu zitzaidan.

Hori, oraindik furgonetan geundela, eta ni mantel zuri baten azpitik begirutzen. Urduritasuna zebilen korrika nire zainetan zehar. Inurriak bizkarretik gora igotzen zeundela bezala, kili-kiliak egiten zidan ni harrapatzearen beldurrak.

Ezkutaturik geratu nintzen furgoneta moderno haren barruan. Zientzialari haiek esan zuten gero etorriko zirela pieza haien bila. Ezin nintzen irten itxita baitzegoen atea. Deskantsatzeko aprobe txatu nuen.

Ordu batzuen buruan bueltan ziren. Oso urduri jarri nintzen aurkitu egingo baininduten. Ezin nuen ezer egin. Atea ireki bezain laster susto itzela eman nien eta tximista bezala irten nintzen. Etorri ziren leku beretik sartu nintzen eta korridore luze haietan zehar korrikan jardun nuen edozein norabidetarantz biratzen. Halako batean ate bat aurkitu nuen zabalik. Sartu eta bertan zegoen aurkitu nahi nuena denboraren makina. Bi poste kablez josirik goitik behera, Haien inguruan milaka ordenagailu, poste haietako baten alboan zeuden kontrolak: zein toki, zein urte, zein egun eta zer ordura bidaiatzekoak. Eta bi posteen erdian zurrunbilo beltz bat kolorez aldatzen zihoan.

Garai honetako zientzialariek “industria garaia” deitu diote 1750. urtetik 2000. urtera artekoari eta hortik aurrera fabrikak hobetzen jardun dute.

Pentsatu gabe zer eragin izango zuen, “1780 urtea/Ekainaren 15a/4:30ak/ Birminghameko plaza/” jarri nuen.

Egun hartatik aurrera etorkizun ilun kez betetako eta latz hura desagertu egingo zen. Ezin bizi zintezkeen biztanle haiek leku garbi eta berde batean egongo ziren .

Etorkizunean ikasitako guztia hauei erakutsi nien eta azaldu zer gertatuko zen industrializazioa gehiegi zabaldu ezker. Mundua toki beltz, ilun, zikin eta triste batetik toki berde, garbi eta alai bat izatera bueltatu zen. Kutsaduragatik desagertutako animalia guztiak berriro zeuden bizirik, landareak leku guztietan ...

Hau da gustatuko litzaidaken istorioa.



Aritz Mendiola
DBH 2. maila

“Antzeztea eta abestea maite dut”

MILIZIA = DESGRAZIA

2011, Uztailak 5:

Luzexka zen, niri begira. Iluna zen, izar bat bezalako distirarekin, ordea ez nekien zer neukan nire begien aurrean: Nire alboetan bi gizon neuzkan, negarrez, nik ez nekien zergatik. Eta orduan uniformeaz jantzitako gizon asko etorri eta gauza luzanga horiek obatu eta gauzak esaten hasi ziren, hau alegia:

CARGUEN, APUNTEN, FUEGO!!!!

2011 Maiatzak 24: (Kenyan nonbait)

- *Egun distiratsua lanerako ezta Mahama?* -galdetu zuen amak-.
- *Egunero bezalakoa mari - erantzun besteak -.*

Txikitxoak nintzen. Nire bizimodua gustatzen zitzaidan, lasaia, txiroa bai, baina batez ere lasaia. Amak bi musu eman eta lagunekin joan nintzen, ama lanera zioan bitartean.

2011 Ekainak 13: (Kenyan nonbait)

- *Ama zu zara ama? AMA!!!!*
- *Lasai amets bat besterik ez da izan.*

Baina, oso erreala zen amets bat izateko. Bi aste amets berdinarekin, ezin da izan. Egoera hauetan nik banekien nora joan. Horretarako, ordea, “MENDIA” igo behar nuen. Baina amak ez zidan joaten utziko, orduan gauean irten beharko nintzen.

2011 Ekainak 14: (‘MENDIA’ igotzen)

Inoiz ikusi ez nituen piztiak, inoiz ikusi ez nituen landareak zeuden ‘MENDIAN’; igotzen nihoala, herrixka gero eta txikiagoa ikusten nuen. Txarto sentitzen nintzen, amari ez niolako ezer esan. Azkenean heldu nintzen, hantxe zegoen koba handi bat eta barruan, barruan ...halako deabru itxurako gizon bat zegoen!!!

- *Kaixo txiki. Zure zain nengoen.*

Ahots hori, ezin zen izan: “*Aitona ?*” galdetu nuen.

- *Kostatu zaizu mutil, zelan zaude?*

- *Ba, txarto. Bi aste daramatzat lo egin ezinik amets batzuegatik.*

2011 Ekainak 15:

- *Aitona!, esnatu aitona.*

- *Zer nahi duzu?*

- *Espirituak datoz.*

- *Ze espiritu?*

- *HORIEK!!!!*

Orduan ni eta aitona harrapatu eta munstro izugarri batetara igo gintuzten, kotxe batetara. Ez nuen ulertzen zer esaten zuten. Aitonak besarkatu egiten ninduen eta orduan ondoan zioan munstroan zera, ama ikusi nuen!

- *Ama zu zara ama? AMA!!!!*

Baina oraingoan ez zegoen inor amets bat zela esateko. Eta denbora gutxitan ama desagertu egin zen munstroaren gainean.

2011 Ekainak 20: (munstro barruan)

Ez dakit zenbat egun egon garen munstro honen barruan jan barik. Ezin dut nire gorputza altxatu, ez dut indarririk ezertarako baina azkenean espirituak gugana etorri eta hau esan ziguten:

- *VOSOTROS, ABAJO!!!*

Ez nien ulertu, baina ate bat zabaldu eta kanporantz seinalatzen zuten. Orduan, atera egin nintzen. Eraikin handi batzuetara sartu gintuzten; kasko bat jarri, halako traste izugarri bat eman eta beste munstro batera sartu gintuzten.

Baina norbait falta zen, Aitona!!!

Beste espiritu bateri galdetu nion: “*Espiritu! Nora daramate nire aitona?*”

- *Aizu! Ni ez naiz inongo espiritua, erreala naiz!*

- *Baina, zuri-zuria zara eta.*

- *Eta zu beltza eta ez dut ezer esaten!*

2011 Uztailak 3:

- *ENTREN!* gizon zuriak sartzeko esan zidan, eta ala egin nuen-

- *Nora goaz gizon zuri?*

- *Amaierara ume, amaierara.*

Amaierara? Zer jokotan ari zen jolasten “gizon zuri” oraingoan?

Hau dena oso arraroa da, ez dut ezer ulertzen. Ama galdu da, aitona galdu da, orain zer, “gizon zuri” galduko da ala?

Kristoren lerroa zegoen ez dakit nora joateko eta logurak hartzen hasi zitzaidan. Orduantxe lo egiten hasi ziren eta, momentua aprobetxatuta, ni ere lo egiten hasi nintzen.

2011 Uztailak 4:

Ez zen lerro izugarri hau inoiz amaituko ala? Nazkatzen hasia nengoen jada.

- *Mutil, ez zaitetz atzean geratu.*
- *Baina, hau nekagarria da gizon zuri!*
- *Ulertzen dut baina agoantatu egin beharko duzu.*

Eta halaxe egin nuen, ibiltzen jarraituz.

2011 Uztailak 5:

Amaitu zen lerroa eta egur batzuetan jarri gintuzten.

Luzanga zen zerbait nuen aurrean niri begira, iluna zen, izar baten distirarekin ordea, ez nekien zer neukan nire begien aurrean, nire alboetan bi gizon neuzkan, negarrez, nik ez nekien zergatik. Eta orduan uniformeaz jantzitako gizon asko etorri eta gauza luzexka horiek obatu eta gauzak esaten hasi ziren, hauxe alegia: **CARGUEN, APUNTEN, FUEGO!!!!**



Xabier Oianguren Asua
DBH 2. maila

“Gora gu, euskara eta Euskal Herria!”

ZEIN ZAILA DEN SEMEA IZATEA

Bai, zein zaila den semea izatea! Batez ere, zure arreba gogaikarri nagusiak 16 urte baditu, zure aita futboleant basterik pentsatzen ez duen gizon bat bada, eta zure ama denbora guztian aginduak ematen dagoen garbitasunaren “maniatika” bat bada.

Egia da, aurkezpenak egiten ahaztu zait! Ni Gorka naiz, Gorka Garai. Hamabi urte ditut eta DBH 1. mailan nago ikasten. Nire familia eta ni, betidanik Gernikan bizi gara, nahiz eta nire lagunek 5 urte nituela Martetik ekarri nindutela esan. Arraroa naizela diote eta horregatik, nire lagun Andonik izan ezik, denek ez ikusiarena egiten didate. Andoni ni baino urte bat gazteagoa da eta nire gelan dago, eta ez, ez da errepikatu dudalako baizik eta Andoni, bigarren mailatik, zuzenean, laugarren mailara igo zutelako. Bai, berari ere, niri bezala, arraroa dela esaten diote. Tere andereñoak esaten duenez, inbidiagatik da. Nik Andoniren kasuan ulertzen dut inbidiagatik izatea, baina nirean... uste dut Andoniren laguna naizelako dela, baina ez nago ziur. Niri Laura gustatzen zait, ni baino urte bat zaharragoa den neska bat, eta gauza da, Laura Andoniren arreba dela, beraz, teoriant gauza errazagoa izan beharko litzateke, baina ez da hala, beste mutil batekin baitago, eta zoritxarrez mutil hori institutuko matoia da, Roke Ruiz, eta Laurarengana hurbiltzen diren guztiei itzelezko jipoia ematen die. Ikusten duzue, beraz, zein zaila den nire bizitza etxetik kanpo, baina, oraindik txarragoa nire etxeko bizitza da. Esaten dutenez umeak zikoinek ekartzen dituzte (nahiz eta jada badakidan ez dela horrela), ba, beno, horrela izango balitz nire etxera ekarri ninduen zikoinari burua tokitik aterako nioke. Etxeko gogaikarriena nire arreba nagusia da, Izaro. 16 urte ditu eta onena eta ederrena dela pentsatzen du; ni ezertarako balio ez duen zakar bat izango banintz bezala tratatzen nau. Etxeko erregina dela uste du. Baina berak ere badaki, benetako etxeko agintaria ama dela. Amak, nik uste, edozein lehoi menperatuko luke. Oso gogaikarria da, egun osoa dago “Gorka egin hau, Gorka egin bestea, Gorka garbitu eskuak...” beti aginduak ematen, benetan aspergarria da. Gainera, garbitasunarekin “mania” bat du, egun guztia gauzak garbitzen ematen du. Eta beste alde batetik, aita dago. Aita lanean ez badago egun guztia irratia entzuten, egunkaria irakurtzen eta telebista ikusten ematen duen, bere seme-alabengandik arduratzen ez den, ditxosozko futboleant basterik pentsatzen ez duen aita horietako bat da.

Nire bizitza pelikuletako bezalakoa da, batzuetan sinetsi ezinezko gauzak gertatzen dira eta beste batzuetan betiko gauza berdin-berdinak. Hau bai hau!

MATEMATIKA eta FUTBOLA

Begiak ireki nituen, 9:10 ziren! Berandu nindoan klasera! Gaur ostirala zen eta notak emango zizkiguten! Berehala altxatu nintzen eta abiadan jantzi korrika institutura abiatzeko. Iritsi nintzenezan 9:35ak ziren. Maisuaren sermoia jaso ondoren nire tokian eseri nintzen. Ordurako iritsi nintzen notak jasotzeko, momentu hartan atera baitzituen bere karpeta zaharretik. Zer atera genuen ikusteko eman zizkigun. Espero nuenez nota onak izan ziren, matematikakoa izan ezik, 4'9 atera nuen, GUTXI!!. “Beti berdin”, pentsatu nuen. Egia esan aurreko bi ebaluaketetan ere nota bera atera nuen, nik uste dut Gontzalek, matematikako maisuak, mania didala. Eta badakit zergatik den, nire aitak, LORAK gas enpresan egiten du lan, bertako kobratzailea da eta horra hor arrazoia. Behin Gontzal maisua denbora asko gasa ordaindu gabe egon zen eta, beraz, nire aita joan zitzaion etxera kobratzera. Baina ni, bestalde, matematikan nahiko txarra naizela esan daiteke. Baina gutxienez 5 bat merezi dut, nik uste. Oraingoan topera ahalegindu bainaiz, aurrekoetan gertatu zitzaidana berriz ez gertatzeko asmotan; etxera iritsi eta amak Gabonetako opor-egun guztietan, goizero hamar matematikako ariketa egitera behartu ninduen. Hori bai sufrimendua!! Ba, beno, uda guztia mate egitera. Notak papertxo batean apuntatu nituen ebaluazioro bezala, jolas orduan Andonirenekin konparatzeko. Notak batu zizkiguten gero arratsaldean berriz emateko, oraingoan etxera eramateko. Jolas orduan Andonirenekin konparatu nituen, pentsatu bezala, kristoren diferentzia zegoen. Azkenean, gero eta tristeago jartzen ninduen hark: mate ez nuen gaintu, etxean erori behar zitzaidana eta oraindik gutxi izango balitz bezala, gehiago deprimitzeko, ikastun baten notekin konparatu. Institutuko gainontzeko eguna normala izan zen. Notak eman zizkiguten azken klasean, eta ni etxerantz abiatu nintzen astiro-astiro, amak matematika suspenditu nuela ez enteratzeko plan bat asmatzeko asmotan. Eta hauxe otu zitzaidan: nik, motxilan ematea ahazten zaizkidan ohar mordo bat daukat, Andonik dioenez “kolekzionatu” egiten ditut. Ba, beno, gauza zen ohartxo horietako batetik, bost zenbakia ebaki eta kontu handiz 4'5en gainean itsatsi, eta hala egin nuen; badakit ez dela hain ideia ona, baina, otu zitzaidan bakarra izan zen. Etxeko atea jo nuen, eta ireki zidan amak, ez zen izan betiko ama, hark zuen kopeta ilunak, lehoi nabarrak ere ikaratuko zituen. Sartu nintzen eta ez zidan ez “kaixo” ez “nola ikastolan?” ez ezer esan. Esan zidan bakarra hauxe izan zen: “Gorka, jakin dagizun, gaur ezkatza garbitzeko ez dudala denborarik izan, eta oso-oso haserre nagoela”. Hori seinale txarra zen bai beretzat eta bai niretzat, mateko gutxia erakutsiko banio, oraindik haserreago jarriko litzateke eta, niretzako haserre, benetan izango zena (hilgarria) baino mila aldiz txarragoa izango zela. Baina nire plan miresgarriari esker ez zen halakorik gertatuko, edo hori uste nuen nik behintzat... Eskuak luzatu zidan, biok genekien zer nahi zuen esan horrek (notak, mesedez). Zegoen umorean ez nekien, eman edo, ez eman. “Eman notak!” esan zidan azkenean. Eskuak darr-darr-ka nituen. Notak luzatu nizkion. Izerdi patsetan nengoen, sinetsiko zuen ala ez pentsatzen. Ireki zuen sobrea, atera zituen notak, tentsio handiko momentua zen... Ez zuen ezer esan. Ikusten geratu zen... “zorionak seme !“ esan zidan, eta musu bat eman zidan masailean, sinetsi egin zuen! Baina, “zorionak seme” esan zuen berriz; orduan banekien zerbait gaizki zihoala, bere aurpegia eraldatzen hasi zen-eta. “Zorionak ia sinestarazi egin didazulako, baina, badakit 4,9 atera duzula, eguerdian zure irakaslearekin topo egin baitut...” Orduan, albo batetik, magia izango balitz bezala, erratza atera zuen eta etxe guztitik nire atzetik zebilen. Hura zoramena!

Afaltzen geunden, Izaro, ama eta ni. Ama haserre zegoen. Aita partidua ikusten zegoen beti bezala beheko tabernan, mahaiak eta aulkiak ateratzen zituzten eta noski telebista eta kale erdian partidua ikusten egoten ziren, han denak, hipnotizaturik egongo balira. Bat-batean, antza “Athletic-ek” gola sartu zuen; haiek ziren zaratak, suziariak,

oihuak. Ama orduan golpez altxatu zen, galdara handi bat hartu zuen, ur hotz-hotzez bete, eta balkoitik behera bota zuen. “Ea behingoz isiltzen diren” esan zuen. Pozez betetako oihuak orain, sufrimenduzkoak bilakatu ziren. Izaro bere gelara joan zen afaldu ostean, ni bertan geratu nintzen oraindik postrea jaten. Partidua bukatu zen ordurako. Bat-batean, aita sartu zen, erdi mozkor, eskuan botila batekin. Berehala, amaren begien aurrean, botila lurrera erori zitzaion, lur guztia zikin-zikin zegoen kristalez betea, eta garagardoz gainezka. Amari ia atake batek eman zion (badakizue, garbitasunaren maniatika bat da, dena garbi egon behar da). Eta nahiko haserretuta ez bazegoen, oraindik gehiago haserretu zen, jada ezin izan zion haserreari eutsi, eta dena aitarengan deskargatu zuen. Ama animalia basati bilakatu zen, eskoba hartu zuen, eta gainontzekoa... Beno ni ohean nengoen, egia esan etxe honetan futbola gorroto dugu, aitak izan ezik. Hurrengo goizean berriz denok lagunak ginen.

PLANAK eta PLANAK

Zapatua zen, hurrengo eguna. Esan dudan bezala hurrengo goizean berriz ere denok lagunak ginen. Aurreko egunekoa denok ahaztua geneukan. Goiza, amaren aginduz, lanak egiten pasatu nuen, bai, goiz guztia. Nire ustez irakasle guztiak bateratu beharko lirateke zein lan bidali pentsatzeko, gu kexatu egiten baikara ditugun lanengatik. Orduan eurek esaten dute: “hau oso erraza da, hoge minututan eginda daukazu”, baina bakoitzak hori esaten badu, irakasgai bakoitzean, ba, hoge gehi hoge gehi hoge gehi hoge... Beno berdin dio. Arratsaldean, zapatu guztietan bezala, Andonirekin geratu nintzen, San Kristobal plazako gozoki denda aurrean. Bertan elkartzen dira gure adin inguruko guztiak. Beste umeengandik eguneroko irainak jaso ondoren (badakizue, arraroak garela esaten dute). Buelta bat ematera abiatu ginen. Bat-batean, Ramon eta bere koadrila agertu ziren (gure gelako “guay-ak”). Baina zertarako-eta laguntza eskatzeko! Ramoni ere niri bezala Laura gustatzen zaio. Gauza zen guk plan bat egitea Roke Lauragandik banatzeko eta Ramonek bere bihotza irabazteko. Ordainetan hilabete batean ez ziguten ezer txarrik esango. Guk pozarren onartu genuen, nahiz eta niri ez egin grazia askorik Ramon Laurarekin egoteak. Andoni eta ni plana prestatzen geunden. Andoni alboan izanik erraza izan zen plan on bat burutzea. Azkenean ideia bat otu zitzaidan, azkenean Lauraren bihotza neuk irabazteko; ideia Andoniri aurkeztu nion eta berak onartu egin zuen, merezi zuela esan zuen egiten digunagatik. Gauza zen Ramonek Laura eta Roke batera paseatzen Rokeri atzetik baloiaz gogor ematea lurrera erori zedin eta lurrean zegoela pastel bat aurpegira botatzea, suposatzen zen hala Laura barrez hasiko zela eta Ramonekin geratuko zela, eta hori esan genion Ramoni. Baina hori ez zen benetako plana zeren guk bagenekien Laura ez zela horrelako neska bat, orduan ezkutuko planaren zatia hauxe zen: Romanek tarta botatzerakoan Laura ikaratu egingo zen eta momentu hartan ni heroi bat izango banintz sartzea eta Ramoni tarta bat botatzea. Horrela Laura pozik jarriko zen eta konkistatu egingo nuen. Eta hala egin genuen, han agertu nintzen ni, heroi bat izango banintz bezala, eta Ramoni tarta bota nion; Laurak hori ikustean Ramon pastel batekin aurpegian pailazoen espektakulu bat izango bailitzan, barre egin zuen. Orduan nik, Rokeri eskua luzatu nion altxatzen laguntzeko eta aurpegia garbitzeko trapu bat eman nion. Biek pozik eskerrak eman zizkidaten eta Laura nigana hurbildu eta musu goxo bat eman zidan masailean. Momentu hartan zeruan izango banintz bezala sentitu nintzen. Biak eskua emanda urrunean desagertu ziren. Ez zen pentsatu bezala irten dena baina, hasiera on bat zen, gutxienez... Ramon haserre korrika joan zen eta ni Andonirengana joan nintzen, dena ondo irten zen.

Etxera iritsi nintzanean gurasoak jantzita zeuden. Ahaztua neukan zapatua zena! Eta oraingoan ere larunbat gau guztietan bezala, gurasoak lagunekin zihoazen, eta ni nire ahizpa gaiztoarekin geratu behar izan nintzen, eta nola ez, zapaturo bezala oraingoan ere gurasoak enteratu gabe bere mutil lagun bat ekarriko zuen. Arraroa zen astero mutil desberdin bat ekartzen zuela etxera, baina denak ziren berdinak, denekin txarto konpontzen nintzen. Pentsatzen zuten nire gurasoak zirela eta ni euren zerbitzaria nintzela. Gorroto nituen zapatu gauak! Baina oraingoan desberdina izan zen, amaren atzetik Andoni irten zen, gaua gure etxean eman behar zuen, bere gurasoak ospitalera joan baitziren bere amona zaintzera, gaixo baitago. Gurasoak joan egin ziren, eta handik pixka batera Izaro bere mutilaren bila joan zen. Etorri bitartean, Andoniri zapatu gauetako amets gaiztoa kontatu nion, eta gurasoak, goizeko bostak arte ez direla etortzen. Beraz, berriz ere plan bat prestatu genuen: bi edalontzitan limonada bota genuen eta gero amaren lo egiteko hauts pote guztia hustu genuen bertan. Normalean Izaro etxera mutilarekin heltzean, bi baso bete limonada eskatzen zizkidan eta etorri zirenean horixe eskatu zidan. Andonik edalontzi bat eta nik bestea hartu genituen eta beraiei eman genizkien. Edan eta biak segituan lurrera erori ziren, lo ziplo. Andonik hanketatik eta nik eskuetatik, Izaroren gelara eraman genituen banan-banan. Libratu ginen beraiengandik. Eta gau guztia bideojokoetara jolasten pasatu genuen, noski, bostak laurden gutxiagotara arte.

Hura bai hura egun zoroa!!



Olaia Zenigaonaindia
DBH 2. maila

ESPERIENTZIA AHAZTEZINA

Tik, tok, tik, tok... eta azkenean iritsi zen guztiok zain geunden unea, kurtsoaren amaierako azkeneko txirrina. Motxila pisutsua bizkar gainean, korrika ihes egin genuen kartzela (institutua) hartatik.

Saioa, Andere eta nik DBH amaitu genuela ospatzeko planak egiten geunden. Urte hartan hainbat bizipen eta sentimendu desberdin esperimentatu ahal izan genituen ikasbidaiarekin, baina zerbait gehiago behar genuen, zerbait guztiz berria, 1. mailatik noizbait betetzea nahi genuen zerbait.

Tarragonako kanpin batetara joan nahi genuen, "La Torre del Sol" izenekoa, bertan egun bat igaro eta primeran pasatzeko. Arazoa zera zen: gure gurasoek ez zigutela uzten. Baina, zertarako jakin behar zuten? Ez genuen haien laguntzarik behar, bertara iristeko autobusa hartuko genuen, honek Tarragonan utzi, bertan taxi bat eskatu eta kanpinean izango ginen.

Gurasoei norbaiten etxean bi egunez lo egingo genuela esan eta ezer gehiago itxaron barik gure abenturatxoa bizitzeko prestaketak egin eta bidaiari hasiera eman genion. Gau hartan hartu genuen autobusa, bertan ahal izan genuen moduan lo egin eta zortzi ordu luze itxaron genituen heldu ginen arte. Taxi batek kanpinean utzi gintuen eta partzela bat aukeratzera abiatu ginen. Ez genuen aukera askorik izan, gehienak okupatuta baitzeuden, hala ere partzela polita aukeratu ahal izan genuen; inurri gutxikoa, pinudi bakoa... Bertara iristeko auto txiki bat utzi ziguten, golfeko autoa zetorkidan burura. Hura gure mailetekin bete eta ni neu jarri nintzen txofer gisa, gidatzeari buruz txintik ez banekien ere. Beraz hor joan ginen ziztu bizian, suziri bat baino bizkorrago, ezker-eskuin, ezker-eskuin, Saioa dena primeran bazihoan bezala kantatzen, Andere emozioaren emozioz niri iletik tiraka... azkenean kanpinaren gida aurpegian jarriz eta noraezean gindoazela... KATAPROM!!! Gure autotxoa arbola baten kontra jo zen, isil-misilka gure gauzak hartu eta ihesi joan ginen partzelara.

Izugarrizko gosea geneukan, beraz, espagetiak prestatzea pentsatu genuen. Ura egosten jarri eta espagetiak bertara sartu genituen. Hauek biguntzerakoan, zartenean pernil egosia eta txorizoa txikituta, okela pikatua eta tomatearekin nahasi eta hor genituen espageti gozo-gozoak itxura ezin hobeagoarekin. Saioak zartena hartu zuen mahaira eramateko eta ni bere atzetik nindoan, baina halako batean txankleta batekin estropezu egin zuen, erortzerakoan zartenarekin atzera egin... eta... espageti guztiak nire aurpegira erori ziren, tomate eta guzti.

Halako kasuetarako bigarren plan bat geneukan eta oraingo honetan ondo aterako zelakoan geunden. Txistorra txingarretan prestatzen jarri genuen. Bitartean gu kontu-kontari genbiltzan.

- Zer Ziara... Hurrengo batean zuri deituko al dizut edonora joateko?- esan zidan Saioak barrez lehertzeko zorian-.
- Bai, ezta? Txofer gisa berriz ere gure abenturetan murgilduta – Anderek-.
- Nik uste ez dudala berriz halako autotxo bat ukituko eta gutxiago gidatuko.
- Ja, ja... barkatu espagetienagatik, ez nuen espero lurrean Andereren txankleta bat egoterik.
- Tira neskak, orain niri errurik ez bota... Zer da hori? SUA, SUA!!!-

Anderek trapu zahar bat hartu, sutera bota eta gainean salto egiten hasi zen amatatzea lortu zuen arte. Antza, txingar zati bat lurrera erori zen bero-bero zegoela eta sutea sortu zuen. Gure kontuekin eta sutearekin nahasirik, guztiz ahaztuta geneukan txistorra. Gogoratu genuenerako, gaeko zerua baino beltzago zegoen, guztiz erreta. Gure bazkaria pikutara joan zen. Zer egin jakin ezean, duela bi urte erositako sopa poltsatxoak jan behar izan genituen. Berotu eta jan, ez geneukan beste erremediorik, baina honen zaporeak jantokiko janaria gogora ekarri zigun.

Gure luxuzko bazkaria jan ondoren hondartzara joan ginen bainutxo bat hartzera, hamar metrora baikeneukan. Hondartza beterik zegoen, eta zirudien eguzkiaren izpiek perpendikularki jotzen zizutela. Ura izoztuta zegoen, kanpoan egiten zuen beroarekin konparatu ezina. Hala eta guztiz ere behin uretan sarturik ez zeneukan berriz ateratzeko gogorik, bertan bizi guztirako gelditzekoa zen. Baina bat-batean Andere garrasika irten zen uretatik, zerbait nabaritu zuela zihoen, zerbait ukitu egin zioela. Ez genion kasu handirik egin, baina bera ez zen berriz uretara sartu, toailan etzan eta bertan geratu zen. Orduan, Saioa ere zarataka irten zen uretatik, eskua ipurdian zeramala. Karranpa handi bat nabaritu zuen ipurdi aldean eta guztiz handituta zeukan, granoz beterik eta tomatea baino gorriago. Kezkaturik, soroslearengana abiatu ginen. Saioak lotsaz ipurdia erakutsi behar izan zion, hark amoniakoa botatzeko eta izotza jartzeko esan zigun, medusa batek ziztada gogorra eman ziola erantsiz.

Berandutu egin zitzaigun hondartzan, eta kanpin-denda prestatzea erabaki genuen. Nik aurkitu nuen lehenengo kanpin-denda hartu nuen etxetik, hiru pertsonentzako dela pentsatuz. Baina ez zen horrela izan; pertsona bakar batentzako kanpin-denda eraman nuen. Arazo hori gerorako utziz, Anderek eta nik muntatu egin genuen Saioak ipurdian izotz poltsa handi bat zeramala.

Ez geneukan dirurik ezer erosteko, beraz, ezin izan genuen afaldu eta sabela hutsik geneukala diskotekara joan ginen dantzatzera eta primeran pasatzera.

Diskoteka izugarri handia zen, hainbat koloretako argirekin eta zerbitzari asko zure zerbitzura. Egia esateko benetan luxuzko diskoteka zirudien, jende ospetsuz beterikoa, xarma handiko jendea, kalitatezko arropa eta jantzi distiratsuez estalirik. Hor geunden gu, hiru umemoko diskoteka erdi-erdian arropa petralekin eta ezer prestatu barik. Lekutxo aurkitu genuen, edo hobeto esatearren aurkitu zuten nire bi lagunek. Saioa mutil erakargarri batekin joan zen, eta Andere... beno Andere hain txikitxoazenez, ez nuen inondik ere ikusten. Ordu laurden egon nintzen ni zer egin jakin ezean eta leku lasaiago bat aurkitu nahian ihes egin nuen nesken komunera. Bertan aurkitu nuen Saioa, beharbada eta zorte apur batekin Andereri itxaroten.

- Nola doa gaua mutil puska horrekin?- galdetu nion jakin-mina izango banu bezala.

- Orain nago berari itxaroten.

- Zer? Ez dakit konturatu baldin bazara baina nesken komunean gaude.

- Eemm... Nola? Ez da izango... Argg, zelako nazka!!!-

Saioa eta ni ziztu bizian irten ginen komunitik eta hara non ikusten dugun Andere, barra gainean dantza egiten ezerk axola ez balitzaio bezala. Ahalik eta arinen bertatik jaitsi genion, baina orduan Anderek laprast egin eta zerbitzaria jo zuen nahi gabe. Zerbitzariaren erretilua eta bertan zegoen edalontzia airean ikusi nituen, Andereri eskutik heldu eta atzeraka egin nuen beste norbaiti berriz ere nahi gabe joz. Hirurok eskutik helduta diskotekatik ihes egin genuen lau hankatan, bertan izugarritzko borroka sortu baitzen jada.

Kanpin-dendara iristerakoan leherturik geunden eta inongo beste gatazkarik sortu gabe bata bestearen gainean egin genuen lo.

Nahiko garaiz esnatu nintzen. Saioa eta Andere oraindik lo zeuden eta kanpin-dendatik ahalik eta isilen irten nintzen eurak ez esnatzeko. Ez dakit nola, baina kanpoan nire gurasoak, Saioaren gurasoak eta Andererenak zeuden, hauen atzean polizien bi kotxe zeudelarik. Ezin nuen sinetsi neure begiek ikusten zutena, amets gaiztoa zela espero nuen, baina ez zen horrela eta imajinatu dezakezue geroago gertatu zena.

Gutxienez inoiz errepikatuko ez dugun esperientzia ahaztezina bizi genuen (ez dakit ona edo txarra baldin bazen).



Malen Akordagoitia
DBH 3. maila

“Biolentzia denon erantzukizuna da”

NAHIKO DA

Hasieran ez dut pentsatu errealitatean gertatutako gauza bat denik, amets gaizto bat baino ez dela izan pentsatu dut. Esnatu naizenean, orduan konturatu naiz benetan gertatutako gauza bat dela.

Inoiz ez nuen pentsatuko horrelako egoera batean sartuta egongo nintzenik, telebistan gertatzen diren gertakarietako bat zela uste nuen. Baina atzo konturatu nintzen zer den mehatxatuta egotea eta orduan konturatu nintzen nola milaka eta milaka emakumek egunero jasaten dituzten egoera egonezinetan parte hartzea.

Bart, nire lagun taldearekin batera etxera nindoala, metroko sarreran bikote bat ikusi genuen eztabaidan. Hasieran, ez genion garrantzi handirik eman ikusi genuenari baina denbora batera gauzak txarrera zihoazela ohartu ginen.

Bikote arrunt baten itxura zuen, ez genien ezer berezirik sumatu. Gu bezala Plentziarako metroan zihoazen. Metroa gure parera heldu zen azkenean, eta barrura sartu ginen. Bikotea gure atzetik bagoi berebanean sartu zen. Gero eta zarata eta oihu gehiago irteten ziren beraien ahoetatik eta gu beldurrak hilik geunden. Ez zen inor ageri gure bagoian, gu eta beste biak besterik ez.



Bat-batean, mutila neska mehatxatzen hasi zela ikusi eta neska negarrez hasi zen, ez zekien zer egin, gugandik gero eta gertuago zeuden. Orduan, mutila neskari bultzatzen hasi zitzaion eta neskak eskuan zeraman poltsarekin jo zuen.

Mutila gero eta haserreago zegoen, eta orduan eta gogorrago jotzen zuen. Neskak begirada triste bat bota zigun, laguntza eskatzeko asmoz. Ez genekien zer egin eta Anek, lagun batek, bere mobila atera zuen. Mutilak ikusi egin gintuen, neska lurrera bota eta gugana etorri zen mobila kentzera. Mugikorra eskuetatik kendu zion Aneri eta lurrera botaz hura zapaltzen hasi zen dena txikituta utzi arte.

Momentu horretan mehatxaturik zegoen bakarra ez zen bere neskalguna, gu ere eztabaidan sartuta geunden.

Orduan, nire buruan galdera batzuk planteatu nituen: zer egin ahalko genuen, zergatik gertatu behar zitzaizkigun holako gauzak... Neskari lagundu behar zitzaiola argi genuen, baina gu ere egoera txarrean geunden; beraz, zer egin? Hainbat galdera ziren erantzuna aurkitzeko.

Etxetik deitu zidaten, baina ez nintzen mugikorra erantzutera ausartu. Mutilak eskuan zeraman labana oso zorrotza zen eta mehatxatuta egon ostean, beldur itzela ematen zuen.

Gu Plentzian jaistekoak ginen, eta geraleku bi baino ez ziren falta gure helmugara heltzeko. Beldurtuta geunden, beharbada ez zigun irteten utzi nahi. Baina are txarrago gertatu zen, bikotea ere Plentzian jaitsi zen eta bere neskalgunarekin batera bertatik hurbil zegoen txoko batera eramán gintuen.

Ez zen inor ageri kalean, hark deserta bat zirudien. *“Txoko hori garbitzera”* agindu zigun, bere neskameak bagina bezala; ez zigun bertatik irteten utzi gela garbi-garbi utzi arte. Ez zigun utzi geldirik egoten; geldi egonez gero, ostiko batzuk joko zizkigula esan zigun. Baina ezinezkoa zen, oso zikin zegoen eta hormak margotuta eta gaizki zainduta zeuden. Hezetasuna zen bertako zaindaria eta orduan eta zailago jarri zigun hura garbitzeko.

Jada gaueko hamaika eta erdiak ziren eta gurasoak oso kezkatuta zeuden ordurako. Ezkutuan etxera mezu bat bidaltzea pentsatu nuen. Laster helduko nintzela; lasai egoteko esanez.

Txokoa nahiko garbi utzi genuen, ahal izan genuena egin ondoren. Mutilari joateko baimena eskatu genion dagoeneko, ordu txikiak baitziren. Hotzak janda geunden denok eta azkenean mutilak joaten utzi gintuen. Baina neskalguna bertan geratu zen. Ez zion bertatik irteten utzi eta atea itxi genuenean, zaratak eta negarrak entzuten ziren barruan.

Etxera joateko beharra genuen; izan ere, ez ziren orduak kalean egoteko, baina mutil batek neska mehatxatzen ikustean, zerbait egitera behartzen ninduen nire buruak.

Baina zer egin? Gure aurrean neska jotzen zuen bitartean, ezin ginen geldi egon, zerbait egin behar genuen. Kasu horrek ezin zuen horrela jarraitu. Baina gu hamalau urteko neska batzuk izanda, ezingo genuke mutil hori gelditu; beraz, laguntza eskatzea

eta ertzainei deitzea zen komenigarriena.

Lagun batzuek etxera joan behar zuten, beldurrak hilik zeuden, eta ez zuten gurasoen errietaryk entzun nahi. Ane eta biok bertan geratu ginen.

Kaletik, taberna utzi ondoren, etxerantz zihoan herriko zerbitzari bat ikusi genuen. Roberto zuen izena. Gertatzen ari zena kontatu genion eta laguntzeko prest gurekin geratu zen. Nire mobila erabili genuen ertzainei deitzeko, Anerena metroan geratu baitzen, mutilak txikitu ondoren. Beldurra nuen sinetsiko zidaten ala ez, eta azkenean Roberto jarri zen telefonora, ertzainei ziztu bizian etortzeko esanez.

Azkenean, ertzainak heldu ziren. Auzokide asko ere irten ziren beraien balkoieta zaratak zirela eta.

Txokoko atea ireki zuten ertzainek, bertan neska negarrez eta mutila metroan atera zuen labanaz mehatxatzen ari zen. Mutilak, atea ireki zenean, izugarrizko lelo aurpegia jarri zuen. Neska negarrez zegoen, baina atea ireki eta ertzainak agertu zirenean, irribarre txiki bat argitu zen bere aurpegi tristean.

Gu ikusi gintuenean, neska gugana etorri zen egin genuenagatik eskertzerazauriz beteta zegoen. Gaixoa! Anbulantzia ere etorri zen eta neska, ospitalera eraman zuten. Mutila, berriz, espetxera, ertzainak lagun zituela.

Goizaldeko ordu biak aldera iritsi ginen etxera. Ni behintzat oso nekatuta, horrelako eguna pasa ondoren ez zen arraroa egia esan. Ez nuen lo askorik egin, nahiko kezkatuta egon nintzen neskarengatik, atzo oso larri ikusi bainuen; hainbeste zaurirekin ikusteak pena eman zidan, baina eskerrak eman zizkigun eta gaur harro nago atzo jokatu genuen moduan jokatzegatik.

Urte honetan eta beti, emakumeek jasan dituzten mehatxu eta bortizkeria guztiak berriro ez errepikatzea espero dut; beste asko bezala, eskubide guztiakin lasai bizitzea eta horrelako egoera ezinegonetatik ez pasatzea da merezi dutena eta mundu osoko pertsonen merezi duguna. Hori da nik desio dudana beste gauza askoren artean.





Ainhoa Elejaga
DBH 3. maila

“Surf egitea, futbolera jokatzera eta lagunekin egotea dut gustoko”

FROGA

Biharko matematikako froga. Hori zen buruan neukan bakarra. Kurtsoko azken froga zen, errekuperaketak kontutan izan gabe. Froga hau gainditu ezik, gai osoko froga egin beharko nuen eta hori gainditzea ezinezkoa izango litzaidake. Inoiz ez zaizkit matematikak atsegin izan eta horregatik ez dut klasean arreta askorik jartzen. Ez nekien gai hau ikastea hainbeste kostatuko zitzaidanik. Izan ere, pentsatzen nuena baino askoz zailagoa zen. Gainera, ikasten hasten nintzenean dena nahasten nuen eta beste momentu baterako uzten nuen. Baina orain ez nuen beste erremediorik, ikastea baizik. Liburua hartu eta ariketak egitera abiatu nintzenean... RING, RING!!!!!! Telefonoa deika hasi zen. Hartu egin nuen:

- *“Eiiii!!! Zelan?”*

Galdetu zidan nire lagun minak.

- *“Ondo. Eta zu?”*

- *“Ni ere bai.”*

- *“Zertarako deitu didazu?”*

Esan nion jakin minez.

- *“Ezertarako ere ez. Aspertuta nengoenez eta ez nekienez zer egin... zurekin hitz egitea erabaki dut.”*

- *“Orain ezin dut. Biharko matematikako azterketa prestatzen nago. Ez duzu uste zuk ere hori egin beharko zenuela?”*

- *“Ez. Badakizu nolakoa naizen. Eta gainera, 10 bat aterata ere ez dut gainditzetik lortuko. Ba al duzu nobedaderik?”*

- *“Esan dizut orain ezin dudala zurekin hitz egin. Ni ez naiz zu bezalakoa eta gainditzea asko inporta zait.”*

- *“Bale. Agur orduan.”*



Eta eskegi egin zuen. Orain bai. Ikasten jarri nintzen. Orduak pasa ziren eta ikasten jarraitzen nuen. Gaueko ordu bata zen ama nire logelara sartu zenean.

- *“Oraindik ikasten? Ez al dakizu zer ordu den?”*

- *“Ba....”*

- *“Ohera oraintxe bertan! Biharko frogarako goizean ikasiko duzu gehiago behar baduzu, baina orain ohera.”*

- *“Gabon, ama.”*

- *“Bai, bihar arte.”*

Iratzargailuak jo zuenean oso gustura nengoen ohean. Mateko froga ahaztuta nuenez, amatatu egin nuen eta berriz ere lo geratu nintzen.

- *“Esnatu!!! Berandu iritsiko zara eskolara!!!”*

Begiak ireki nituenean nire ama ikusi nuen ni esnatu nahian. Ordua ikusi nuenean, korrika ohetik altxatu eta jantzi egin nintzen. Ez zidan gosaltzeko astirik eman baina amak jolasaldirako txokolatezko ogitarteko goxo bat prestatu zidan.

Eskolara heldu nintzenean oraindik erdi lo nengoen. Amaia hurbildu zitzaidan eta esan zidan:

- *“Zelan? Espero dut zuk mateko froga gainditzea...”*

- *“Zer? Mateko froga!!!! Guztiz ahanztuta neukan!!!! Zelako zorte txarra. Eskerrak arratsaldean dugun eta oraindik birpasatzeko denbora ematen didan.”*

Momentu horretan mateko andereñoa sartu zen gure gelara. Ezin nuen sinetsi. Buruan neukana ezin zen egia izan. Andereñoa bere mahaira hurbildu, eta zera esan zuen:

- *“Gaur euskarako andereñoa ezin izan da etorri. Horregatik gaur bere orduan ni egongo naiz zuek zaintzeko. Eta gainera, zorte ona duzue. Ez dizuet froga orain jarriko. Euskarako andereñoak lanak utzi dizkizue ordu honetan egiteko. Amaitzen dituenak niri esan diezadala, lan gehiago jarriko dizkiot-eta”.*

Eta horrela igaro genuen ordua. Euskarako lanak egin eta egin. Ia klase osoa isilik zegoenean, txirrinak jo zuen. Andereñoa klasetik irten eta jarraian denak hazi ginen hitz egiten. Bakoitza bere lekutik altxatu zen bere lagunekin elkartzeko eta gauzetaz hitz egiteko. Ni, eserita nengoen bakarra nintzen. Mate birpasatzen nengoen. Beldur nintzen. Froga nolakoa izango zen jakiteko jakin min handia nuen. Gaia ondo nekien baina formula asko zeuden eta oso zaila zen horiek ondo aplikatzea. Etxean egin nituen ia ariketa guztiak ondo nituen eta horrek segurtasuna ematen zidan. Uste dut inoiz ez nuela gai horretan ikasi nuen beste ikasi baina hori normala da: gero eta handiagoa izan orduan eta zailagoa da dena. Pozik nengoen nekienarekin eta ezin nuen esan ikasi ez nuenik. Froga oso zaila ez izatea zen falta zen bakarra.

Frogako ordua heldu zen. Denak geunden oso urduri baina ni inor baino urduriago nengoen. Bat-batean, dena ahaztu zitzaidala iruditu zitzaidan. Inoiz ez dut momentu hura ahaztuko.

Andereñoa atetik sartu zen inoiz baino serioago. Frogak mahai gainean utzi zituen. Denak geunden isilik, berak egiten edo esaten zuenaren zain. Momentu hura kamera geldoan igaro zela iruditu zitzaidan. Frogak hartu eta banatu egin genituen. Nire froga eskuetara iritsi zitzaidanean eta nolakoa zen ikustean, ezusteko itzela hartu nuen. Hori ez zen nik ikasitako gaia!!!!

Orduan, bai pentsatu nuela ezin izango nuela inoiz matematika gainditu. Ikasgai hori ez zegoen niretzat egina. Ez nuen ezer ulertzen. Ezin zen txantxa bat izan. Beno, gutxienez saiatu egingo nintzen. Galderak mila aldiz irakurri nituen baina ezinezkoa zen. Hori ez zen nik ikasitakoa eta ez zegoen ezer egiterik.

Ordua bukatu zen eta ez nekien zer egin. Negar egiteko gogo izugarria nuen. Gehien ikasi nuen gaia eta zero bat izango nuen. Halako batean, Amaia hurbildu zitzaidan.

- *“Zer gertatzen zaizu? Ez al duzu azterketa ondo egin?”*

- *“Ez.”*

Momentu horretan bakarrik egoteko gogoia nuen.

- *“Baina atzo esan zenidan ikasten zenbiltzala. Zer gertatu zaizu? Jakin al daiteke?”*

Eta dena kontatu nion hasieratik amaierara. Bera, oso adi zegoen niri entzuten. Horregatik zen Amaia nire lagunik onena. Beti entzuten zidan, gauza aspergarrietan nahiz dibertigarrietan. Beti zegoen hor, entzuteko prest. Bukatu nuenean, ulertzen zidala adierazteko moduan, besarkada handi bat eman zidan. Eta egia zen, oso ondo ulertzen zidan. Duela bi urte arte, klaseko neskarik argiena zen ikasgai guztietan. Beti ateratzen zituen hamarrak, baina zoritxarrez, egun batean froga zegoela ahantzi zitzaion. Pozik zihoan eskolara, froga zegoela konturatu zen arte. Froga horretan, ez zuen besteetan bezain nota ona atera baina gainditu egin zuen. Hori izan zen lehenengoa. Hau aprobetxatuz, bere gurasoek nota txarregatik ezer ez ziotela esaten kontuan izanda, nahita “ahantzten” zuen froga zeukala. Denbora joan denbora etorri, horrela jarraitzen du. Ezer ikasi gabe. Baina, noski, orain bere gurasoek errieta egiten diote. Nik hasieran ere esaten nion gehiago ikasteko baina kasurik egiten ez zidala konturatzean, aspertu eta utzi egin nuen.

Amaiak, begietara begiratu, eta zera esan zidan:

- *“Ziur naiz ez duzula hain gaizki egin.”*

- *“Ez, ba.”*

Esan nion.

- *"Ikasi dudan gaiaren formula guztiak idatzi ditut frogan eta horrek ez du ezertarako balio izango!!!"*

- *"Eta ez al dakizu zein gai ikasi duzun? Hau mateko azken froga izan da. Zein ikasi duzu zuk orduan?"*

- *"Ba... egia esan, ez nago ziur...arraroa benetan..."*

- *"Ez duzu gogoan?"*

- *"Hemen daukat liburua."*

Liburua atera nuenean... orduan bai bota genituela barreak. Nire ahizpa handiaren mateko liburua zen!!! Nire ahizpak hamazazpi urte zituen eta herriko institutuan zebilen. Oso ahanzkorra zen. Ziur nire mateko liburua berak eraman zuela institutura eta nik berearekin ikasi nuela.

Barre eta barre geundenean mateko andereñoa sartu zen harridura aurpegiarekin. Bere mahaira hurbildu eta nire izena esan zuen. Beldurtuta nengoen esango zidanaren zain.

- *"Zer da hau?" - galdetu zidan -.*

- *"Nire errakuntza bat izan da. Nire ahizparen liburuko azken gaia ikasi dut."*

Eta orduan, nire harridurarako, bera ere barreka hasi zen. Bere barrea oso itsaskorra zenez, klase guztia ere barreka hasi zen. Eta horrela bukatu zen dena. Andereñoak inoiz ez zidan eman azterketa horren emaitza baina ziur nengoen gaitasuna nuela.



Eneko Lazaga
DBH 3. maila
“Jakin-minaren nahia”

AMAREN SEKRETUA

Goizean kolore desberdinetako galtzerdiak janztea erabaki dut, morea eta horia. Gosaltzean ikusi dizkit amak. Ez dit ezer esan, baina bekokia zimurto du. Nahikoa izan da ulertzeko. Nire gelako Peruk ere horrela eramaten dituela esan diot, baina alferrik izan da: zimurrek bekokian jarraitu dute.

- *Aldatu galtzerdi horiek!* -esan dit, esne katiluari azken zurrutada eman diodanean-.

Gaur aitona-amonen etxera joango naiz lo egitera. Gurasoak Iparraldeko landetxe batera doaz, koadrilako lagunekin. Asteburu guztia pasatuko dute bertan. Hasiera batean tentatuta egon nintzen beraiekin joateko, baina ondo pentsatuta, hobe aitona-amonen etxean geratu. Etxean uzten ez didaten guztia egiten dut beraiekin. Aukera aprobe txatu beharra dago .

- *Ea, aldatu azkar galtzerdiak!* -amak praka barrenak jaso dizkit ondo ikusteko-.

Ondoren, irribarre egin, besarkatu eta musu handi bat eman dit.

- *Ondo portatu aitona-amonekin!*

Ikastolatik irtetean, Unai eta Aitorrekin egin dut aitona-amonen etxerako bidea. Auzo berean bizi dira, eta lagundu egingo nautela esan didate.

Neure logela dut aitona-amonen etxean, amarena izandakoa. Ama, alaba bakarra da eta ni iloba bakarra. Gustura joaten naiz haiengana, eta pozik hartzen naute. Askaria jan ostean ikastolako lanak egin ditut; asteburua libre nahi dudalako.

Aitona ez dut oraindik ikusi. Basora joan omen da gaztaina bila. Amona, berriz, telebista aurrean dago, amantalaren zuloak josten .

- *Ez dago ezer* - esan dit -, *txolin kontuak, besterik ez.*

Telebista mandoa hartu eta kate guztiak ikertu ditut. Marrazki bizidunak utzi ditut.

- *Benetan, ba, ez dago ezer*, - esan eta altxatu egin da -. *Ea aitonak gaztainak ekartzen dituen basotik.*

Aspertu egin naiz marrazki bizidunak ikusten, aspergarri samarrak dira ordu honetakoak.

- *Amona!*- deitu diot egongelatik - *gelara noa maletako gauzak ateratzera.*

- *Nahi al duzu laguntzea?*

- *Ez, amona, biztuta utzi dizut telebista. Zuri gustatzen zaizun programa hastera doa.*

Berriak, eguraldia eta txolin kontuak gustatzen zaizkio nire amonari. Eta lorik ezin eginda ibiltzen denean, naturako dokumentalak ikusten omen ditu gabeko orduetan.

Oporretako maleta handia jarri didate gurasoek "badaezpada". Betiko geratu behar banu ere!

Etortzen naizenetan, logelako armairu erdia okupatzen dut. Apalak eta tiraderak begiratzen ditut lehenengo. Mila aldiz miatu ditut ezkutuko zerbait topatu nahian, egunen batean amaren sekreturen bat topatuko dudalakoan. Alferrik izaten da, ordea; ezkondu zenean gure etxera eraman zituen oroigarriak.

- *Amona! Oliba beltzek hankak dituzte?* - Galdetu diot , ozen, entzuteko moduan.

- *Olibek? Zoratzen hasi al zara?* - erantzun dit, harridura ahotsez.

- *Orduan, gelako sabaian aramu handi bat dago.*

Neguko jaka eta gabardinaren alboan utzi ditut jantziak. Hiru praka pare, hiru niki, hiru galtzontzilo pare, hiru kamiseta eta hiru galtzerdi pare. Amak hirunaka jarri dizkit ia gauza guztiak "badaezpada ere".

Metalezko gailera-kaxa zahar bat ikusi dut aitonaren jakaren atzean, ezkutuan bezala. Besteetan han ez da horrelakorik egoten. Kili-kilia sentitu dut urdailean tapa kentzean. Bi argazki topatu ditut zuri-beltzean. Batean gizon ezezagun bat ageri da, besoetan haur txiki bat duela; kaiola bat du alboan eta barruan animalia bat. Bigarren argazkiari begiratu diot orduan: kirikino bat da eta sagar bat darama arantzetan. Argazkiko gizon argalak ez du etxeko inoren itxurarik. Mesanotxeko argia piztu eta gertuagotik begiratu diot. Amonari galdetu diot.

Sarrerako atearen hotsa entzun dut. Aitona heldu da. Argazkiak utzi eta korrikan irten naiz, deika. Besoak zabalik hartu nau, eta musuz jan nauenean bere bizarrak aurpegia zulatu dit, musuak argazkiko kirikinoak eman balizkit bezala.

Bi zakuto dauzka lurrean utzita. Mahai gainera altxatu, eta bat ireki du.
- *Hara! Kirikinoaren arrautzak!* -esan dut ozen.

Harrituta begiratu nau aitonak. Amona, berriz, barrezka hasi da nire ateraldiarekin. Nik badakit gaztaina-morkotsak bereizten, eta badakit kirikinoek ez dutela arrautzarik jartzen.

- *Lurra umela zegoen eta etxean jateko ekarri ditut batzuk, afaltzeko haina.*
- *Labean erreko ditugu?* - galdetu dut, gaztaina-usaina irudikatuz-.

Bat-batean, izutu egin naiz. Bigarren zakutoa mugitzen hasi da. Amonak ere atzeraka egin du.

- *Zaurituta topatu dut. Sendatzen denean basora eramango dut berriro-* esan du aitonak-.

Zakutoa ireki, eskua sartu eta kirikino txiki bat atera du. Bihotza danbadaka hasi zait. Argazkiko kirikinoa dirudi. Elkarri begiratu diote aiton- amonek, eta gero niri.

- *Asko maite ditugu kirikinoak-* esan du amonak-. *Behin gertatutako istorio bat da. Egunen batean jakingo duzu.*
- *Ba, amak ere portzelanazko kirikino bat du bere gelan.*

Sukaldeko zoruan utzi du. Mugitu gabe egon da denbora batean pilota baten antzera borobilduta, arantzak babesgarri dituela. Halako batean, muturra atera eta oinez hasi da baldosen gainean. Geldiune bat egin du, herrenka balebil bezala. Oztopoa ipini diot aurrean eta orduan burua ezkutatu eta pilota baten itxura hartu du berriro.

Aitonak kirikinoari buelta ematean ikusi diot zauria. Odoletan du oin bat.
- *Arantza bat sartu zaio koitaduari.*

Bekainetako ileak kentzeko erabiltzen diren pintzekin atera dio. Ez da mugitu, mutur beltzak ez du zirkinik egin. Ondoren, ondo garbitu dio zauria.

Palangana handi bat urez bete eta bertan sartu du. Ezusteko handia izan da igeri egiten ikusi dudanean. Non ikasi ote du?

- *Kirikinoak azkarrak dira. Sagastian ere sagar ederrenak aukeratzen dituzte.*

Nire burura amonaren hitzak bueltatu dira jakin-gose: *“Egunen batean jakingo duzu.”*. Zer jakin behar dut? Gelara joan eta sukaldera ekarri ditut argazkiak.

- *Kaiolako honen itxura du- esan diet biei, argazkiak eskainiz-*
- *Nondik atera dituzu? - galdetu dit amonak, apur bat aztoratuta-*
- *Armarioan aurkitu ditut.*
- *Erramun! Nori bururutzen zaio kaxa han uztea! - egin dio errieta-itxura aitonari-*
- *Egunen batean jakin beharko du - erantzun dio, kirikinoari begirik kendu gabe-*

Isiltasuna egon da une batez. Zapata-kaxa batean sartu du kirikinoa aitonak.

- *Zein izen ipiniko diogu?*
- *Triku- esan dut arin, inork baino lehenago.*



Gero, egunkari orrien gainean zabaldu ditu gaztaina-morkotsak, lurrean. Oinekin zapaldu eta aleak ateratzen hasi gara. Keinu egin dio amonari.

- *Hezeegi ez badaude, jarri ale batzuk afaltzeko. Gure Mikel irrikan dago probatzeko- esan du amonak, eta egongelara eraman nau, eskuan argazkiak dituela-. Istorio polit bat entzun nahi?*

Sorbaldak jaso ditut, aitona-amonek sekreturen bat gordetzen dutelakoan. Berehala igarri diot: urduri baina pozik dago amona.

- *Orain urte asko, herriz herri ibiltzen ziren titiriteroak. Magia egiten zuten batzuek; burdin harian ibiltzen ziren beste batzuk; tximudunak ere etorri ohi ziren inoiz, baita ahuntza dantzan jartzen zuten ijitoak ere. Baina, behin, kirikino-hezitzaile bat agertu zen auzoan. Sekula halakorik! Hain bitxia irudituta, argazkiak atera zizkion anaia batek. Hauexek dituzu.*
- *Eta zer egiten zuen kirikinoarekin?*
- *Hainbat gauza! Mahai batean bost sagar jartzen zituen, lau berde eta gorri bat. Mahaiaren ertz batean uzten zuen kirikinoa gero, eta tronpeta jotzen zuen bitartean, kirikinoak sagar gorria bilatu, zilipurdika egin, sagarra zulatu eta kaxarantz itzultzen zen bizkarrean sagar gorria zuela. Amaieran, gizonak*

txapela pasatzen zuen jende artean, umea besoetan zuela, erruki izan gintezen.

- *Eta zergatik zebilen haurrarekin?- galdetu diot argazkira hurbilduta-*
- *Alargundu berria omen zen auzora heldu zenean. Haur bat ekarri zuen berarekin, eta saioa egin bitartean, automobiltxo batean edukitzen zuen. Bi egun eman zituen auzoan, elizpean lo eginez.*

Isilik geratu da amona, aurrera nola jarraitu pentsatuz balebil bezala. Argazkiari begiratu dio ondoren, eta begi bustiak ikusi dizkiodanean irribarre egin dit.

- *Zer gertatu zitzaion, amona?*
- *Bigarren egunean umea ez zen isildu gau osoan. Elizpetik zetozen negar-zotinak entzun genituen. Goizean, lehen meza ematera zihoan Martin apaizak topatu zuen titiriteroa hilda, bihotzekoak jota.*
- *Eta zer gertatu zen umearekin? - galdetu diot, jakin-minez urduritzen hasita-*
- *Aitona eta biok ezin genuen umerik izan, eta hainbestetan amets egindakoa etorri zitzaigun nahi gabe. Paper asko egin behar izan genituen, eta guk jaso genuen etxean bakarrik geratutako haur hura. Horregatik ez daukazu osaba-izekorik etxe honetan, ez guk nahi izan ez genuelako, halabeharrez baizik.*

Isilik egon naiz denbora luzez, sekulako istorio tristeena, eta aldi berean, alaiena, neure buruari behin eta berriz errepikatuz. Kosta egin zait sinestea, baina amonaren aurpegiak ez dio gezurrik.

- *Eta kirikinoa?*
- *Aitonak eraman zuen sagastira. Auskalo zer egin zuen gero!. Agian, haren ondorengoa izango da Triku ere.*

Korapiloa nabaritu dut eztarrian. Azkenean jolasa egia bihurtu da: benetako sekretua topatu dut armairuan.

- *Zergatik ez dit amak ezer esan?*
- *Une egokiaren zain zegoen.*
- *Horregatik al du portzelanazko kirikinoa bere gelan?*

Amona altxatu eta sukaldera joan da. Bakarrik geratu naiz argazkiarekin eskuetan. Hirugarren aitonari begiratu diot, titiriteroari, kirikino hezitzaileari. Orba bat du masailean, nik bezala.

Afaltzen egon garen bitartean aitonari esan diot hurrengo egunean sagar gorriak aukeratzen irakatsi behar diogula Trikuri.

- *Aitona , zuk badakizu, hain animalia txikiak izanda nola egin zituzten triku-harriak?*
- *Zer? Triku-harriak? Barrezka hasi da nire ateraldiarekin.*

Makurtuta nagoela, barre egin dut neure baitan, goizean jantzi ditudan galtzerdien koloreaz gogoratu naizenean.



Sirats Barandiaran Mandaluniz
DBH 3. maila

“Iluntasunaren leihoak irekitzeko ahaleginetan, isiltasunaren kantuan murgiltzen goaz...”

AMODIO MARRAZTUA

Maitasunean itsuak gara. Bakarrik gaude, bere irudiarekin jolasean, gutaz ahazten. Mundua bere inguruan biraka dabil. Denbora gabeko bide berri bat. Bat eta bakarra, ez dago ezer gehiago, bera.



Ez dugu ezer gehiago behar, ez gaude ezer gehiago sentitzeko esperoan, ezer gehiago maitatzeko ametsetan, ezer gehiago ikusteko nahian, ezer gehiago nahi izateko kalkuluetan. Ez dugu ezer ulertzen. Ez dugu ezer gehiago behar. Oraina bizi, eta daukaguna gogor eutsi. Ez dagoelako hori ezabatuko duen beste teklarik.

Bat-batean mundua desagertzen da. Ni eta zu bakarrik gaude zulo beltz honetan. Euripean, elurpean, ur azpian, lurretik metrora, etxetik beste bi milioi km-tara edo etxeko besaulkian jolasean gaudela. Berdin dio.

Denbora aurrerantz doa eta tarte gutxiko istorio honen ostean, isilune luze bat dator. Maitasun istorio bat, bide bat, mundu bat. Eta distantzia dator. Bizi duguna ahazten eta gure ametsetan murgiltzen goaz.

Kartzela batean, preso, gure oroitzapenekin jolasean, zer gertatuko zenaren bila, atzera bueltan goaz.

“Abuztuak 5 bat zen. Eguerdi lasai bat. Ez naiz oso ondo gogoratzen belarrean etzanda, lo hartzeko ahaleginetan, kartetara jolasten, musika entzuten, edo hitz egiten geunden, baina bat-batean gure inguruko mugikor batek jo zuen. Jada edonork entzuten

duen musika internazional horietako bat. Iratiri aurpegia erabat aldatu zitzaion, eta zutitu bezain pronto beste edozein mundutako indar ezezagun batek erakarriko zuen modura, arku azpirantz korrika hasi zen. Harrituta, edonori galdezka hasi nintzen, baina ingurua erabat zuri geratu zen. Denak arkurantz begira. Inork ez zuen niretzat erantzunik. Buelta erdi eman, eta kartak berriro banatzen hasi nintzen. Oihu bat entzun, eta harrituta, berriz galdezka hasi nintzen, baina lehengo globo zuri bera. Telebistan, lelo talde bat ikusten egongo banintz bezala, eskuinerantz begira. Eta han agertu zen guregana.

Bere izena nekien, nondik zetorren, adina, bere historia eta etiketa guztiak jarrita zeuzkan jada. Baina, nor zen? Hor neramatzan zazpi egunetan, Iratik, egunero, orduro eta momenturo pertsona berdin bategatik baino ez zidan hitz egiten. Ikustean, hura zela jakin nuen. Argi geratu zitzaidan, Iratiren begien distirarekin batera.

Guregana hurbildu, eta besterik gabe, nik banatutako kartekin jolasten hasi ginen.

Partida aurrerantz zihoala tentsioa handiagotzen zihoan. Begirada baten beroa nabaritu eta dardara batek nire gorputza hoztu zuen. Begi haiek... Gero eta urduriago, nire burua nahasten ahalegintzen nintzen, gogor plantekin jolasean, ez nuen begirada hark urduri jartzen ninduela sinestera heldu nahi.

Gauean, Irati, bere lehengusina eta lagun batekin afaltzera zihoan. Ate aurrera heldu orduko deituko zidala esan, eta hala egin zuen. Bederatziak edo bederatziak eta erdiak aldera, ate joka etorri zitzaizkidan. Lorategitik irten bezain pronto, bankuan geunden. Han, bospasei bat pertsona geneuzkan itxaroten. Bera, bankuko izkina batean eserita, ia etzanda. Irati eta Marta aurretik zihoazen. Etxetik irten berria nintzenez, gauzak poltsan sartzen nenbilen, eta atzean geratu nintzen. Estresatzen hasia nintzen, gainean nituen hainbeste gauzeekin. Burua altxatu, eta begirada sakonera bota nuen. Jakin minez begiratu eta gure begiradak gurutzatzean ate hura zabaldu genuela ohartu nintzen. Hor. Giltza aurkitu genuela izan zitekeen, edo besterik gabe gure bideak behin betirako gurutzatu zirela. Inoiz ez dut helmuga jakin batera heltzearen teoria hori sinetsi, edo bi bidek topo egin behar zutelako, bide bakar batean amaitzearen sinesmenekin jolastu.

Hortik aurrera dena aldatu zen. Dakartzan ondorio guztiekin, dakarren sufrimendu hutsarekin eta dakarren zorion infinitu honekin.

Bere begiak nire begietan finkatu zituen. Momentu hori ez da ahaztekoa, bi urte geroago, hemen nagoelako oraindik, gogoan izango dudan momentu horietako bat kontatzen.

Denok geundenez, herrirantz abiatu ginen. Ohiko moduan lehenik Aleinerantz gindoazen, zerbait jan, eta herriko taberna eta txoko guztiak zapaltzera, baina bi bide gurutzatuko ziren ...

Urbanizaziotik irten, eta gure betiko lasterbidea hartu genuen. Bide eta lasterbide guztiak buruz genezikien, esploratze lanen bat eginda geneukan eta.

Hondartzara heldu, eta Resakatik pasatu ginen zerbait hartzera. Nik komunera joateko aprobe txatu nuen. Eskuinean jatetxe-taberna bezalako bat zegoen, eta horren gainean, komunak. Behean utzi nituen denak, bakoitza bere edalontziarekin pozik.

Bueltatzean, eskaileretatik beherantz abiatzerakoan, aurrera begiratu eta bera bakarrik. Eskuak poltsikoan sartuta, urduri bezala, hankak alde batetik bestera mugituz. Behera heltzen nindoala, giltzak poltsikotik atera eta beraiekin jolasean hasi zen. Bere aurrean jarri, eskua hartu, eta beste eskuaz hitzik ez egiteko keinua egin zidan, bere atzaparrak nire ezpainak laztanduz. Isilik, beraren pausuei segika hasi nintzen. Bere hanken erritmora nindoan. Nire eskua berak zeraman arren, erabat galduta nenbilen. Hondartzarantz zihoan, gindoazen. Olatuen hotsa entzun nezakeen. Kantu hura.

Bat-batean, gainean hartu eta bira erdi eman genuen. Begiak ixteko agindu, eskuekin ondo eutsi eta korrika hasi zen. Itsaso horretarantz gindoazen. Momentu horretan ez genuen arroparik, zapatarik, barrukorik sentitzen. Bere eskuak nire gorputza laztantzen, besterik ez. Muxu goxo batekin hasi zen dena. Muxu bat, lau hanka, bi aldaka, gainerako bi aparatu, lau esku, bi buru ... Masa horren barruan geundela, besoetan hartu, eta gure aldakak lagun egin ziren. Bere ezpainak nireak harrapatzen, olagarro bi ginen. Bata besteari itsatsita. Sudurrak bateratu, eta muxu luze batean lo hartu genuen.

Bustita geunden. Ur tantek gure gorputza garraiobidetzat zerabilten. Arnasa sakon hartu, begiak itxi, eta, aldaka goiko gorpu zatia atzera bota. Beste behin berarekin jolasean. Biok jolasean. Nire besoak bere lepoan kiribilduta, bere gainean, nahi genuena egiten, ur guzti horren erdian elkar maitatzen, bere presentziaz gozatzen, mugimendu hutsez hitz egiten, momentua tentsioan biziz eta pasioa oinarritzat.

Mundua desagertu zitzaigun, zen.

Marea mugikor horren erdian, planeta erdian, unibertso erdian, edozein existentziaren erdian, korapilo bat bakarrik aurkitzen zen. Ezer.

Gaua han pasatu genuen, bata bestearen gainean.

Goizean, izartzean, lo zegoen. Aurreko eguneko momentu bakoitza buruan bueltaka zebilen. Edozein liburuko orriak pasatzen ibiliko banintz bezala. Bata bestearen atzetik, segidan, arnasik hartu gabe. Burua argitzeko esperantzekin, uretarantz abiatu nintzen. Nire oinetan ura sentitzean, atzera begiratu, eta lurrean ikustean, malko batek bere lekutik ihes egin zuen.

Orain, bi urte geroago, dena gogoratzean, ur gabe geratzen naiz. Malko bakoitzean, une, segundo, minutu, egun, urte, irudi, kolore, bero, dardara, muxu, sentimendu, mugimendu, isiltasun, tenperatura, hotz, tentsio, presio, irribarre, pauso, hitz, keinu, taupada, izerdi tanta, kilometro bakoitza doa. Bizi ezinean, ahaleginetan, atzera begiratzean, lekuz kanpo sentitu, eta nire burua martxan jartzen da.

Barruan gordeta daukadan sentimendu multzoa hor dago, ezeren esperoan. Barruan daukadan su honek erreta, isiltasunaren malkoarekin jolasean. Gora-behera hutsa, aldapa, izerdi, egonezina.

Bartzelonara bueltatzeko eguna heltzear zegoen. Gauzak batzen hasiak ziren jada. Aurreko egunean denari ihes egin nahian, portura jaitsi ginen. Gertatuko zenaren inguruan bueltaka, estantzia hau izan zenaren inguruan eztabaidan, momentu ederrenak gogoratzen, azken hitz goxoenak elkarri xuxurlatzen, promesa lelo haiek elkarri egiten, gure nahiak oihukatzen ...

Harri gainera altxatu ninduen. Gogoan ditut oraindik bere hitzak: “*Beti itxarongo zaitut*”.

Hitz haiek gogoratuz, beti hemen izango ninduzula zin egin, eta hemen nago. Esan bezala, aldatu gabe. Bakarra izango zela esan nizun. Momentu bat ez dudala ahaztuko.

Ikustean zoro bihurtzen garela jakinik, burua galtzen hasi, eta iluntasunaren sakonean, argi izpi horrekin topo egitean, eskua hartu, eta bukatu dela onartu. Itxaroten zauden leku horretako hesia bota, pausuz pausu nigana hurbildu, eta bide hau suntsitu. Begiratu, eta zure presentzia sentiarazten lagundu.

Orain, gaueko hotza igaro ondoren, itsaso honen aurrean jarri, eta sakonean, gure arnasen hotzak gorputza laztanduz, lo hartzera noa. Gure irudien artean preso, ihes egin nahian.

Joan zinen eta bueltatzearen itxaropenetan urtzen hasia naiz.

Eta Iraila berriz.



Ainhoa Zarrabeitia Zabala

DBH 3. maila

“Batzuetan ametsak egia bihurtzen dira”

GABON GIROA

Gabonak heldu dira eta mundu guztia ilusioz dago. Hiri handiak, eta baita herriak, euren aurpegi dotoreena erakusten saiatzen dira. Koloreetako argi distiratsuek ipurtargi elektrikoak dirudite. Balkoietan zintzilik Olentzeroren panpina potolo bat, igo ezinik da balkoietako hesietatik gora. Batzuetan horren handia da panpina, ezen lapur baten itxura hartzen baitu. Horregatik, sarritan neure buruari galdetzen diot etxe horretako umeak ez ote diren beldur izango leihotik gora doakien pertsonai hori ikusita.

Udaletxe askotako aurreko plazan zuhaitz erraldoiak, bolaz eta zilar koloreko girlandaz josita. Alboan, benetako tamaina duten pertsonaiez osatutako jaiotzak. Honelakoetan ezin izaten diot gehiago egin artzainaren alboan egoten diren ardi zuri samurrak ukitzeko gogoari; horren aurpegitxo polita dute! Erdi-erdian, Ama Birjina gozo-gozo begira bere semetxo jaio berriari. San Jose ia beti zutik, umeari begira. Baina beste herri batzuetan, jaiotza ez da hain benetakoa izaten eta mahai luzanga batetan sartzen dira pertsonaiak. Errekatxo bat, herria, errementariaren etxea, jostunarena, artzainak, artaldea eta haritxo bat ur darion iturritxo polita ere. Mota honetako jaiotzak ere oso gogoko ditut eta inork begiratzen ez duenean, atzamarrekin ukitzen dut iturriko ura.

Baina, apaingarriak alde batera utzita, Gabonek beste hainbat ekarpen eskaintzen digute urte amaieran. Jende arteko harremanak, garai honetan baketsuagoak izaten dira. Agian, izan daiteke egoten den gaztaina erre usainagatik, edo jendeak beste ilusio batekin jokatzen duelako egun hauetan.

Benetan, ez dakit zein izango den arrazoa, baina guztiok sentitzen gara hobeto. Altxatzen zarenean eta zure gelako leihotik aurreko etxeetako teilatuak elurrez estalita ikusten dituzunean, sentsazio desberdina izaten da. Ez da bakarrik poza izaten; gustura sentitzen zara, elurraren zurtasunak lasaitu egingo bazintu bezala. Beharbada, mundu guztiari gertatzen zaio berdin.

Gabonak magikoak direla ez dago inolako zalantzarik eta urte honetakoak horrelakoxeak izango dira niretzako. Mungia aldean lehengusuak ditut eta gonbidatu egin gaituzte beraien etxera joateko. Txiki-txikia nintzenetik joan barik nagoenez, ez dut gogoratzen nolakoa den etxea, ezta ingurua ere.

Heldu gara etxe izugarri horretara. Basoaren erdian kokatuta dago, hotz handia dago. Mota guztietako fruta-zuhaitzak dituzte landatuta. Arratsaldeko seiak aldera eguzkia ezkututzen ari den bezala, guk ere ezkutaketara jolastea pentsatu dugu. Urdin argiz margoturiko zeruaren kolorea aldatzen ari da. Gero eta ilunago dago zero-sabaia .

Jolasean hasi gara eta ni begiak itxita ditudala, hogeira arte zenbatzen hasi naiz besteak desagertu bitartean. Hogeia esandakoan, begiak ireki eta une batez guztia geldi dagoela iruditua zait. Astiro, basorantz zuzendu ditut nire lehenengo pausoak, bertan egongo direlakoan. Pausu bakoitzeko mila soinu desberdin entzun daitezke: hosto lehorrenak, adartxoak, barraskiloren bat ere uste dut zapaldu dudala... Baina, inondik inora ez dut aurkitzen nire lehengusuen arrastorik.

Berriz ere, lehen entzundako zaratak bueltatu dira, baina oraingo honetan ez ditut nik sortu. Beraz, adi-adi jarri naiz soinu guztiak bereizteko eta nondik datozen susmatzeko, pentsatuz ezkutaturik daudenak direla hots horien sortzaile. Zurrumurru hura nire gidari dela, korrika hasi naiz berari segika. Pixka bat beldurturik nago, dena nahiko ilun dagoelako eta ez dudalako ingurua ezagutzen. Gainera, egia esan, ez naiz oso ona ezkutaketara jolasten.

Korrika jarraitu dut nire lehengusuak noiz aurkituko desiratuz. Une batez gelditu egin naiz, nire oinek ezin dutelako gehiago eta ziztu bizian datorren norbaiten arnas estua entzun dut. Gero eta hurbilago dago. Beldurraren beldurrez negarrez nago eta ez dut atzera begiratzeko energiarik ere. Bat-batean, gainera etorri zait norbait, zerbait..., eta biok lurrera erori gara, hosto multzo bigunaren gainean. Begiak ireki eta ez da inoren arrasto txikirik ere. Ziurtatzeko, oraindik gehiago ireki ditut begiak, baina ezer ere ez. Orain, ordea, beste mundu batean nagoela dirudi.

Zerua lainoz beterik dago eta, zuriz jantzitako aingeru txiki batzuk jaisten ari dira; lurrean ez dago historik, ez adartxorik, ezta barraskilorik ere. Dena elurrez beteta dago. Hotza nire gorputzaren jabe egin da. Nire hezurak izozten ari dira.

Neure buruari hainbat galdera egiten dizkiot. Zerk edo nork bultzatu nau ezkutaketara jolasten gaudela? Nola heldu naiz hona? Non nago? Eta, garrantzitsuena, zoratzen hasia al nago? Galdera hauei guztiei erantzuna aurkitzeko asmoz aurrera jarraitzea erabaki dut. Pausoak ematean, oraingoan ez da hotsik sortzen. Pausuak ematean, elurrak nire oinen azpian egiten duen karraska entzuten da eta elurretan hondoratzen naiz. Nitaz aparte ez da inondik ere izakirik ageri. Den-dena estaldu dute elurrak eta izotzak. Zuhaitz handi, hil eta biluzien ilara luzeak daude, labirinto bat da.

Ordu batzuk igaro dira eta urrunean nire begi itxi eta izoztuek fenomeno oso bitxia ikusi dute. Zuhaitz ilara bateko arbola bat hostoz eta frutaz betea dago eta bere inguruan ez dago elurrik. Laster batean harantz noa. Ikusten dudana egiaztatu behar dut. Baina, ez dakit zer den hobe, egia izatea ala haluzinazio hutsa izatea; egia balitz oraindik gehiago beldurtuko nintzateke, liluramendu horren aurrean. Haluzinazioa balitz, zoraturik nagoela frogatuko nuke.

Hori pentsatu ostean, pauso lasaiagoak ematen hasi naiz, zer azalduko zaidanaren beldur. Zuhaitzaren aurrealdera heldu eta aho zabalik geratu naiz. Azkenean, ikusitakoa benetakoa da!

Alde batetik, esan bezala, beldurturik nago, baina bestalde, asko poztu naiz horrela izateaz. Giro beroa dugu, zuhaitza frutaz betea dago eta izakirik izan ez arren, bere inguruan animalia asko daude. Zuhaitzaren ostean, laku handi eta sakon bat dago. Dena da hain ederra! Jadanik ez naiz beldur, toki honetan salbu sentitzen naiz.

Sagar gorri eta eder bat hartu eta poltsikoan gorde ostean, lakura hurbildu naiz, egarria asetzeko. Konturatu orduko, lakuaren hondoan aurkitu naiz. Nik ez dakit igeri egiten, baina nire birikietan geratzen zaidan aireak lagundu dit eta oihurik indartsuena bota dut.

Bat-batean, konturatu naiz ohean nagoela, busti-bustita. Nire logelako leihotik begira nago, elurra ari du... guztia ametsa izan da. "Baina, zer da hau?" galdetzen diot neure buruari. Eskua poltsikoan sartu eta sagar gorri eder bat agertu da.





Nile Petralanda Undabarrena
DBH 4. maila
“Bihar ere argituko du egunak”

DESAMODIOAREN OSTEKO AMODIORIK ZIRRARAGARRIENA



Pipipipipi..... pipipipipi.....pipipiiiiiiii.....

Ikara ederra hartu nuen goizeko 8:00etan eskumuturrean neukan iratzargailuak itzartu ninduenean. Bakar-bakarrik nengoen, ez nekien non. Burua, geografiako irakaslearekin hainbestetan ikertutako munduaren bolaren inguruan biraka balebil bezala neukan.

Logelaren albo batera aurkitu nuen ispilu zaharkiturantz biratu nuen aurpegia, eta bertan ikusi nuena ez zitzaidan batere gustatu: ximurrez beterik, begiak lainotuta, begipeak handituta, eta betileak itsatsita, batzuk besteekin adiskidetu ezinik.



Ez nuen espero ez, hura nire bizitzako egunik zoragarriena izaterik!

Eta, harrigarria! Arteragoko gauean nirekin parrandan ibilitakoen arrastorik ez!

Ohetik salto egin, eta logelako leiho erraldoia zabaldu nuen, itotasun hartatik aterako ninduen aire freskoa bilatu nahian edo, barne-barnean neukan tristurari, atsekabeari, nekeari gehiago egin nahian.

Zerua oskarbi.

Aurrez aurre, eguzki borobila, hori-hori distiratsua, adi-adi nire begietara so.

Zer so ezia!

Atzealdean, ilargi ziztrinaren azken adioa, gauaren iluntasunaren oroigarri.

Eguraldia ez ezik, paraje zoragarria begi bistan neukana!

Itsaso zabala, zetazko hareadun hondartza amaigabea... lasaitasuna, garbitasuna, gardentasuna...

Gau-mahaitik zintzilik neukan poltsatik mugikorra jaso nuen, munduarekin lotuko ninduen hariren baten bila.

Hutsik eta mutu! Isiltasuna!

Aulkiaren gaineko loredun soinekoa jantzi, eta txankletak eskuan nituela atera nintzen gela misteriotsu hartatik.

Ez nuen gogoratzen zelan azaldu nintzen gela hartan, nork eraman ninduen. Eta ez nekien norantz jo, noren bila edo zer egin.

Baina argi neukan zulo hartatik ihes egin beharra neukala, iluntasun hartatik kanpora atera behar nuela neure barnea, neure bihotza eta neure atsekabea.

Egurrezko eskaileretatik beherantz jarraitu nuen pausuz pausu, txirrin eta txarran... krik eta krak... maila haien zapaltzeak nire pentsamenduei erantzungo balie bezala.

Irteerarantz jo nuen eta bertan entzun nituen eguneko lehenengo ahotsak marmarrean, tarteka barre zantzoak.

Poza sentitu nuen!

Baina aurpegi ezagunik ez ikustean, tipi-tapa aurrerantz jarraitu nuen, atarian jipi itxurako neska bikote batekin topo egin arte.

Itxuraz, konfiantzazkoak. Xelebreak ere bai. Bata, polita, txikia, bizia, argala. Ile gorri-gorria zeukan, kapetan ebakita, sorbaldetatik zehar. Haren aurpegiko begi biziek, leihoko kristaletik ikusten nuen itsasoaren kolorekoak, izpi dirdiratsuak bezain zirraragarri jo zuten nire begietan.

Bestea, askoz handiagoa, zabalagoa, inolako konplexurik gabe ipurdi eta bular ederrak ondo markatuta zituena, erdixka agirian, eta batez ere, lasaia, aurpegi alaikoa, oso atsegina.

- *Kaixo neska, zelan pasatu duzu gaua?* – galdetu zidaten.
- *Oso ondo, nortzuk zarete zuek, zelan iritsi naiz hona?* – erantzun nien.
- *Ixabel eta Garazi, ostatu honetako arduradunak gara. Gauerdian honantz gentozela, botaka eta itxura eskasarekin aurkitu zintugun*

parkeko bankuan etzanda. Lagundu nahian hurbildu ginen zugana, eta zutik jartzeko adorerik ere ez zenuen izan.

- *Ez genekien zer egin. Udaltzaingoari edo anbulantziari deitu, gaua pasatzera geure ostatura ekarri... Eta hainbeste zalantza genituen momentu hartan, poltsatik lurrera erori zitzaizun mugikorrak jo zuen.*
- *Pantailan "etxea" irakurri ostean, deiari erantzutea erabaki genuen.*
- *Bestaldean emakume bat oso arduratuta, Maialenez galdezka. Zure ama zen.*
- *Oso kezkatuta zegoen!*
- *Bere Maialen maitea sasoiz etxeratzen zen eta atzo, agurrik ere esan gabe atera zen.*

Nire amak ez zekien ezer aste haietan niri gertatutakoaz, baina zerbait gertatzen zitzaidan susmoa zeukan. Ez zen ausartzen ezer galdetzen baina, sorginik bikainena zen!

Momentuan deitu nion telefonoz eta lasai egon zedin gezurra esan ere bai, edo ez behintzat egia osoa: ondo pasatzen ari nintzela, lotan lagunen etxean geldituko nintzela esatea ahaztu egin zitzaidala, berak deitu zuenean poltsarik ez neukalako nire lagunek erantzun zutela... Lasai gelditu zen. Edo, hala espero nuen!

Nik, bitartean etxera bueltatu aurretik, eguna hondartzan bakarrik eta trankil pasatzeko beharra neukan.

Horixe zen nire asmoa eta gogoia!

Baina, Ixabelek eta Garazik laster igarri zuten nire tristuraren jatorria zein izan zitekeen, eta bizitzan inoiz ahaztuko ez dudan egunik zoragarriena pasatzera gonbidatu ninduten. Dena ondo baino hobeto planifikatuta zeukaten.

Galdera bakar bat ere ez!

Eskaera bakar bat ere ez!

Aholku bakar bat ere ez!

Ixabel eta Garazi, desamodioaren irakaslerik bikainenak!

Hasteko, hirurontzat gosari bikaina prestatu zuten: laranja eta sagar zukua, ogi errea, marrubizko mermelada, gurina, eurek egindako jogurta... Ondoren, motxilan janari pixka bat eta joko batzuk hartu, kotxera sartu, eta porturantz abiatu ginen, Ixabel, Garazi eta Maialen.

Porturantz. Zertara ote gindoazen?

Zergatik hainbeste ahalegin parkeko bankuan aurkitu zuten neska memelo ezezagun batengatik?

Aurrera jarraitu, ala buelta hartu, eta etxera joatea komeni zitzaidan?

Baina, zelan esan ezetz haiek bezalako neskei?

Agian, ezagutuko zuten pasatzen ari nintzen kalbarioa!

Isilean jarraitu nion ez nekien nongo bideari, baina jadanik, aspaldiko partez, gustura, maitatua eta mimatua sentitzen hasia nintzen.

Mikelekin gertatutakoa tragatzeko denbora luzea behar izan nuen eta ordura arte, ezkutuan neraman barne barnean.



Egun hartan, liberatuta, askatuta, bihotzez gogor eta sendo sentitu nintzen, eta konturatu gabe, azkenaldi hartan bizitako tristuraren arrazoiak kontatzen ari nintzaien Garaziri eta Ixabeli.

Mikelek eta biok ikastolan ezagutu genuen elkar, Mikel Hendaiatik batxilerra ikastera etorri zenean. Elkarrekin oso gustura egoten ginen, eta laster maitemindu ginen, baina nire bihotzeko zirrara, irrika... guztiak golpera bukatu ziren, Meritxel izeneko neska agertu zenean. Mikel, koldar baten erara portatu zen. Ez zuen adorerik izan, begietara begiratu eta maite ez ninduela aitortzeko. Burua makur-makur eginda ihes egin zuen, nire begietako malkoei jaramonik egin gabe.

Betirako agur!

Nire lehen amodioaren agurra!

Mina, tristura, atsekabea, egonezina...

Portura iritsi ginenerako, Garaziren lehengusua, txalupa martxan zeukalarik, itsasorantz ateratzeko itxaroten geneukan.

- *Hauxe da Peio, inork izan dezakeen lehengusurik bikainena*” – aurkeztu zidan Garazi-k.

Oh, Peio, Peio... bera ezagutu nuen unean, begiak itxi, eta aspalditik ezagutzen nuen abestiaren doinu gozoarekin amets egiteko gogoia sentitu nuen.

Garazik bezalako begiak zituen paradisutik agertutako mutil hark!

Nire ametsetako pertsonaiarik perfektuena!

Berriz eskuak dardarka, tripak dantzan, bihotza taupadaka...

Elkarren arteko begiradak, ezkutuko ukituak, muxuak...

Maitasuna, zoriona, poza, ilusioa...





BIOGRAS BMBODgOmW
DBH 4mOMO

aXU LMEOI ERRI ER I UWHI CHENIIE RE ELEIXI CHENIIE RE KERB

ITXAROPENA DA BIZIA, BIZIA DA ITXAROPENA

OZROASYS OqYS O OSORW OIIS O
6gYS Vg OqYS POZISO OqYS S AMS O
7 OMD RSD O O Abg CaS O OSO O
O O O O Ubg a O V O Wb aSO O
7 W OY PSIS S O O O UOR bag Ca O O S O O
MOIS O POM MRO O O R O U g VM b O b a O S a g S O O
a O IIS O O USE a g S O RO PMS S a g S O
: a O IIS Sgb SUMROY O O O bag W O g S O O


AMA

6 O POSY PSIS S S O POX O M g S O
GS a g S R b S P W I g O P M I a g S O
: g RO Sg S I S Y W I R O M g S O
7 OMD O b I S Y O M P O a P b I Y O M R M g a S O a g S O
= O M P O a O g a S Y S O S g R a g a S U O M R a g S O O
a W O Y a O R M O O a g S O O
B O a O b O Y O a b S O U a W P S a W M O O g Y O a g S O
: a O Y O a O O Ubg a g U O Z a g S O O
: Y S O Y O O O O a S O Y P S a W R S O Z U b a g S O
: a O Y O U b g a O U O E W a g S O O
7 S W O Y O R O Y O b O S Y e Y O O O W O g a S O O
: a O P S I S P a g O b I S O S I O O a S O O O



familia bat sortu eta biziababestean
Gazteak, amatxo maitea gogoan edukiko du bere artean
Baita bere alboan ez dagoenean.

LOTERIA



Batzuentzat, bizia da loteria bezalakoa.
Ez dut uste izan daitekeela horrelakoa.

Horren erraza bada izaten
Zergatik ez dute denek erosten?
Batzuek gehiegi dute sinesten
Eta diru guztiak bertan uzten.
Esperantza faltsuak dituzte sortzen,
Zenbakia ez denean tokatzen
Orduan dira konturatzen
Eta dena galtzen.

FALTSUKERIA



Gauza askotan sinestera eramaten duten
Adimen zabalekoek dute min egiten.
Pertsona ospetsuek albisteetan dute adierazten,
Hainbat gauza on dituztela jarduten
Baina gezurra baino ez da egozten.

Gainera, ez ospetsuek soilik,
Lagunek ere uzten zaituzte zintzilik

Horiek ez dira benetako lagunak.
Bi aurpegiz jolasten dutenak
Ez dira izaten onak.
Hartatik, itxaropenaz ez duzu irteten
Ez duzulako pertsona txarrik ikusten
Baina badakizu zeure burua zaudela hausten
Esperantza faltsuak atzematen.

BIZIA

Aterik gabeko lekua
Pertsona askoren burua,
Itxaropen ezaz lagundua
Beti porrotean sinestua.

Ez, hori ez da positiboa
Aurrea da garrantzitsua ez alboa.
Begiak bi plater handi bezala zabalduz
Eta aurrean dudana ongi begiratzuz,
Itxaropena hortzekin hartu
Eta egin nahi dudana burutu.
Arazo guztiak ahaztu
Eta pozik jarraitu.

Gal daitekeen azkena omen da itxaropena
Azken hitza, azken balorea, azken sentipena.
Baina dena amaitutzat ematean,
panorama guztia ilun ikustean,
Biziak bere esanahia galdutzat hartzean,
Zarena baino indar handiagoz inguratuta sentitzean,
Itxaropena agertzen da bide ertzean
Estropezu egindako harria utziz atzean.



Pablo Calleja
DBH 4. maila

“Arrazakeriarekiko aurreiritziak ezjakintasunaren sinonimo dira”

AZKEN ITXAROPENA

Agur esan nien soilik. Hitz bakar bat denboraldi luzeegi baterako. Ama emakume heldua zen arren, negar egin zuen; aitak ordea mutu jarraitzen zuen, anaiak bezala, baina dagoeneko adostuta zegoen. Ez neraman gauza handirik soinean, 250 dírham, tratuan adostu genuen bezala eta ezer ez gehiago. Zertarako?

Gaua zen oraindik, baina jada nabaritzen zen beroa, egun gogorra izango zen gaurkoa. Herri txikia zen Benguerir, hala ere ez genion inori ezer esan, nahiago genuen ezkutuan, familian gorde. Ez zegoen ondo ikusita herria ustea, koldarrena zela zioten, axolagabeen jarrera zela hura. Bost axola niri gainerakoek pentsatzen zutena. Jarrai zezatela haiek egoera hura jasaten, ni behintzat ez nengoen prest horrela segitzeko, aski zen. Bideari ekin nion, herria atzean, mendien artean aldentzen zen heinean.

Safiraino egun erdiko ibilbidea zegoen, ni ordea ordu bietan geratua nintzen jabearekin portuan, beraz lasterka egin nuen bide erdia. Beldurtuta egin nuen, bakarrik nenbilerako bidelapurrez beteriko zonalde batean, izutzekoa. Ezin nintzen arriskatu harrapatua izatera eta neraman dirua galtzera, neu nintzen familiako itxaropen bakarra une hartan eta.

Espero baino lasterrago heldu nintzen hirira. Hala ere, oraindik jabea aurkitu behar nuen. Hura kaosa bertan zegoena: jendea postuetan saltzen, motorrak noraezean toki guztietatik, jendea oihuka... Baina jabeak emandako azalpenei esker eta hiriko jendeari galdetuz heldu nintzen erabakitako tokira. Erraldoia zen. Herritik noizbehinka pasatzen ziren baina ez horren handiak. Nire etxearen besteko altuera zuen; 16 gurpil, atoi eta guzti. Paperean idatzita nuen bezala, 63872 l ■ l 40 zeukan horrek ere aurrekaldean jarrita. Hura zen dudarik gabe.

Osabari esker aurkitu nuen, gizon hura ezagutzen baitzuen, lanetik antza. Merkantziak garraiatzen zituen Europara, hura zen bere ogibidea. Egia esan, ez zen gizonik eta atseginena, baina neukan aukera bakarra zen. Zeukan libertatea eta ohorea 250 dirhamegatik arriskatuko zuen, zuhurra benetan.

Hogei bat minutu itxaron behar izan nituen jabea agertu zen arte. Marmarka heldu zen, txokorra hortzen artean, paper multzo bat eskuaz astintzen zuen bitartean. Aitak esan zidan bezala, lodia eta bizarduna zen, kolore argikoa, europarra antza. Harengana hurbildu nintzen, burua aurkezteko eta adostutakoa ordaintzeko, baina nire harridurarako ahoa ireki bezain pronto “Utzi bakean gazte!” esan zidan. Ez zidan jaramonik egin, berean zebilen atzera eta aurrera, ezinegonean, ni bezala, urduri. Dirua estu neukan helduta eskuartean, norbaitek kentzeko beldurra izango banu bezala. Harrapaladan etxera bueltatzeko gogoa sentitu nuen, abentura zoro hartatik ihes egiteko, hala ere ez nuen etsi eta berriz ere harengana hurbildu nintzen, oraingoan nahastuta.

Pentsatzen hasia nintzen agian okerreko gizonari hurbildu nintzaiola. Ahots fin eta estuz, “Jauna, Ashraf naiz, Benkiran familiakoa, hemen daukat dirua”. Harritu egin zen, eta ondoren irribarre egin zidan. “Ah, ongi da. Diru bila zebilen eskale bat zinela pentsatu dut, zorigaizto madarikatuak...”

Trailerrera igotzera gonbidatu zidan. “Goazen, merkantzia hau ez da bakarrik banatzen eta!” Presaka zebilen. Ezin genuen zortzi terdietako ferria galdu, eguneko azken ferria. Beldurrez eta aldi berean ezjakintasunez bi eskaieratxoak igo nituen, bi pauso, bidai luze hartako lehen pausuak, garrantzitsuenak, baina aldi berean dudatsuenak. Itzela zen barrutik kamioia: eroso zen oso, botoi eta argitxoekin toki guztietatik, ohe eta guzti! Giltzak kontaktuan sartu eta martxan hasi zen kamioia.

Laster irten ginen hiritik eta bidean jarri ginen. Begirada errepidean finko zuela, “Dirua hor al duzu?” esan zidan jabeak, bi atzamarrak elkar igurtziz, keinua eginez. Presaka eskua poltsikora eraman eta burumakur bilete sorta eskaini nion. Mesfidantzaz begiratu zuen, eta banan banan liburuxka bateko orrialdeak balira bezala pasatu zituen. Azken urteetako aurrezkiak ziren haiek, esfortzu handiz lorturikoak. Guretzat diru asko, harentzat ordea, propinatxo bat besterik ez. Irratia jarrita zegoen, eta horrek tentsioz beteriko atmosfera hura pixka bat baretzen zuen. Denbora pasa ahala, elkar ezagutzen hasi ginen. Jabeak argitu zidan bezala, Frantziara zihoan, zeraman merkantzia bertan saltzeko. Barazkiak ziren gehien bat: piperrak, tomateak, letxugak... Morokon balio gutxiko produktuak dira, European ordea ez. Eta galdetu zidan arren, nik ez nion nire bidaiaren xedeari buruz tutik ere esan, ez da atsegina norberaren arazoetaz hitz egitea. Hala ere, jakin bazekien, dudarik gabe.

Pare bat ordu eman genituen bidean, hizketan. Azkenean tipo atsegina iruditu zitzaidan, baina beti bezala, momentu atseginak bukatu egiten dira, eta hura ere amaitu egin zen. Kamioia geldiarazi zuen bide zidorrean, letra handiz “Ceuta” jartzen zuen seinale baten parean. Azkenean heldu zen unea, gogorrena etortzearren zegoen oraindik. Nire etorkizuna zehaztuko zuen unea. Jabeak penaz begiratu zidan, jada adiskide egiten hasiak ginen. Keinua egin zidan buruaz, eta biok jeitsi ginen. Tokia erakutsi zidan. Atzeko gurpilen artean, lurretik metro erdira eta barra batzuei helduta kamioiaren azpikaldean jarraitu beharko nuen bidaia. Tokia espero bezain larrigarria eta gogaikarria zen, baina muga arazorik gabe zeharkatzeko toki bakarra zen. “Gogoratu esan dizudana” izan zen jabeak esan zidan bakarra. Jakin banekien zer egin behar nuen, edo hobe esanda, zer egin behar ez nuen: hitz egin, soinu txikiena bazen ere. Isiltasun osoz egon beharko nintzen bertan beste aldera arazo gabe zeharkatu nahi banuen.

Errepideko lerro zuriak nire oroitzapenak bezala igaro ziren, ziztu bizian. Jada iluntzen hasia zen. Han azpian ez nuen ezer ikusten, pasatzen ziren autoen argiak soilik, besterik ez. Hirian barrena sartu ginen, portuko aduanarantz. Erloju gabe, inkomunikatuta, itxarotea zen egin nezakeen bakarra. Osabaren irudia etorri zitzaidan burura. Hark egin zuen guztia, nigatik, berak bizi izandakoa baino etorkizun hobeago bat izan nezan. Melankoliko jarri nintzen une hartan, familian pentsatzen. Baina han ez nuen inor besarkatzeko eta ezta harekin negar egiteko.

Urrunean itsasoa ikusi nuen, portutik hurbil geunden. Gero eta auto gehiago ikus nitzakeen. Poliki poliki aurrera gindoazen; itsasontzira sartzeko ilara izango zen. Txistu hotsa entzun zen eta halako batean, kamioia balaztatze bortitz batez gelditu zen. Zerbait ez zihoan ondo. Une batez geldi egon ginen, ahotsak entzuten nituen. Ondoren, berriro jarri ginen martxan, baina bidetik irten ginen, eta gainerako autoak ez bezala, izkina batean gelditu ginen. Urduri jartzen hasi nintzen, zerbait ez zihoan ondo. Hankak ikusten nizkien soilik. Begiradarekin jarraitu nituen. Zapatila zahar eta bakerodun gizona jabea zen, beste biak, bota altu eta kamuflagezko prakak zituztenak ordea, militararak.

Atzealdean gelditu ziren. Kamioiaren atoiko atearen hotsa entzun zen, ireki egin zuten. Jabearen hankak ikusten nituen hara eta hona, urduri, ni bezala, izututa. Bihotz taupadak gero eta arinago zihoazen, arnas falta somatzen nuen nigan. Barrura sartu ziren. Haien pausuen hotsa barruraino heltzen zitzaidan, dam, dam... Gainean nituen. Haien ahotsak entzuten nituen baina ez nuen ezer ere ulertzen. Kutxen soinuak entzuten ziren gora eta behera, zerbait bilatzen ari balira bezala. Egia esan ote zidan jabeak, edo barazkiez gain zerbait gehiago garraiatzen zuen? Une hartan ezin erantzun galderari.

Berriz ere isiltasuna, eta pausoak, dam dam... atea itxi egin zuten. Atzetik aurrera zetozen bi gizon haiek eta bat batean, gelditu egin ziren. "Momentu bat!" esan zuen militarretako batek. Hor bertan nituen botak, niri begira beleude bezala, ikutu ere egin nitzakeen. Arnasa hartzeari utzi nion. Begiak itxita neuzkan, gorputzak ez zidan erantzuten. Itxaronaldi hura betierekoa egin zitzaidan. "Ongi da, aurrera jarrai dezake. Kontu izan". Barruan neukan haize guztia bota nuen, hura lasaitasuna, jada erdia eginda zegoen. Denbora luzea itxaron behar izan genuen. Hala ere, azkenean itsasontzian geunden.

Ilun zegoen autoz beteriko toki hura. Olatuen soinua, itsasontziko motorren hots leuna eta ni, atmosfera hunkigarria. Begiak itxi nituen, iluntasun ezezagun batean murgilduz. Bakarrik nintzen une hartan. Pare bat malkok ihes egin zuten nire begietatik, ezin izan nuen sahiestu. Mila irudi pasatu zitzaizkidan burutik. Agurtu nituen unea, ama negarrez, aita mutu eta anaiak etsipen aurpegiaz; nola egongo ziren une hartan? Ni bezain urduri ziurrenik. Eta berriz ere erantzunik gabeko galdera: lortuko ote nuen beste aldera pasatzea? Gorrotoa sentitu nuen une melankoliko hartan. Zergatik pasatu behar nintzen ni kamioi baten azpialdean, ezkutatuta, txakur gaixo baten antzera izututa, eta gainerako bidaiariak trabarik gabe, aurpegia biztan zutela? Erantzuteko galdera konplexuegia.

Itsasoa atzean utzi genuen, barrualderantz gindoazen, arriskutik aldentuz. Helmuga gurutzatu nuen, zorioneko helmuga, inoiz irudikatuko ez nuena. Jabeak laster gelditu zuen kamioia, atsedean gune antzeko batean. Lasaitu ederra hartu nuen burdin artetik jeitsi nintzenean. Lepoa urratuta nuen, eta oinak guztiz lokaturik; hala ere hura ez zen eragozpena izan lasterka eta saltoka hasteko, poztasunez gainezka, oihuka. Jabea, trailerrean muturik, begira neukan, gogobetetasunez irribarretsu. Harengana gerturatu nintzen lasterka, eta besterik gabe gizona besarkatu nuen. Momentu hartan denbora gelditu egin zen, ez zidan ezerk axola. Dena ondo irten zen, desiratzen nuen bakarra, ez nuen ezer gehiagorik behar. Jabeak ez zuen espero erantzun hori; algaraka hasi zen bizkarrean zapladak ematen zizkidan bitartean, ni lasaitzeko. Ez genuen hitzik egin, sentimentuak nahikoak ziren une hartan sentitzen genuena adierazteko eta. Topaketa hunkigarri horren ondoren, kabinan jarraitu nuen bidaia, jada ez nintzen burdinen artean ezkutatu behar. Nonbaitera nindoan, hiriren batera agian.

Semaforo batean gelditu ginen. Gizon bat zebilen autoz auto mukizapiak saltzen. Guregana ere hurbildu zen. Arabiarra zen, ni bezala. Ez genion ezer erosi. Hura izango al zen nire etorkizuna? Horrela bukatuko ote nuen nik ere? Hori izango al zen abentura luze honen bukaera? Ez, inondik inora, etorkizun hobe bategatik borrokatuko nuen, ni bainintzen familiako azken itxaropena.



Irati Asategi
DBH 4. maila

“Irakurtzea eta lagunekin egotea”

AITAREN ESALDIA

“Egun batean hau dena zurea izango da” gosarian, *“Egun batean hau dena zurea izango da”* bazkalorduan. *“Egun batean hau dena zurea izango da”*, hori zen aitaren esaldi gogokoena edo hori uste nuen nik.

Txikia nintzenetik ikasi nuen nola eraman behar diren negozioak, eta betidanik gogoratzen dut nire aitak harrotasunez eramaten ninduela familia enpresatako sukurtsal handienetara. Eta betidanik gogoratzen dut bere porchea eta bidaia luzeak atzerrian. Hori zen nire aita, eguneko porche ezberdin bat zuen gorbatadun aberatsa.

Gaztetan ezagutu zuen ama eta azkar ezkondu ziren. Inbertsio onak egin zituzten Arabian eta bere lurretan petrolioa zegoela ikusi zuenean, aberastu egin ziren. Urte batzuk geroago ama nitaz haurdun gelditu zen, baina konplikazioak egon ziren jaiotzeko unean. Nire amak ni salbatzea eskatu zuen; hortaz, medikuek ni salbatu ninduten eta ama salbatzera joan zirenean, tamalez hil egin zen. Aitak inoiz ez zuen nahi nire jaiotzaz hitz egin, berarentzat gogorregia zen eta egia esan jaiotza ez ezik amarekin lotutako guztia gogor egiten zaio. Askotan saiatu arren, inoiz ez nion aitari hitzik ere ateratzen. Dena den, momentuz nahikoa zitzaidan ama benetan maite izan zuela jakitea.



Umea nintzela, aitak negozio bidaietan eramaten ninduen, eta eskola egunetan irakasle pribatu bat kontratatzen zuen. Seriotasun handiz hartzen zuen nire hezkuntza; nire notak onak izan behar ziren eta pixka bat baxatuz gero, niri barazkiak bakarrik ematea esaten zion sukaldariari. Oraindik ere gorroto ditut lurruna botatzen zituzten auka horiek. Beste alde batetik, udan edo Aste Santuan bidaiatzen bagenuen, egunero dibertitzen nintzen, aitak beti eramaten baininduen zinera edo jolasparkera; eta berak ezinez gero, bere bazkideetako batek eramaten ninduen.

Horrela pasa ziren nire lehen urteak, hamabi urte bete nituen arte. Inoiz ez dut ahaztuko egun hori. Japonian geunden aitaren negozio bidaietako batean; nik asko ikasten nuen hango jendeaz. Geunden hotelek bainu termal pribatuak zituzten eta gure gelak pisurik altuenean zeuden. Atetik egongela batera sartzen ginen eta egongelak beste bi ate zituen, bakoitzarentzat bat. Egun horretan, goiz esnatu nintzen, goizeko bostak izango ziren. Bainugelara joan nintzen eta dutxa bero bat eman ondoren egongelarantz abiatu nintzen. Zerbitzuari gosaria eskatzekotan nengoela, nire aita ikaragarritzko kutxa handi bat sartzen ikusi nuen.

- "Aita! Zertan ari zara?"
- "Ene printzesa! Zertan ari zara ordu hauetan altxatuta?"
- "Duela hamabost minutu altxatu naiz, baina zertan ari zara kutxa horrekin?"
- "Zorionak maitea! Kutxa honen barruan zure oparia dago."
- "Zer da?"
- "Zu jaio zinenean, amak zera eskatu zidan: zerbait gertatuz gero, bere arropa, liburu eta gauza pertsonalak gorde eta 12 urte betetzen zenituenean zuri ematea. Hortaz, zorionak maitea, hau da zure amaren oparia!"

Negarrak nire ikuspegia itsutzen zuen bitartean beregana jo nuen eta luze egin genuen negar. Arratsaldean erosketak egitera eraman ninduen eta luxuzko jatetxe baten afaldu genuen.

Lau urte beranduago, 16 urte betetzera nindoanean, egoera zeharo ezberdina zen. Aitaren bazkide baten semea eta biok maiteminduta geunden. Gainera, urte hartan, nire aitak ikaragarritzko festa bat egin zuen nire omenez. Urtebetetzeak Egipton harrapatu gintuen. Nire lagunak oso ilusionaturik zeuden bidaiaria zela eta; gehienak ez zuten inoiz bidaiatu eta faraoien lurraldea ezagutzeko irrikitan zeuden. Ni oso pozik nengoen denak batera egongo ginelako berriro. Gure gurasoek ez zekitenez ezer gureaz, nire mutil laguna eta biok asko dibertitzen ginen sekretuarekin.

Baina jokoak ez zigun asko iraun. Festa amaitzear zegoela nire aitak harrapatu gintuen. Oso zuri jarri zen eta nire mutilari gurasoekin etxera joateko eskatu zion seriotasunez. Niri ez zidan ezer esan baina hurrengo egunean bi familiak batera joan ginen afaltzera. Gertatutakoaren ondoren zigorren bat espero genuen, baina jatordua inolako arazorik barik igaro zen. Zirudienez, aitak ez zien ezer esan bere gurasoei. Hala eta guztiz ere, gutxi iraungo zuen antzezlanak. Nire maitearen amak berarekin komunera joateko eskatu zidan. Komunean geundela, nire bizitzako hizketaldi latzenetako bat izan nuen. Amaitutakoan, mahaira itzuli eta mutilaren aurpegi zuria ikusi nuen gizonek puru bat erretzen zuten bitartean. Jesarri ginenean, elkarri gauza bera eskatu genion.

- “Hobeto ez badidazu ezer galdetzen.”

Hori esan bezain laster gurasoak barrezka hasi ziren.

Denbora pasa ahala, gure harremana finkatu egin zen. 18 urte bete nituenean, aitaren “Egun batean hau dena zurea izango da.” bete egin zen. Bere enpresaren erdia eman zidan eta bat-batean nire bizitza bulegoz – bulego egiten hasi nintzen. Nire mutil – lagunak ere bere aitaren enpresaren erdia heredatu zuen. Ni estresatuta nengoen arren, estres hori nire aita lasai ikusita joan egiten zitzaidan.

Lanean buru-belarri eman genituen ondorengo sei urteak. Eta horrela hasi zen berriz betetako urte hori. Urtarrilak 4ean haurdun nengoela ohartu nintzen. Nire mutilak ez zekien zer egin. Duela gutxi etorrita zegoen gurekin batera bizitzera, nahiz eta erabakia ez izan gurasoen gustukoa.



Errege egunean, mahai inguruan eserita jatear geundela, egia esan genien. Nire mutilaren gurasoek ondo hartu zuten berri ona eta zoriondu egin gintuzten; nire aita, berriz ...sinistu ezinik zegoen. Altxatu eta etxeko bulegora joan zen. Portaera ezegoki hura ikusita, nire mutil-lagunaren sendiari barkamena eskatu eta bere atzetik abiatu nintzen. Aita, ikusi ninduenean, negarrez zegoen eta emozioaren emozioz besarkada bat eman zidan.

-”Ez zaitetz hil mesedez, daukadan guztia zu zara eta!”

Orduz geroztik, haxe da bere esaldirik gogokoena.



Annet Unda Endemaño
DBH 4. maila

BETI GOGORATUKO ZAITUT

Herenegun gogoratzen zaitut
famiariaren sua zinenean
zurekin jolastea
ipuinak kontatzean
ni besoetan hartzean
zure irribarrea ikustean
matraila musukatzean
ama eta ni babestean
batera sentitzean.

Herenegun gogoratzen zaitut
zurekin haserretzean
negar egitean
biok damutzean
parkamena eskatzean
musukatuz dena konpontzean
batera sentitzean.

Atzo gogoratzen zaitut
zurekin izarrak ikustean
sekretuak kontatzean
alaitasuna adieraztean
barrez lehertzean
biok kotxean abestean
bizitasuna erakustean
batera sentitzean.

Atzo gogoratzen zaitut
gutxika-gutxika gaixotzean
ospitalean besarkatzean
izkutuan negar egitean
beti gurekin egongo zarela esatean
eskuak laztantzean
begiak ixtean
betirako agur bat esatean
urrunago sentitzean.

Gaur gogoratzen zaitut
egunero zugaitik otoitz egiten
zure irudia nere barnean konserbatzen
bizitako momentuak inoiz ez ahazten
gorantz begiratzuz zure irudia bilatzen
zure hutsunea nabaritzen
bizia aurrera jarraituz
are eta urrunago sentituz.

Gaur gogoratzen zaitut
zure izena hilerrian ikustean
bihotza hnkitzean
ahaztezina izango zarela konturatzean
aitarik onena izan zarela baieztatzean
arrosa sorta bat zurekin utziz
ene barnean izango zarela adieraziz
noizbait elkartuko garela pentsaraziz
hirurok batera berriz.



Bittor Rodriguez

Batx. 1. maila

“Nobela beltza beti da aukera ona”

EGIATZAT KONTATUA, KONTATUTAKO EGIA

Istorio hau New Yorken kokatzen da, 2005. urtean.

James Badwin empresa-gizon aberats eta boteretsua zen, 71 urtekoa, Londreseko erdiguneko mansio batean bizi zena bera baino gazteagoa zen bere emazte Judith Badwinekin, 42 urtekoa.

Gautzen hasia zen eguna. Badwin jauna bere gelatik atera, eta eskailerak jaitsi zituen eskatzera iritsi arte. Bere emaztea zegoen han, afaria prestatzen. Mansioa zerbitzariz betea zegoen, eta eskatzean hainbat sukaldarik lan egiten zuten, primerakoak guztiak ere, baina hala ere, Judithek gustuko zuen noizbehinka afaria prestatzea, probetxuzko zerbait egiten zuela sentitzeko edo, pentsatzen zuen Jamesek, egun osoan telebistaren aurrean edo irakurtzen egoteaz aparte.

Jamesek, iraganera begiratu eta egun haiek gogoratu zituen, bere lehen emaztea, Kate, utzi eta Judithekin ezkondu zen garai hura. Kate ez zuen mesprezuz gogoratzen, alderantziz, emakume bikaintzat zuen, oraindik ere barren-barrenean maite zuena, baina magia amaitu zenean, uztea erabaki zuten. Jamesi, galdu izan zuen bere fortunaren erdiak baino gehiago, Kate bezalako emakume hain zoragarri bat galtzeak eman zion pena handiagoa. Ezkontzaren ondorengo urteetan, Judith ere emakume bikaina zen, emakume polit eta atsegina ... pixka bat berekoia agian, baina hala ere, asko gustatzen zitzaion. Gutxienez, bai lehenengo urteetan. Baina denbora igaro ahala, beraren gauza onak txar bihurtzen hasi ziren, eta gauza txarrak, oraindik

txarrago. Oraindik emakume polita zen, bai, baina jasanezina. Emakume alfer, berekoi eta hotza, jada James maite ez zuena (noizbait maite izan bazuen), eta Jamesek maite ez zuena.

James bere emaztearengana hurbildu zen

- Zer dago afaltzeko?
- Okela.- erantzun zion seko. Judith ingurura begira hasi zen, zerbaiten bila bezala. Jamesek laban bat luzatu zion, eta Judithek hartu.
- Beno, nire paseoa egitera noa.- Judithek ez zuen ezer esan.

-----O-----

Smith inspektorea bere bulegoan zegoen deia jaso zuenean. Kasu berri bat zuen, antza. Hilketak bat. Bere laguntzaileari deitu, patxadaz bere bulegotik irten, kotxea hartu, eta telefonoz eman zioten helbiderantz joan zen.

Etxea kotxez beteta zegoen. Prentsa eta polizia nonahi, eta baita kurioso asko. Familia boteretsua nonbait.

Smith etxerantz hurbildu zen, eta han polizia teniente bati hurbildu zitzaion.

- Kaixo John!-Smithek.
- Smith, kaixo.
- Donutsik ba al dago hemendik?
- Ehhh... bai, bai....- tenienteak kotxe batetik donuts kaxa bat hartu eta Smithi eskaini zion.
- Beno, zer dugu ba?-galdetu zuen Smithek. Tenientea erantzutera zihoanean, polizia gazte bat agertu zen, prentsari eta kuriosoei oihu egiten
- Ez zaitetzte hurbildu! 30 metroko erradio poliziala ezarri behar da! Edo kalea akordonatu! Inor ez hurbiltzea, frogak suntsi litezke eta!
- Trankil hadi mutiko!- oihu egin zion Smithek. James (bai, badakit istorioan badagoela jada beste James bat, eta ez dagoela istoriorik non izenik errepikatzen den, baina legeak apurtzeko daude) Hudson zen, Smithen laguntzaile fin eta energiaz betea.
- Ah zelako flipada daraman honek gainean....- murmuratu zion tenienteari Smithek
- Joan gaitezen hilketaren tokira, han azalduko dizuet guztia.

Tenienteak kale pare bat urrunago zegoen kaleka batera eraman zituen bi gizonak.

- Hortxe aurkitu du gorpua gaur goizean auzoko batek -lurrean, kontenedore baten alboan gizon bat zegoen, heldua, laban batekin bihotzean sartuta. Gorpuaaren alboan polizia zientifikoaren pare bat gizon zeuden frogak bilatzen. Smith gorputzari urreratzen hasi zitzaion.
- Kontuz ibili nagusi! Ez ezazu frogarik zapaldu!- oihukatu zion Jamesek.

- Isildu ezean zapalduko dudan gauza bakarra zure burua izango da!
- Nor da?- galdetu zion Smithek tenienteari, jada gorpuaren alboan.
- James Badwin, enpresa gizon aberatsa, 72 urte.
- James...- murmuratu zuen Smithek
- Bai?- galdetu zion bere laguntzaileak, haiengana hurbilduz
- Ez, ez... berari ari natzaio- esan zuen Smithek, gorpuari seinalatuz
- Ba ez egin kasurik nagusi, baina esango nuke hilda dagoela. Nik ez nuke erantzunik itzarongo.
- Zein da heriotzaren ordua?- galdetu zuen Smithek
- Arratsaldeko seiak eta bederatziak artean kokatu dugu.
- Eta zein da heriotzaren kausa posiblea?- galdetu zuen Jamesek.

Komentarioari kasurik ez eginez, tenienteak jarraitu zuen:

- Antza, atzo zazpiak inguru irten zen Badwin etxetik, egunero egiten zuen pasioan. Hemendik pasatzean, hiltzailea kailejoi barrutik irten zen, eta Badwin gizon aberatsa zela kontuan hartuta, suposatzen dugu, hura lapurtzen saiatu zela labanaz intimidatuz, gauza konplikatu egin zen eta... Ez dugu ezer aurkitu bere poltsikoetan, hortaz lapurreta bat dirudi guzti honek. Dena dela, gorputza aztertzeraz etorriko dira laster, beharbada froga interesgarriren bat aurkituko dute.
- Nor da Badwin?- galdetu zuen Jamesek.
- James.-argitu zion Smithek, hasperen eginez.
- Esan.-Jamesek.
- Esan zer?
- Deitu egin didazu...
- Tontoa al zara?

-----O-----

Hurrengo goizean Johnek deitu zion berriz, notizia freskoak zituen. Antza, kasuak buelta drastikoa eman zuen. Izan ere, hatz marka bat eta ADN zati bat topatu zituzten polizia zientifikoek gorpuan. Hatz marka labanan bertan, Jamesen emaztearena. Importantzia handikoa zen hau, izan ere, emazteak ez zuen koartadarik, etxean egon zela esaten zuen, eta mobila, herentzia izan zitekeen. ADN zatia, Adam Johnsonen azazkal zati bat, "poca monta"-ko lapur bat, galtzetako poltsiko batean, ziurrenik gorpua han aurkitu eta hura sakeatzea erabaki zuenean. Horrez gain, Johnek kontatu zion ere, bost urte lehenago, James Badwinen semea hil egin zutela egoera misteriotsuan, eta ez zela hiltzailea oraindik aurkitu, eta baita ere, esan zion Smithi, Jamesek, hil baino lehenagoko egunean, 20.000 dolar atera zituela bere kontutik, eta beste 20.000 aste bat lehenago.

Horrela, Smith eta James, delako Adam horri bisita bat egitera joan ziren, ezer gutxi lortzeko esperantzarekin.

- Oso arraroa da hau guztia -esan zuen Jamesek, autoan zeudela.

- Zergatik diozu hori? -galdetu zuen Smithek, interes handirik gabe.
- Ez dakit. Ez zaizu arraroa iruditzen Judith horrek bere senarra hiltzea bere eskuekin? Ez ahal zen errazagoa izango norbait kontratatzea?
- Beno, eh... ez dakit, beharbada amorru handia ematen zion... -erantzun zion Smithek.
- Amorrua? Egun batetik bestera? Hilketan plan horrek bat-batean egin ematen du, premeditaziorik gabea. Norbaiten hilketan pentsatzeko hainbeste denbora duzunean, normalena ez da zure atzapar guztiaren marka hor uztea. Ez duzu uste?
- Bah...ez dakit zer esan

Horrela zeudela, John-ek deitu zuen berriz:

- Aizu Smith, Badwin-en etxean egon gara, bere gela arakatzen, eta haren telefonoaren memorian aurkitu dugu, egin zuen azken deia nori eta Adam Johnsoni egin ziola. Zuek segi haren etxera, gu berehala joango gara.

Smithek Jamesi begiratu zion.

- Interesgarri jartzen ari da hau.

-----O-----

Laster heldu ziren. Johnson txiza usaina zuen eraikuntza batean bizi zen, azken pisuan. Ate aurrean zeuden jada.

- Aizu Smith, sartu baino lehen: nor izango da “poli bueno” eta nor “poli malo”?
 - Utzi txorakeriak txo!
 - Ez benetan, zientifikoki frogatua dago metodo horrekin emaitza hobekak lortzen direla.
 - Beno, nahi duzun bezala, ni izango naiz txarra.
 - Eh... mesedez, inportatuko litzaizuke...
 - Nahi duzun moduan...- esan zuen Smithek, nekaren nekez.
- Atea jo zuten. Behin, bitan. Dei egin zuten. Ez zen erantzunik egon. Tiro egin zioten kisketari, eta ostiko batez sartu ziren.
- Ze ostia da iskanbila hau?- oiho egin zuen ahots batek- Ze gertatzen da? Lapurra naizenez, atera deitzean zabaltzen ez badut, hanka egin nahi dudalako delako edo? Joder, hirugarren atea da aurton!
 - Isil zaitez kaka zati horrek! Hori da zarena eta, kaka, txusma! Txusma baino ez! Ze uste duzu, ez dakigula zer egin duzun! -hasi zen James.
 - Lasai hadi motel...- jarraitu zuen Smith-ek.- Adam, badakigu zerikusia izan zenuela James Badwinen hilketan. Zure ADN aurkitu dugu bere gorputzean, eta badakigu Jamesekin kontaktuan egon zarela. Badakizu zertaz ari naizen?
 - Ideiarik ez
 - Ah ez, eh?Beno, ba ez bazaizu axola, pisua arakatuko dugu, froga nahikoa dugu eta.

Ez zen luze igaro maletatxo bat aurkitu zuten arte, 40.000 dolar zituen maletatxo bat.

- Badakizu zerbait honetaz? Nik uste froga hauekin nahiko dugula zu kondenatzeko hilketagatik

- Hilketagatik? Nola frogatuko duzue gizon hori hil dudala? Egia nahi duzue? Ongi ba, hemen duzue: gizon hau nirekin kontaktuan jarri zen orain dela aste pare bat eta diru kantitate handi bat eskaini zidan bere emaztea hiltzeagatik, 20.000 eman zizkidan lehenengo astean, eta beste 20.000 ematekoa zen atzo, baina bueno, badakizue zer gertatu zen, geratu ginen lekura heltzean, lurrean botata aurkitu nuen. Bere poltsikoak arakatu eta han aurkitu nituen 20.000 dolarrak, horregatik ADNa bere poltsikoan. Azken 40.000 dolarrak lantxoan egin ondoren eman behar zizkidan. Suposatzen dut, emazteak gure plana antzeman eta Jamesi aurreratu zitzaioela

Smith eta James gertatutakoa asimilatzen egon ziren apur batean, eta ontzat eman zuten Johnen bertsioa. Laster heldu ziren gainerako agenteak, eta John atxilotu eta 40.000 dolarrak kendu zizkieten. Judith bere bizitza osoa espetxeratuta egotera kondenatua izan zen, premeditazio gabeko hilketa izan bazen ere, eta Adam libre utzi zuten bizkor.

-----O-----

Hau izan zen egiazat kontatua izan zena, baina orain kontatuko dizuedana da egia.

Gautzen hasia zen eguna. Badwin jauna bere gelatik atera, eta eskailerak jaitsi zituen eskatzera iritsi arte. Bere emaztea zegoen han, afaria prestatzen. Ezin zuen jasan ere bera ikustea, amorru izugarria ematen zion. Bazekien Judithek ez zuela maite, bazekien bere diruagatik jarraitzen zuela berarekin, eta bazekien ere, edo ia ziur zegoen, berak, Judithek, hil zuela bere semea, herentzia guztiarekin geratzeko. Bere emazteari hurbildu zitzaion, eta poltsikoan zuen labana eman zion. Judithek labanarekin amaitzean, hartu eta bere poltsikora itzuli zuen, bizarretik hartuz.

Kalera irten eta buruari ematen hasi zen, egingo zuena egokia zen bere burua konbentzitu nahian. Guztiz ziur zegoen. Judithek sufritzea nahi zuen, bere semearen hilketagatik sufritu behar izan zuena sufritzea, baina ez zuen hil nahi, ezingo zuen.

Kalexka iritsi zen, eta bere bizitzaren etorkizuna kalexka amaierara heltzeko bidea bezalakoa izango zela pentsatu zuen: iluna eta laburra. Han ikusi zuen Adam, beltzez jantzia, gomazko eskularruekin jantzia.

Adam Jamesen salbatzailea zen, Jamesek bazekien eta berak bakarrik ezin izango zuela bere plana aurrera atera, adorea faltako zitzaioela. Bere hiltzailea, salbatzailea ere izango zen.

Adamsi hurbiltzen ari zitzaiola, edonola ere bere bizitza laburra izango zela pentsatu zuen, alkoholak eta puroek ez dute eta etorkizunerako margen handia uzten. Bere ustez, bost urte gehiago bizitzeko gai izango zen asko jota, eta bost urte, bere semearen mendeku konparatuz ezer gutxi iruditzen zitzaion.

Labana orritik hartu, berak ukitutako aldetik garbitu, eta Adamsi luzatu zion. Jamesek eskatu bezala. Hitzik esan gabe eta arin egin zuen, zehaztasun handiz. Jamesek labanaren ukimen hotza nabaritu zuen barruan, bihotzean. Zorabiatzen ari zela nabaritu zuen, bere gorputzak amore eman zuen arte.

Adamsek 20.000 dolarrak poltsikotik hartu, eta handik hanka egin zuen.



Alazne Arrazola Sastre
BATX. 2. maila

“ Behin inspirazio iturria aurkituta, lan guztia eginda dago ”

BIOK BAT

Hainbeste momentu zuri lotuta. Hainbeste kontu zure ahotik entzunda. Hainbeste galdera egin nizkizun. Hainbeste besarkada eman zenizkidan. Jadanik ez zaude. Egunero egiten nizun galderari erantzunik eman gabe joan zara, ama.

Ez dakit nor naizen, baina badakit ni babesteko egin duzula hau. Inoiz ez didazu esan aita nor den, ezta non dagoen ere. Ondo ezagutzen zaitut, ama, eta bizitzako kapitulu bat kontatu gabe joan zarela sentitzen dut. Ezkutatzen ahalegindu zaren kapitulua. Sakelan sartu eta zurekin eraman duzun kapitulua. Kapitulu horretan zu zara protagonista, eta badakit asko sufritu duzula bertan.

Inoiz ez zaizu gustatu nik sufritzea, zuk asko sufritu duzulako. Inork baino hobeto babestu nauzu. Hamabost urte nituenean, Iñaki aurkeztu nizun lehenengo aldiz eta ez zizun ilusio handirik egin, zure alaba besoetatik askatzeko beldur baitzinen. Zure alabak min hartuko zuen beldur zinen. Zure alaba aita bezalako norbaitekin aurkituko zen beldur zinen. Bueno, hau suposatze bat baino ez da, aita dudan ere ez dakit eta. Aita biologikoa deituko diot, bere alaba hezi ez duen gizon batek ez baitu horrela deitzea merezi.

Aita. Hitz zabala eta sentimenduz betea. Zure bizitza laburrean ez dizut hitz hori inoiz entzun. Agian, gizon horrentzako handiegia da hitz hori. Zeinek jakin, ez didazu inoiz ezer esan eta. Baina zuk bai merezi duzu horrela deitzea, ama. Hitzak dakartzan esanahi guztiak merezi dituzu. Babesa, maitasuna, laguntza. Dena eman didazu eta bai, ama deitzea baino zerbait gehiago merezi duzu.

Baina jadanik ezin dut ezer egin. Berandu da. Benetan damutzen naiz merezi izan duzun guztia ez emateaz. Ez dut denbora nahikoa izan zu agurtzeko. Gazte joan zara, ama. Hogeita hamazortzi urte baino ez. Gazte izan ninduzun. Hamazazpi urteko neskatoa, bizitza guztia aurretik zuena, baina alabak ilusio guztiak zapuztu zizkiona.

Dena den, nik heldu ezagutu zaitut. Gazte kanpotik, heldu barrutik. Adinez gaztea, bai, baina pertsona oso nagusi eta esperientziadun batek hitz egingo lukeen bezala hitz egiten zenuen. Horrek erakusten du ez duzula gaztarorik izan. Umetan zebrabideak saltoka igarotzen nituen gisan saltatu duzu gaztaroa. Beharbada ez zen hori zure nahia, baina ez zenuen beste aukerarik izan.

Bidean aurkituko ditudan oztopoei aurre egiten irakatsi didazu. Gogorra izaten irakatsi didazu. Erortzen naizen bakoitzean altxatzen irakatsi didazu. Bizitza honetan benetan zer den garrantzitsua irakatsi didazu.

Hamazazpi urte baino ez naiz egon zurekin eta ez dut zu agurtzeko denborarik izan. Bat-batean joan zara eta bakarrik utzi nauzu. Ez nuen espero hain arin agurtu behar zintudanik. Hamazazpi urte bakarrik zurekin, ama, eta orain benetako errealitatearen aurka borrokatu behar dut.

Txikitan abesten zenidan kantua datorrit burura orain eta hori buruan daukadala agurtu nahi zaitut. Agur bat baino nahiago dut laster arte bat izatea. Badakit noizbait aurkituko garela, eta behar dudan momentuetan hor egongo zarela. Laster arte, ama.

* * *

“Ia hiru urte. Hogeita hamasei hilabete. 144 aste. 1008 egun. Gaur ere asteleheneko zopa bazkaltzeko, ogi puska batekin. Ia hiru urte daramatzat berdina bazkaltzen. Hori da nire eguneroko menua, baina ezin naiz kexatu, jasaten dudan guztiaren artean behintzat jatekoa daukat eta. Egunero daukadan motibazio bakarra da. Monotoniatik ateratzen nauen gauza bakarra. Ohetik altxatu, hormei begiratzeari utzi eta esertzeko gogoia eragiten didan bakarra.

Askotan bazkaria bertan behera uzten dut eta nire bizitzarekin amaitzeko gogoia etortzen zait. Monotonia honetatik benetan irteteko. Bizitza nazkagarri honi agur esateko. Sufrimenduz beteriko ia hiru urte hauei amaiera emateko. Inguratzen nauten hormak baketan uzteko.

Zorionez edo zoritxarrez, joan den astetik beste motibazio bat daukat. Aurrera jarraitzen laguntzen didan motibazioa. Harri pisutsu honetatik tiratzen duen soka. Generadorea martxan jartzen duen turbina. Nigan bizitzeko gogoia pizten duen bonbilla.

Dena hasi zen hamalau urte nituenean eta izeba hil zenean. Ordura arte berarekin bizi nintzen. Ama ez nuen ezagutu, ni jaiotzerakoan hil baitzen eta ez nekien ezer aitari buruz. Baina bai izan nuen ama bat, eta hori izeba zen. Nire ama zen. Zimurrez beteriko eskuekin laztantzen ninduen loak hartu arte. Bere ahots goxoaz laztantzen ninduen. Bere begirada samurraz laztantzen ninduen. Bere beste alaba bat izango banintz bezala zaintzen ninduen. Halako egun batean bihotzekoak emanda joan zitzaigun eta nik ez nuen beste aukerarik izan: gizon honengana bizitzera etorri behar izan nuen.

Egun hartatik dena aldatu zen. Hamalau urte izateari utzi nion. Gazte izateari utzi nion eta ilusio guztiak galdu nituen. Nire bizitza amesgaizto bihurtu zen. Esnatu nahi dut. Denboran atzera egin nahi dut eta galdu dudan gaztetasuna berreskuratu nahi dut.

Asko sufritzen ari naiz. Bidegabekeriaz beteriko mundu honetan bakarrik aurkitzen naiz. Ez dut argia ikusi hiru urtetan. Ez dut gizon hau ez den pertsonarik ikusi hiru urtetan. Ez dut barre egin. Ez dut gozatu, amestu, maitatu.

Etxe honetara maletarekin heldu nintzen. Etorkizunak zer zekarkidan jakin gabe, itxaropena nekarren maleta hartan. Non geratu ote da itxaropenez betetako maleta hori. Ilusioz betetako maleta. Izebaren etxean armairuan nituen ilusio guztiak tolestu eta maletan sartu nituen, baina etxe honetako atea ireki bezain laster alde egin zuten.

Gizon altu eta indartsu batekin aurkitu nintzen eta nire gela zein izango zen erakutsi zidan. Gelako atea ireki eta horman kontra bultzatu ninduen. Izebak eginiko soineko zuria segundo batean kendu zidan eta negarrez hasi nintzen. Eman nizkion ostikadak ez ziren nahikoa. Azazkalekin bere esku zikinak nire gainetik kentzen ahalegindu nintzen eta ni negar hutsean eskapatzeko ahaleginak egiten ikusteak gehiago pozten zuen. Ohe gainera bota ninduen eta denetarik egiten hasi zitzaidan.

Hamalau urte baino ez eta nire amesgaiztoari atea ireki nion lehenengoz. Hamalau urte, bai. Gizon hark animalia baten gisan jokutzen zuen. Zoro bihurtu zen eta han izan ninduen nekatu zen arte. Negar eta zarata. Ezin nuen beste ezer egin. Bere jaiaren eta nire amesgaiztoaren lehenengo kapitulua bukatu zenean logelatik alde egin zuen eta giltzapetu egin ninduen.

Nire lehenengo gaua hemen. Negarrez igaro ditudan gau guztietatik lehenengoa. Ate azpiko zirrikitutik dena izozten zuen haizea firin-faran sartzen zen, galderaz beteriko mundu batera bultzatuz. Ez nekien zer egiten nuen hemen. Ez nuen ulertzen zergatik ekarri ninduten gizon honengana, eta oraindik ez dut ulertzen. Ez nuen ulertzen zergatik egin zizkidan gizon hark gauza guzti haiek, nik ez banion ezer egin.

Lehenengo aldia izan zen, bai, baina zoritxarrez ez azkena. Dominoaren ilara guztia bultzatzen duen lehenengo pieza izan zen hura, jarraian beste pieza guztiak botako zituena. Bat, bi, hiru. Hiru egun igaro eta hiru pieza erori ziren. Hiru egunetan bortxatu ninduen. Lau, bost, sei. Egunero behartzen ninduen sexu harremanak izatera.

Bihozgabea. Zikina. Beldurtia. Hainbat ezaugarri pertsona bakar bat deskribatzeko. Gizon honek ez nau baketan uzten. Hezur multzo honek bizitza lapurtu dit. Bere apatx zikinek nire bizitza zapaldu dute. Min egiten dit. Ileetatik tiratzen dit berak nahi duena egin dezadan. Eskuineko masailean daukadan marka berak behin bota zidan edalontziarena da. Baina hori marka fisiko bat baino ez da. Marka psikologikoak oraindik sakonagoak dira. Bukaera ikusten uzten ez duten zulo amaigabeak.

Ihes egin nahi dut. Kartzela honetatik at egon nahi dut. Gazte izan nahi dut. Hamaika aldiz ahalegindu naiz. Hamaika ahalegin eta emaitzarik ez. Badirudi nire zuhaitzak ez duela fruiturik ematen. Badirudi nire bizitza zigor honetara bideratuta dagoela. Askotan etsi egiten dut eta zigor hau onartzea baino ez zait geratzen.

Baina badaude itxaropena segundo batzuek ekartzen duten momentuak. Behin, lehengusina bat etorri zitzaidan bisita egitera etxera, baina gizon honek etxean ez nengoela esan zion. Zarata hutsean hasi nintzen hemen nengoela entzun ziezadan. Dirudienez, ez zidan entzun eta alde egin zuen. Ea zer lortu nuen bisita horrekin galdetuko diozu zeure buruari. Itxaropena berreskuratu nuen. Kanpoan merezi duen zerbait dagoela jakinarazi zidan ahots hark eta ez dudala inola ere etsi behar.

Itxaropen horrek gutxi iraun zuen, ordea. Arratsaldea iritsi eta bere drogaren dosia behar zuen gizonak. Eguneroko dosia. Bere heroina injektatzen da, nahiz eta heroina horri ez zaion bera gustatzen.

Orduantxe da berriro ere itxaropen guztia galdu eta ohean sartzen naizen unea. Baina bitartean paso ematen diot nire irudimenari. Etxe ondotik pasatzen den erreka entzuten dut eta izebaren ahotsa imajinatzen dut. Izebak abesten zidana kantatzen dit. Belarrira xuxurlatzen dit. Egun nazkagarriak aurrera eramaten laguntzen dit. Abesti berdina abestuko dizut nik oheratzen zarenean. Errekak laztantzen nauen moduan laztanduko zaitut. Belarrira kontuak xuxurlatuko dizkizut. Uraren besotik nahiko nuke atera. Urak bere eskua eskaintzen dit egunero baina ezin dut esku hori hartu, lotuta bainago. Uraren besotik nahiko nuke ezagutu kanpoan itxaroten dagoen mundua. Uraren eskua hartu eta hemendik irtengo naiz egunen baten. Ez dut zuk ere sufritzea nahi. Biok eskutik lotuta joango gara eta urak bere korronteen indarrarekin eramango gaitu.

Ohean etzanda pasatzen dut eguna. Teilatura begira edo ohe ondoan daukadan hormara begira. Entzuten nauten bakarrak dira. Negar egiten dudanean beraiei begiratzen diet, zer erantzungo duten zain. Baina beti isilik. Begira geratzen zaizkit, zuri eta zurbil. Badakit ulertzen didatela, eta horrekin nahikoa daukat.

Azken hiru urte hauen ispilua dira. Gertatu zaidan guztia dakite, eta horien markak dauzkate. Gizonak ni hormaren kontra bultzatu eta bere esku zikinak horman jarri ondoren geratzen diren marka beltzak, amorru osoz beteta hormari ukabilkada jo nioneko odol marka, egunak pasatu ahala arkatzez egiten ditudan marratxoak. Beraiek bakarrik dakite zenbat sufritu dudana eta zer sentitzen dudana.

Bueno, joan den astetik beste norbaitek ere daki guzti hori, dena kontatzen diot eta. Zu zara. Zu zara duela aste batetik daukadan motibazioa. Aurrera jarraitzen laguntzen didana. Haurdun geratu naiz hamazazpi urterekin. Ez zen nik nahi nuena. Ez zen nire ametsa. Inoiz ez dut nahi izan hain gazte ama izatea, baina hemen zaude eta ez dut atzera egingo. Joan den astelehenetik dakit hemen zaudela. Joan den astelehenetik kontatzen dizkizut ipuinak. Joan den astelehenetik abesten dizut izebak eta errekak abesten zidaten kantua.

Ez dut zu hemen jaiotzea nahi, ezta zu hemen hezte ere. Ez da girorik toki honetan, laztana, eta batek jakin zer egin diezazukeen animalia horrek. Ez dut nahi nik jasan dudana jasatea. Ez dut nahi sufritzea. Ez dut nahi zuk ere gela honetako hormei zure bizitza kontatzea. Zure bizitza kanpoan goza dezazun nahi dut. Gela hau izozten duen haizea zure aurpegian senti dezazun. Haizeak zure ilea laztan dezan. Euriak zure azala busti dezan. Eguzkiak bero zaitzan. Kanpoan hemen ez dauden koloreak daudela ikus dezazun. Itsasoa harrien aurka jotzean entzun dezazun. Natura maita dezazun.

Zin degizut egunen baten hemendik aterako garela. Gure itsasontziaren bela zabalduko dugula eta amaierarik gabeko bidaia hasiko dugula. Eskutik helduko garela eta haizeak ametsez beteko gaituela. Gure ametsetan dilindan dantzatuko garela. Zin dagizut daukadan guztia emango dizudala. Kanpoa erakutsiko dizudala.

Geratzen zaidan motibazio bakarra zara. Itxaropen bakarra. Oraindik ez zaude hemen, baina jadanik maite zaitut. Maite zaitut eta maitatuko zaitut, txiki.”

* * *

Duela 21 urte. Duela hogeita bat urte labur idatzi nuen gutun hori. Hogeita bat urte labur, bai, baina horien aurretik hiru urte amaigabe egon ziren. Sufrimenduz beteriko hiru urte. Urte horiek bizkarrean eraman ditut motxila pisutsu baten. Motxila hori ezin izan dut hogeita bat urte hauetan kendu. Hiru urte haietan bete nuen motxilak bizitza markatu dit eta hori ezkututzen ahalegindu naiz, zuk gehiago ez sufritzeko.

Beti kontatu dizut dena, baina badago kontatu ez dizudan kapitulu bat. Gutun hori betetzeko beharra sentitzen dut. Badakit hau irakurri ondoren hainbat galdera izango dituzula buruan bueltaka, baina horretarako nago hemen.

Badirudi lehengusinak zarataka entzun ninduela nitaz galdezka etorri zenean eta nire ahotsa ezagutu zuela. Halako batean etxeko gizona kanpoan zegoela leiho batetik sartu eta nire logelako atea irekitzea lortu zuen. Bai, berari esker nago orain nagoen tokian. Berari esker daukagu daukagun guztia. Berari esker ezagutu duzu mundua.

Hainbeste sufriarazi ninduen gizon hartaz ez dut gehiago ezer jakin. Herrian zabaldu zen ni ez aurkitzean bere buruaz beste egin zuela, baina ez da inoiz bere gorpua aurkitu. Nire motxila pisutsuaren erruduna. Zu ere lau horma haien inguratuta bizi zintez nahi zuen animalia. Zu ere bortxatzeko intentzioak zeuzkan burugabea.

Lehengusinarekin hizketaldi luzeak izan nituen. Errealitatera itzultzen lagundu zidan. Azkenean ulertu nuen zergatik eraman zidaten animalia horren etxera: nire aita zen. Bai, zikin hori nire aita zen.

Bost urtez ezkutatu dut daukadan gaixotasun hau. Minbizia daukat. Bularreko minbizia. Ez nuen uste nirekin bukatuko zuenik, baina badirudi oker nenbilela. Badakit ez zaidala askorik falta. Badakit laster beste nonbaiten egongo naizela.

Gogora nazazu urte hauetan izan naizenagatik. Gogora nazazu zure ama izan naizelako. Guztia eman dizudalako. Babestu izan zaitudalako. Maite izan zaitudalako. Maite zaitudalako. Maitatuko zaitudalako.

Gutun hau irakurtzen duzunerako joanda egongo naiz. Gauero zerura begira dezazun nahi dut. Izarrak distiratsuen izango naiz. Bidea argituko dizun izarra. Babestuko zaituena. Begira ezazu zerura eta zurekin egongo naiz behar nauzun bakoitzean. Zaindu zeure burua, eta zaindu gainerakoak.

Egon bakarrik behar duzunean, zure bakardadean hegaz ari den txoria izango naiz. Egin negar behar duzunean, nik nire eskua luzatuko dizut. Egin amets behar duzunean, koloreen munduko atea irekiko dizut. Haserretu zaitez beharrezkoa denean, nik ulertuko dizut. Egin barre behar duzunean, nik ere barre egingo dut. Ez zaitut inoiz ahaztuko. Agur, txiki.



Jone Irigoien
Batx. 2. maila

“Biderik luzeena ere pauso batez hasten da”

URTARRILAREN LEHENENGOA, 8 HILABETE.

- Neska izango da.

Une erabagakigarria zirudien hark. Poztasuna, barre algarak, intziriak, hunkipena, besarkadak... Une horretan bertan hasi ziren ere estereotipoak.

- Nik pijama arrosatxoak erosiko diot!

- Nik Barbie bat oparituko diot, berarekin jolas dezan!

- Ba, nik, zapatatxoak eta soineko arrosa! Belarritakoak ere egin beharko dizkiogu!

Horrelako hainbat iruzkin entzun ahal izan nituen, baina, mutila izango banintz, zer? Ziurrenik kotxeak, Action Man-ak, eta erroa urdinak besterik ez lituzkete aipatuko ahots haiek, eta balegoke norbait futbolaria izango naizela esango lukeena.

Nire izena erabakitzeko ere komeriak izan dira. Neskaren izena izan behar zuen, noski. Maialen, Amaiur, Katalin, June... azkenean badirudi Irantzu izenak hartuko duela toki ene nortasun agirian. Hala ere, entzuten ditut ere Xabat, Ibai, Unai eta antzeko izenak, baina horiek mutilenak ohi dira. Behin eta berriz galdetzen diot nire buruari, zein ote den nesken eta mutilen arteko izenen ezberdintasuna, baina ez dut erantzunik aurkitzen. Hala ere, badirudi mundu bitxi eta ezezagun horretako jendeak argi eta garbi ikusten duela zalantzagabeko berezkotasuna.

Bai, 8 hilabete daramatzat jadanik hemen barruan. Oraindik ez dut igarri neska eta mutila izatearen ezberdintasuna non egongo den, nagoen tokitik

ahotsen arteko ezberdintasuna baino ezin baitezaket antzeman, baina aipatu dudanagatik esan daiteke jaiotzaz garelako ezberdinak. Koloreek edota jostailuek ezberdintzen gaituzte antza, baina nik oraindik ez dakit zein den Action Manaren edo Barbiaren ezberdintasuna, edo urdina eta arrosa koloreen artekoa. Agian nahiago dut urdinez jantzi eta kotxeekin jolastu. Baina kanpoko mundu horrek begi txarrez hartuko ninduke, behin eta berriz goraiatzen duten arren euren buruargitasuna eta aurrerapen soziala, nik neuk heldutasun gutxikoa deritzot ekintza honi.

Gogora ditzakedan hile hauetan zehar ni oso gustora egon naiz bertan. Lekua iluna da, txikia ni bezala, eroso... Organoak garatuta ditut jada, bi esku antzeman ditzaket, hainkatxoak, sudurra, begiak... Eta dagoeneko garuna ere landua dut. 8 hilabete luze amaren barruan, istorioak partekatzen, bere ametsak, ilusioak, negarrak, haserrealdiak... guztiak bere ondoan egiten. Ondo baino hobeto ezagutzen dudala begibistakoa da. Ordura arte bere sentimenduak eta pentsamenduak ezagutzeko aukera baino ez dut izan, baina entzun dudanez, hilabeteren buruan bere besoetan egon ahal izango naiz, bera besarkatu, eta hilabete hauetan guztietan zehar konpartitu ditugun gorabeheraz gozatu. Estimua handia diot ama izango dudana pertsona honi, izan ere, berataz gain pertsona gutxi ezagutzeko aukera izan dudana arren, inork baino hobeto zaintzen nau, eta nitaz arduratzen da uneoro. Esan bezala, dena dena kontatzen dit, triste dagoenean negar egiten du, laztandu egiten nau, eta une askotan bertatik irten eta bere ondoan nagoela esateko irrika sentitzen dut.

Mundu erraldoia dirudien horretan gertatzen den oroz jabetzeko abagunea ere badut, nahiz eta begi hutsez honi so egiteko aukera oraindik azaldu ez zaidan.

Krisia omen dago nire mundu txiki honetatik at. Jendeak besteen gainetik igaro behar du bizimodu ona lortzeko, janaria eskuratzeko, lan ona eduki ahal izateko... Eta hau guztiaren abiapuntua ikasketak dira. Ikasteko gaitasunaz hornituta ez dagoena, hezkuntza sistematik kanpo geratzen da, lan duin bat eskuratzeko aukerarik gabe. Nahiz eta gai baten aditua izan, ikasteko gai ez bada, kanpoan geratzen da, eta honek sorrarazten du konpetibitatea, bestea baino hobea izatea eta kontsiderazio eza. Berdin zaigu bestearen sufrimenduak, guk aurrera egiten dugun artean.

Entzun, etengabe entzuten dut honelako zerbait, baina ez naiz ulertzeko gai. Hemen barruan nik ez dut inorekin burukatu behar. Zergatik ezin daiteke kanpoan berdin izan? Jende asko egon arren, elkarri lagun geniezaiokeela uste dut, janaria konpartituz eta ondasun materialak elkarbanatuz.

Harritzen nauen beste gai bat ezberdintasun soziala da. Aberatsak eta txiroak. Amak telebista pizten duenean, Afrikan milaka ume gosez hiltzen direla entzun ohi dut. Nire etxean ordea, ez dut horrelakorik somatzen, hortaz, ez dut

inongo oztoporik ikusten gaizki pasatzen ari den jende honekin solidarizatu eta onurak guztion artean elkarbanatzeko.

Baina esan bezala, badirudi mundu krudel horretatik bere burua goraiatzeko diharduen jendeak ez duela gupidarik sentitzen ondokoagatik. Norbere burua eroso eta ondo mantentzearekin nahikoa duela.

Hala ere, GKE-ak eta antzekoak ere existitzen dira, kontzientzian besteentzako tokia duten pertsonengandik sortuak. Badirudi behar dutenei laguntzeko kanpainak direla, eta oso ondo deritzet, izan ere, aurrerapauso bat izan daiteke guztion ongizaterako. Baina zer gertatzen da kanpoko arazoekin itsutu eta gure ondokoa ikusteko gai ez garenean? Askotan burua hirugarren munduan edo ekonomia arazoak dituztenetan murgiltzen dugu, gure alboan daukagun pertsonaren sufrimenduari ateak itxiz. Bikain aurkeztu nahi ohi du jendeak norbere burua besteen aurrean, hirugarren munduagatik edozer egingo lukeela sinestaraziz, bitartean, bere beharra duen pertsonari ateak zarratzearekin bat lepoa emanez. Horrek dirudi gaur egungo jarrera, lehen aipatu bezala, konpetitibitateak gure albokoaren sufrimendua estaltzen du, eta lagunik minena arerio bilakatzerainoko indarra izan dezake.

Urtarrilaren seigarrena, 8 hilabete eta 6 egun.

Ahots hori, hainbeste gorroto dudan ahots hori, hurreratu egin da berriz. Atetik sartu da eta amaren ikara sentitu ahal izan dut. Hitz jariora izan dute bien artean eta berriro ere, min egin dio amari, bere duintasuna erabat ahaztuz. Amak negarrari ekin dio, arren bere bizitzatik alde egiteko eskatuz, baina gizonak ostiko batez erantzun dio. Oihuka jarraitu du, ulergaitzak zaizkidan gauzak amari leporatuz. Hala ere, badakit ezer onik ez dela, amaren sufrimendua nabaritu baitezaket. Amak baketan utz dezan ihardetsi dio berriro ere, baina gizona areago haserretu eta berriro ere mindu du. Jarraian alde egin eta ama bertan utzi du, lur jota, negarrari ezin eutsiz, bizitzeko gogoen erroak aurkitu ezinik. Ohera sartu eta bere negar malkoak sentitu ahal izan ditut. Baina ez dago bakarrik, ni hemen barruan egon arren, badaki berarekin nagoela, eta beti izango nauela bere alde. Oraindik ez dakit tipo hori nor den, baina amak ene barnean maitasuna txertatu duen antzean, berak gorrotoa eta mina txertatu ditu. Badakit noizbait ezagutzeko aukera izango dudala, nik ere gorrotoz begiratuko dudala, eta nire ama bakean utz dezan lortuko dudala.

Otsailaren hamalagarrenean, 9 hilabete.

Goizaldeko zazpiak izango dira jadanik, hemen barruan ez baitut denbora oso ondo menperatzen, baina amaren iratzargailuak berriro jo du eta nola altxatzen den senti dezaket. Jarraian dagoeneko ezaguna dudana eta nire neba nagusia izango den Xabaten ahotsa entzun dut. Polita da oso bere ahotsa, eta gainera guztiz maitagarria da nirekin, primeran zaintzen gaitu ama

eta biok. Goizero goizero arrapaladan sartzen da amaren logelara eta eskolara joan aurretik muxu ematen digu bioi. Jolastea gustuko du, eta ni jaiotzen naizenean nirekin jolastu nahi duela errepikatzen du behin eta berriz.

Denek diotenez, iritsi da eguna. Barakaldoko Gurutzeta ospitalerako bidean gara, eta ordu gutxiren buruan ama besarkatzeko aukera izango dudala uste dut. 9 hilabete igaro dira dagoeneko, nik lehenengokoak gogoratzen ez ditudan arren. Hainbat gauza ikusi ditut, sentitu ditut... Eta azkenik benetan maite dudan amaren besoetaz gozatzeko aukera izango dut.

Jakingo balu, zenbaterainokoa den berekiko maitasuna... eta zenbaterainokoa bera mintzen ausartu den tipo horrekiko okazadura...

Pixkanaka pixkanaka, baina mugimendua somatzen hasi naiz eta mundu erraldoi horretarantz igartzeko unea heldu zait. Beldur diot, entzun dudan guztiagatik, baina ama besarkatzearen gogoak gailentzen zaizkio beldur honi, eta gogo hauek izan dira hain zuzen ere, azken bultzada ematera lagundu nautenak.

Kanpoan nago jada, ezezagun batzuen besoetan. Eurek moztu didate zilbor-hestea, mantatxo batekin inguratu naute eta azkenean, amaren besoetan utzi naute. Irrikaz besarkatu dut ama, barretxea egin diot.

Ulertu ezin nauen arren, nire maitasun guztia erakutsi nahi izan diot. Gogor eutsi eta bere albotik urrunduko ez naizela zin egin diot ene buruari. Bistan da berak ere antzeko sentimendua duela niganako. Gogoz muxukatu nau, eta jarraian Xabat izena ahoskatuz niregana hurbil dadin eskatu dio honi. Pauso arinean hurbildu da bera, horrenbeste gustatzen zaidan nebatxoaren ahotsa entzun dut pozez gainezka, eta barre algara eskaini diot berari ere.

Eskuetan hartu nau, eta sano ondo eramango garela sentitu dut. Gogo handia nuen Xabat besarkatzeko, eta azkenik gaur izan dut aukera.

Askoz gehiago izan dira entzun ahal izan ditudan ahotsak. Badago bat, haurdunaldian zehar bere alaitasunari esker egun franko bizitu dizkidana, eta gaur bere altzoan izan naiz. Ene aitona da eta oso maite dut bera ere. Hala nola amuma, izeko, osaba, lehengusutxoak... Denak dira hemen eta guztien jarrera oso maitekorra da nirekin.

Oso pozik nago, munduak ez dirudi barrutik zirudien bezain krudela. Ez zirudien, behintzat, ahots hori berriro entzun dudan arte. Ahots higuigarri eta nazkagarri hori, logelan sartu eta amatxori min egitera ausartu zena.

Negarrari ekin diot, hala ere, tipo zital horrek besoetan hartu nau. Nik negarrez jarraitu dut, ahal dudan bezain gogor oihukatuz. Nire aita dela jakin

ahal izan dut, baina nik ez dut maite. Ez dut berarekin egon nahi. Nire amari momentu txarrak igaroarazi dizkio, eta nik sarri entzun ahal izan dut hau negarrez bere erruz, horregatik ez dut maite. Aska nazan aldarrikatuz oihera egin dut ozen, berak ulertu ezin nauen arren. Xabatek ere gogo txarrez erantzuten ditu aitaren galderak eta laztanak, eta oraintxe bertan jaio banaiz ere, nire beregibistatik alde egingo duen eguna itxaroten hasia naiz.

Zorionez, amak ere itsututa zuten buruhausteei uko egin eta ateak ireki dizkio zorientasunari, gaitz guztiak atzean utziz, eta noski, aita bere bizitzatik ateraz, oraingo honetan behin betiko. Xabat eta biok eraman gaitu berarekin, eta gurekin bizitza berri bat hasteko beharrezko diren indar guztiak atera ditu gurekiko maitasunaren erroetatik. Hasieran triste nabaritu dudana arren, ahal ditudan barretxo guztiak eskaintzen dizkiot. Badirudi ondo ulertzen dugula elkar, eta berak ere laster negar malkoak atzean utzi eta nirekin barre algarak elkarbanatzeari ekin dio.

Martxoaren hogeitazazpigarrena, 35 urte.

Amak aurrera atera gaitu Xabat eta biok, eta oso zoriontsu izan naiz bien alboan. Bizitzak ordea aurrera egin du eta bakoitzak bere bidea egin behar izan du. Matematiketan lizentziatu naiz ni, Xabat ordea fisikaria da. Gure familiak ere eratu ditugu. Hala ere, ez dago astebururik amaren etxean igarotzen ez dugunik. Berak esker onez hartzen gaitu, eta bere hilobekin jolasten du, Xabat eta bion infantzia berpiztuz, bere erabakietaz harro sentituz.

Seme alabak izan ditut, familia bat daukat, etxe bat. Milaka dira nire bizitzatik igaro diren pertsonak, eta milaka sentimenduak. Maitasuna, errenkura, dohatasuna, atsekabea... Baina badago bat, badago sentimendu bat, beste guztiei gailendu zaiena. Behin bizia eman zidan, eta jaio aurretik ere babestu ninduen, bizitza osoan zehar egin izan duen bezala. Momentu txarrak eta onak elkarbanatu ditu nirekin, gogorra izan da nire unerik txarretan, eta ni lasaitzeko bere esku zegoen guztia egin du, ene zorientasunagatik bere ametsak alde batera utziz. Berarekiko maitasuna da, hain zuzen ere, bizitza honetan zehar bidaide izan dudana sentipena.

Irailaren hogeigarrena, 55 urte.

Esaerak dioenez, sortzen denak hiltzea zor. Funtsezko pertsona izan da nire bizitzan, eta behin bizia eman zidan moduan alde egin du.

Gaur, nire azken hitzak eskaini gura nizkioke pertsona honi.

“ Egun baten zure eskuei oratuz nire lehen pausua eman nuen, nire lehen elikagaia zure bularrean aurkitu nuen, nire lehen negarrak zure besoetan bukatu ziren, nire lehen zauria zure eskuek sendatu zuten... Hasiz joan nintzen,

nire lehen hitzaren erantzule izan zinen, nire lehen lagunaren testigu, nire lehen azterketaren jakitun... Nire lehen maitasunaren lekuko, eta bihotza lehen aldiz hautsi zidatenean, besarkada batez lasaitasuna eta maitasuna oparitu zenizkidan, zurearen parekorik ez dagoela irakatsiz, aurrera egitera lagunduz.

Aitak aspaldi alde egin zuen zure egunerokotasunetik, eta zure bizitza berregin duzu familiakoen laguntzaz. Hala ere, inoiz ez zaizu maitasunik falta izan Xabat eta bioi eskaintzeko. Inoiz ez zaizu denporarik falta izan gure arazoei aurre egiteko, eta egunero gure janariaz arduratzeko. Harritzekoa da, pertsona bakar bat hau guztia egiteko gai izatea, baina maitasuna edozeri gailentzeko gai da, eta zuk maitasunez jokatu duzu gurekin. Maitasunean hesi gara Xabat eta ni, eta horixe da guregan sortu duzun sentimendua. Maitasuna, zureganako maitasun itsua.

Orain utzi egin gaituzu, eta guri tokatzen zaigu gureei dena ematea, zuk egin duzun bezala. Badakit hitz hauek ez direla asko, zuk emandakoarekin alderatuz gero, baina ez ahaztu, 8 hillabetez haurdun zeuden hartatik eta orain arte emandako guztiak bidea zabaldu didala beldur nion mundu erraldoi honetan, aurrera egiteko behar izan dudan indar guztia oparitu didala, eta garrantzitsuena, honetaz guztiaz zure ondoan gozatzeko aukera izan dudala. Eskerrik asko ama.

Laster arte,

Irantzu “



Ane Ramos Etxeandia
BATX. 2. maila

“ Zure kabuz pentsatzen duzun artean izango zara aske ”

EHIZAZAZU ZURE IRAGANA

Gela hutsik zegoen. Aulki bat besterik ez zegoen, eta ilunpean ikusi ere ez zen egiten. Aulkia beltza zen, diseinu dotorekoa, eta zaharkitutako gela hartan bere edertasun bete betean ikusten zena. Aulki hura gelaren erdialdean zegoen, ez erdi erdian, hegoalderantz pixka bat mugituta baizik.

Tabako beltzaren usain gogorra zegoen gela hartan, nahiz eta inor sartzeko aterik ez izan. Leiho txiki bat zuen hormetako batean, altuegi inork begiratu ahal izateko, baina bazirudien norbaitek eskuratu eta ireki egin zuela. Hala ere, gelak ilunpean egoten jarraitzen zuen, leihoak kalezulo batera ematen baitzuen, non inoiz eguzki izpirik ez zen ikusi.

Tabako beltzez egindako zigarroaren azken kalada gozatzen zuela etxeko atea itxi zuen, ke ilun eta usain mingotsez beterik utziz bere egongela, ke hartan bere arima utzi zuelarik, Sherlock Holmesen antzera. Poltsikoan beste zigarro bat zuen, baina ez zuen beranduagora arte pizteko asmorik.

Eraikina utzi eta erreka hegaletik paseatu zuen, eguzkia jaisten ikusi zuen arte; orduan etxera bueltatu zen, poltsikoko zigarroa guztiz ahazturik. Ez zuen bere arima egongelan uzteko helburua bete.

Etxean, lehenago utzitako usain gogorra atseginez hartu zuen, erantzi eta sofán lo gelditu zen. Goizean inon ez zegoen tabako usainik, bere azalean itsatsita izan ezik. Irlandar whisky txar batez baso bat bete eta bainuontzian sartu zen, irakiten ari zen uretan. Hoztu zenean, hortzak garbitu eta lanerako jantzi zen. Aurreko arratsaldeko jakako poltsikoan aurkitu zuen bere zigarroa, eta horrek animaturik oinez abiatu zen bulegora.

Lankideak agurtu eta idazmakinaren aurrean eseri zen, goiz triste eta hotz hark eragin zizkion usteak paper grisean islatuz. Bere lana maite zuen, idazmakinaren “*krank*” soinuak atsegín zituen, esateko gauza asko dituen mutuaren antza ematen ziotenak. Idazten zuen guztia kontu-kontuz gordetzen zuen, bai argitaratutako artikuluen

kopiak, bai noizbehinka bururatzten zitzaizkion ipuin edota istorioak. Hori dela eta, karpeta zaharrez beterik zuen bere etxeko egongela. Argitaratu gabeko istorioak ziren bere etxeko altxorrik preziatuenak, bere-bereak, inoiz inork irakurriko ez zituenak, filosofo, artista edo zorotzat har ez zezaten.

Karpeta haietaz aparte, bazuen bere etxean inporta zion beste zerbait: heraldo itxurako telefono zahar gorri bat. Bere logelan zuen jarrita, ohearen alboan, liburu zaharren artean, eta etxe guztian ezerk ez zuen telefono hark adinako distirarik, nahiz eta inoiz ez zuen erabiltzen. Etxearen lehenagoko jabeena zen, baina balio berezia zuen beretzat.

Bizitza normala zeraman, tabakoak, whiskyak eta idazmakinak eratutako zurrunbiloan. Bakartia bazen ere, lankideekin harreman adeitsua zeukan, bere eraikineko bizilagunekin hitz egiten zuen igogailuan, eta noizbehinka ezagun horietako batzuekin kafe bat hartzen zuen. Aldian behin, hala ere, desagertu egiten zen eraikinetik, lantokian papertxo bat uzten zuen astebetetz alde egin behar zuela esanez. Inork ez zekien nora edo zertara zihoan, maletarik gabe, bere jaka zaharra aldean zuela, tabako beltzaren usaina zuena. Bere ezagunek familia bisitatzerako joaten zela uste zuten, eta hori errealitatetik beraiek uste baino hurbilago zegoen.

Bere aita eta ama aspaldi galdu zituen, berak zortzi urte bete baino astebete lehenago alde egin baitzuten. Inoiz ez zuen inork zaindu, gurasoak beti lanean ari baitziren, eta ondorioz denbora asko igarotzen zuen etxean liburu artean sarturik, aulki beltz dotore batean eserita. Hauek alde egitean, astean behin zaindari bat joaten zitzaion etxea garbitzera eta hozkailua hornitzera. Batzuetan berarekin hitz egiten zuen, baina gehienetan zaindaria heldu eta berehala bere gelan sartzen zen. Hainbeste denbora bakarrik egon ondoren, bere burua bunker bihurtu zuen, eta behin itxita ez zuen irekitzeko asmorik izan.

Gau hartan, antzinatek ezagutzen zuen pub ingeles batera joan zen, gainerako guztiak bezala tabakoa pipan erre zuen, eta aspaldiko partez whisky ona edan zuen. Bigarren basoa amaitzear zuela, ondoan eseri zitzaion bestea. Ile beltz eta begi are ilunagoak zituen, eta gau hartan konpainia egingo ziolako hitza eman zion. Puba itxi zutenean, etxera bueltatzeko ametssez, bideari ekin zion, baina lehenago hitza eman zuen bezala, besteak ez zuen bakarrik utzi. Etxean, beti bezala, tabako beltzaren usaina zegoen. Zentzurik gabeko hitz pare bat trukatzear aparte, erre eta edan besterik ez zuten egin. Goiza heldu zenean, kafe katilukada bana hartu eta ez zuten berriz elkar ikusi, bata ez zuen inoiz bestearen minik izan; idazmakinan zehar igaro zuen istorio hura ere, eta gainerakoekin batera karpeta zahar baten gorde zuen.

Bere gurasoak zirela uste arren, gizon eta emakume haiek atean aurkitu zuten behinola ume bat hotzez gogorturik, eta beraientzako hartu zuten. Aita eta ama izango balira bezala jokatu zuten berarekin, baina ume hura beraien esperimendu bat besterik ez zen izan. Biak zientzialariak ziren, neurologoak, burmuinean adituak. Beraien eginbeharra memoria ezabaketa ikertzea zen, jendeari sufriarazten zioten oroitzapenak ezabatzea zuten helburu alegia. Behin jaberik gabeko umea aurkitu zutenean, beraien esperimendu handienari ekin zioten eta umearengan bizitzako lan guztia martxan jarri zuten. Denbora asko egon ziren umea mimatzen, berarekin jolas egiten zuten, baina umea gero eta nagusiagoa zen, eta laster bere kabuz pentsatzeko gai izango zela uste izan zutenean, laborategira eramanez eta oroitzapen on guzti horiek ezabatu zituzten.

Egun batean, whisky basoa eta tabako beltzezko zigarroa esku banatan zituela, bere bizitzan pentsatzen hasi zen, inoizkorik eta galderarik ohikoenak eginez bere buruari: nor naiz ni?, nondik nator?, nora noa?, zer da bizitza? Eta lehenengo aldiz bere iraganean pentsatzen hasi zen. Ordu askotan zehar hausnartu zuen, liburu asko besterik ez baitzuen gogoratzen, baina halako batean, mezu subliminal bat izango balitz bezala, irribarre bat, emakume baten irribarre bat igaro zitzaion begien aurretik, hain bizkor ezen dudatan egon baitzen horrek esan nahi zezakeenaz. Egun horretatik aurrera, eta ia egunero, whisky eta tabako artean, beste norbaiten bizitza izan zitekeen bat osatzen hasi zen, irudi eta asmakizunez josia, baina azken finean, berea zena. Irudi horiekin guztiekin mosaiko erraldoi bat eratzeari ekin zion, sarea josten duen aramuaren antzera, datu guztiekin. Letrak, zenbakiak, irudiak, argazkiak bateratu eta aztoratuta idazmakinan zehar igarotzen zituen, ahaztuko zitzaizkion beldurrez; gero bere karpitetan gordetzen zituen. Eta, nola bestela, gogoratutako datuek zentzuzko zerbait osatzen zutenean, guztiz itsututa haren atzetik joaten zen, lantokian papertxo bat utzi eta bere iraganaren ehizan abiatzen zen.

Jende askorekin hitz egin zuen, gaztetako zaindaria ere aurkitu zuen, eta bere bizitza zen puzzle erraldoia osatuz joan zen, dortoka baten pazientziatz. Gutxika-gutxika puzzle hori osatuz joan zen, jada bizi ez den pertsona baten bizitza eraikiz joango balitz bezala, bere gurasoengana heldu arte -bere gurasoak uste zituenak-. Telefono zenbakia eman zien ikerketa bidean aurkitu zituen guztiei, eta inoiz egia guztia jakinez gero, dei egiteko eskatu zien.

Eta, telefonoak jo zuenean, inoiz inork ulertuko ez zuen logika eroaldi batean, tabako beltzezko zigarroari azken kalada eman eta bere etxeko sofan utzi zuen. Ke beltza eta su txikia aditu zituenean etxetik alde egin zuen, bere filosofo eskolatik, bere artelanen biltegitik, bere zoroetxetik. Atea itxi eta poltsiko batean azken zigarro bat eta bestean irlandar whisky txarraren botila zituela ziurtaturik, azken urteetan egin ez zuen bezala egin zuen barre, eguzkia irteten ikusi zuen arte.

Hurrengo egunean, kalezulora ematen zuen leiho txikiko gelako aulkia izkina batean, ostikoz botata bezala, agertu zen, leihoa itxita, baina inoiz ez zen inor horretaz konturatu. Ez zegoen aterik hara sartzeko.



Ander Ponte
Batx. 2. maila

*“Askatasuna gure eskuetan, zoriontasuna gure barnean
eta euskera bihotzean”*

New era, askatasuna

Gaua zen ordurako. Thomas Kant detektibea etxean zegoen bere azkenengo kasua buru-belarri aztertzen. Gutxi izan ziren Thomas-engan konfiantza izan zutenak. Atzerritarra zenez, Australiarra, Canberra hiriburuko auzo pobreenetakoa, ia inork ez zuen espero izan horrelako kasu ilun eta ikaragarria aurrera ateratzeko gai izango zenik.

Baziren zortzi urte heldu zela Estatu Batuetara, New Yorkera hain zuzen ere. Kazetaritza ikasitakoa zen Sidneyko unibertsitatean, bere gurasoen aurrezkiei esker. Hauei dirua itzultzeko promesarekin, kazetaritza gradua amaitu bezain laster, “Australian” izeneko aldizkarian bere lehenengo artikuluak argitaratzen hasi zen. Hala ere, ez zuen ospe eta izen handirik lortu, ez bere artikuluak eskasak zirelako, baizik eta bere azalaren koloreagatik. Beltza zen. 1956. urtean ez zegoen ondo ikusirik beltza izatea gizarte zuri batean. Gogorra izan zen bere haurtzaroa, baita bere gaztaroa ere.

Hiria bitan banandurik zegoen, zuriak alde aberats eta garatuan, eta beltzak berriz, alde txiro eta zakarrean. Familiaren diru sarrerak oso murriztuak ziren. Aita meategian jarduten zen, eguneroko bi zentimoko irabaziak lortzen zituelarik. Ama, berriz, noizean behin zuriaren etxeren batean sukaldaritzan ibiltzen zen, esperantza handirik gabe, ordaintzen zioten diru apurra zela eta. Gainera, lau neba-arreba mantentzea nekagarria eta gogorra zen oso. Hori zela eta, egun osoak igarotzen zituen Thomas-ek lanean auzoko zaborrontzietatik metalak ateratzen.

Sentsazio arraroak etortzen zitzaizkion burura Thomaseri txostenari azken begirada ematen zion bitartean. Pozik zegoen Canberratik alde egitea lortu zuelako, baina bestetik hutsune falta handia sentitzen zuen bihotzean, gurasoak beragatik egindako esfortzu guztia zela eta. Barne-barnean, gurasoen falta sentitzen zuen. Gogoan zuen oraindik ikusi zituen azkenengo aldia. Itsasontzia hartzekotan zegoen, beste mila pertsonekin batera. Beltzak guztiak.

Amets ugari zebilizkion buruan barrena. Helburu berriak, bizitza berria. New York-eko ``Tanzania`` egunkariko zuzendariak, Thomasen artikuluak irakurrita, interes handiarekin eskaini zion lanpostua kazetari moduan. Thomasen poza ikaragarria izan zen, baita bere familia osoarena ere. 1957. urteko apirilaren 8an hartu behar izan zuen Amerikako Estatu Batuetara eraman behar zuen itsasontzia, Canberrako alde zaharreko portuan.

Itsasontzian zegoela, urrunean begiztatu zuen bere familia. Familia arrunta zirudien, beste ehundaka familiaren artean. Kotoiz egindako prakak eta alkandorak zeramatzen, eta langile txapela ere. Negarrari ezin eutsirik, agur egin zien eskuarekin. ``Agur, agur`` oihukatu zuen zarataren gainetik. Han zegoen bere familia, agurtzen, jakitun bere semea berriro ikustea ia ezinezkoa izango zela. Itsasontzia martxan jarri zen, eta handik hamar minututara, Thomasek bizitza bat atzean utzi eta beste bat hasten hasi zen.

I

Telefonoa hartu eta deitu zuen.
-Bai?-esan zuen ahots ezagun batek.
-Neu naiz, Thomas!-erantzun zuen- Azken begiratua eman diot txostenari eta hainbat ondorio lortu ditudala uste dut.

Hori esaten zuen bitartean ,mahai gainean zeukan pistola begiratu zuen. Detektibe izan baino arinago, ``Tanzania`` egunkarian bost urte lanean ibilitakoa zen. Hilketak kasu ugari argitaratu zituen denbora tarte horretan. Hilketak gehienak beltzen aurkako ekintzetan gertaturikoak izan ziren. 1960ko hamarkada, hamarkada odoltsua moduan ezagutzen zen. Beltzak alde guztietatik hiltzen ari ziren, ez bakarrik New Yorken, EEBB guztian zehar ere. Detektibe bilakatzea iruditu zitzaion modurik egokiena hiltzaileak aurkitzeko eta kartzelan sartzeko.

- Atzo atxilotutako pertsona, John Morris, askatu behar izan dugu- ezagutzera eman zion HHY-ko buruzagiak- Ezin izan dugu ezertaz salatu, ez baitugu inolako frogarik aurkitu.

- Lasai, Paul, aurkituko dugu hilketen erruduna! Ezin dezaket luzaroan telefonoz hitz egin, norbait entzuten egon daiteke eta!

Eskegi baino arinago, Times Plazan geratuak ziren hurrengo goizeko hamarretarako. Gau osoa zeukan aurretik. Pistola gabardinaren barruko poltsikoan gorde zuen, tabakoarekin eta karterarekin batera. Buruan bueltaka zebilkion ideia misterioitsu bat zuen. Azkenengo hiru hilketek nola edo hala erlazioren bat eduki behar zutela iruditzen zitzaion. Hildakoak beltz mugimenduetako buruzagiak zirela kontuan hartuta...

Kalera irten zen. Farolen argi distiratsua izpiz bustitzen zituen kaleko bazter guztiak. John Morris... beltzen kontrako talde armatu baten partaidea zen. Berarekin hitz egin beharko zuela pentsatu zuen. Taxi bat geratu eta errepeidea barrena galdu zen.

II

Heldu zen. Taxi gidariari bi kale harago geratzeko eskatu zion. Ordaindu eta irten zen kotxetik. Hotza egiten zuen. Gabardina ondo estutu zuen eta poliki-poliki etxe zahar batera hurbiltzen hasi zen. Hainbat argi zeuden oraindik pizturik. Begirada bat bota zion urrunetik. Ez zen erreza izango.

Etxeari inguru bat eman ondoren, atzeko atetik sartzea iruditu zitzaion egokiena. Pixkanaka-pixkanaka, zarata atera gabe, heldu zen atzealdeko atera. Esku trebeak zituen atea zabaltzeko. Bat, bi, hiru... atea zabalik zegoen. Orain zailena geratzen zitzaion. Hormetara itsatsirik igaro zituen hutsik zeuden gelak. Pistola poltsikotik atera eta aurrera jarraitu zuen. Han ikusi zuen John Morris sofan eserita, telebistan ematen ari ziren film bat ikusten. Astiro-astiro atzetik hurbildu zitzaion.

Pistolak burua ukitu zionean, buelta ematen saiatu zen baina Thomasek gogor jo zuen. Kikildurik zegoela iruditu zitzaion Thomaseri.

- Aspaldiko- agurtu zuen modu sarkastiko batez Thomasek.
- Zer nahi duzu, txakur zikin horrek?- galdetu zuen John-ek, Thomasengandik urruntzen zen bitartean.
- Egia.
- Zoaz pikutara, labe zomorro nazkagarria!-oihukatu zuen logelaren beste aldetik Johnek.
- Erruduna, zuk nor den badakizu ezta?- begietara begiratuz- Hiru hilketen erruduna!

Pistola Johni begira jarri eta tiro egin zuen. Hankan jo zion balak. Mindurik oihu egin zuen eta lurrera erori zen.

- Hau bera sentitu zuten hil zenituzten pertsonak ere- Johnengana hurbildu eta alkandoratik tira egin zion, bien begiradak gurutzatuz- Esaidazu, bestela hurrengoak zure buruan amaituko du!!

- Beltz nazkagarria -kostata hartzen zuen arnasa Johnek- nirekin hilobira eramango ditut nire sekretuak.

- Ongi!-beste tiro bat eman zion hankan- eta orain?

III

Etxera heldu zenerako, argitzen ari zen. Lo-kuluxka arina botatzeko gogo biziak zituen. Hala ere, pozik zegoen. Nahi eta behar zuen informazio guztia zeukan. Ez zen oso zaila izan. Harroputz izaera zeukan Johnek, baina benetan kakati hutsa zen. Portalera heldu eta atea zabaldu zuen.

Ez zegoen inor sarreran. Eskailerak igotzen zituen bitartean, mundua aldatzeko zer edo zer egin behar zela pentsatzen ari zen. Bazekien utopia hutsa zela mundu perfektua lortzea. Beti egongo ziren pentsaera eta ideologia desberdinak zituzten pertsonak. Ama lurrak sortu zituen izaki guztiak, gizakiak barne. Eboluzioaren ondorioz, gizakien artean desberdintasun ugari sortu zituen, bai azaleko koloreari dagokionez, bai pentsatzeko eran ere. Horrek, ordea, ez zuen esan nahi arraza batzuk besteak baino hobeak direnik, arrazak desberdinak izanda ere.

Horrela heldu zen bere etxera. Pertsona batek ezin dezake mundu perfektua lortu, baina mundu hotz eta beldurgarri hau apur bat hobetzea pertsona guztien eskuetan dago. Sofan bota eta lo seko geratu zen.

Iratzargailuak esnatu zuen. Berandu zebilen. Arineketan alde egin zuen etxetik eta Times Plazara jo zuen. Heldu zenean, han aurkitu zuen bere adiskidea.

- Zer moduz Joe?-agurtu zuen Thomasek.

- Sentitzen dut -eskua poltsikora eraman eta pistola bat atera zuen-, hil egin behar zaitut!

Harridura aurpegia geratu zitzaion Thomaseri. Bere lagunak saldu egin zion.

- Ondo ordainduko zizuten ezta?- galdetu zuen Thomasek, denbora lortu nahian- errudunaren aurpegia ezkutuan geratu dadin. Hala ere, badakit nor den erruduna. Biharko egunkarietan agertuko da, irratian...Harrapatuta zaude, Jonas Gant!! Zu zara, polizia buru jarduten zarelarik, hilketak agintzen dituen. Beltzak nazkagarriak direlako eta esklabo moduan nahi dituzulako...

Bat-batean tiro hotsa entzun zen. Thomas lurrera erori zen, bala bihotzean barrena sartzen zitzaion bitartean. Euria hasi zen. Mundua iluntzen ari zen. Begiak azkenengo aldiz zabaldu eta Jonas Gant korrika urruntzen ikusi zuen.

Ez zen amaiera izan, beltz askatasunaren hasiera baizik.



Gorka Madariaga Ikarán
Batx 2. maila

“Kontuz! Chaten bidez adarra jotzeko ohitura modan omen dago-eta!

KLIK ETA KLIK

Patuagatik edo, bat-batean eta ezusterako, nire burua jiratzean ikusi zaitut. Orduan, ibiltzeari ekin diot, eta baita zuk ere. Denak gure inguruan beste xarma bat eraldatu du. Gelako leihotik datozen eguzki-izpi indartsuek nire bihotz taupaden erritmora igortzeari ekin diote, eta gure pauso lotsatiek ere bai. Existentzia orok zerbait bereziren pultsua jarraitzen duela esan genezake.

Gure eskuak airearekin kontaktuan dantzan jarri eta bihotz parean gelditu ditugunean, bai zureek eta nireek bat egin dute. Zure gorputzeko beroa sentitu dut nigan, eta nigana hurbiltzean, nire belarrietara zuzenduta zure ahoa aurrez-aurre jarri duzunean, eta nik suabe-suabe begiak itxi ditudanean, zure ahotik hitz egitean datozkidan putz beroek hotzikara bat eragitearekin batera, kili-kilia sorrarazi didate. Ez da askorik pasa kili-kilia gorputz osora hedatu eta tripa aldean tximeletak dantzan sentitu ditudan arte. Bizitza osoa eta geroa alaitu didaten bi hitz ahoskatu dizkidazu ezteki: maite zaitut.

Bat-batean, bultza egin nauzu, eta kotoizko ohearen kontrako inpaktua hain izan da gogorra ze, nire bihotzak gogor taupatu du: taup! Bero erotikoak nire zentzumenak ehuneko ehunean jarri ditu, eta zergatik ez, bideo pornoetako neska lirainen lez irudikatu dut nire burua: “hot, hot, hot! Absolutely horny my baby!”.

Beheko ezpain aldea hortzekin urratzeaz batera, lehentxeago aplikatutako ezpain-barra gorria nire listu tantatxoekin kontaktuan jartzean, disolbatu egin da, eta uneari aldirik utzi gabe musukatu zaitut, pasio osoz: mua!

Teoria, mito eta testimonio anitz irakur daitezke lehen musuari buruz, eta beti edo ia beti kontrako bizipenak narratzen dira, hala ondorioztatu nuen behin behintzat “Yahoo Respuestas” delako web orrialde batean. Nire kasuan, aldiz, lehen musuaz mintzatu beharko banu, ez nuke jakingo zer erantzun, mutila gogoko bainuen, baina mementoak eta inguruak zerikusi handia dute. Horretatik abiatuz, bizitzak jaio, hazi, ugaldtu eta hiltzeko eman didan aukera baliatuz, egunak joan eta egunak etorri, denboraren poderioz, hurrengo asimilazio hau proposatzeko, hausnartzeko eta orain aditzera emateko une hau baliatzea gustatuko litzaidake: maitasuna ez da bukatutako

ipuina, etengabe idazten den orrialdea baizik. Nik, behintzat, idazten jarraituko dut, eta zuk, irakurletxo?

Musu kartsu hori hasi eta amaitu dugun gogo berarekin burututakoan, gar guztia gure ezpainen laztantzean gupidagabe ito dugunean, atsedinari, lasaitasunari, eta batez ere, ez pentsatzeari laga diogu. Lepoa musukatu didazu beraz, nik burua atzera bota bitartean, eta zuk tentaldiari eutsi gabe blusa zuria atzaparkada batez puskatu didazu aldiri-unean. Musuz hornitu nauzu segituan, bular-aldea, sabeltxoa... Zilborrean dudan piercing-a ere musukatu duzu. Sexologorik adituenean diotenez, dermisa da plazer handiena sentitzea bideratzen duen gure gorputzeko atala. Eta, bai izan liteke!

Maitasuna sutsu egin nahi duzun seinale, elastikoa gainetik kendu duzu, eta kentzearekin batera, emakume kontserbadorearen rola bota eta zure gainera egin dut salto. Zure gainean gimnasioan eman dituzun orduak begiztatu ditut, zuk gosez nire begirada basatia segitzen duzun bitartean. Bat-batean, lepoa mugitzera, ilea harrotu dut, eta geldialdirik gabe nire eskuak zure abdominal landuen gainean fuertez igurtzi ditut, sexual-sexual. Jarraian, eta zure zuhurtziarako nire bularretakoa kendu dut, geldiro-geldiro... Zu adurra darizula geratu zara. Ez diozu hortaz tentaldiari eutsi, gizon lasaituaren papera gogoko ez eta gizon basatiarena berreskuratu nahian, jakinda ni mantsoa zein arina izan naitekeela eta, biak gustatzen zaizkidanez gero, berriz ere kotoizko ohearen aurka zuri begira egotera behartu nauzu. Orduan zure helburua lortu ostean, bion nahia ase guran goitik behera musukatu dizkidazu titiak. Denbora eman dugu horretan: belarrira nire titipunta arrosatxoak gogoko dituzula esan, nata pixka bat ezarri, eta miao-miao, goxo-goxo dauden seinale.

Total kitzikaturik gaude jada, eta plazer infinitu honi sentimendu utopiko bat gehitzeko bidean zure prakak erantzi dituzu, eta baita hortik beherako guztia: zapatak, galtzerdiak... Nik ere zure objektiboa segitu dut, eta biok jainkoak mundu honetara ekarri gintuen lez geratu gara: larru gorritan.

Nire irri maltzurra esperokoa izango da beste norbait nire lekuan izanda. Izan ere, matematikan hain ona naizenez gero, 25cm luze eta 7cm zabal argi eta garbi neurtzen ditu zure beheko parte preziatu horrek. Eta, loteria tokatu zaidanez gero, sariaz gozatzeko aukera ere heldu da, eta kalitateaz edota nire matematiketakarako dohainak frogatu ditut, denek nahiko zutena nire ahotxoan izan dudanean. Gora eta behera mugitzen dizut, bai ahoaz zein eskuaz. Ederto baten gozatu duzu zuk, maitea.

“La Deboh to: Kaka zaharra! Txotxo, ez zaitez pasa, zergatik zurrupa beharko nizuke nik zuri, eta zergatik ez zuk niri, nik goza bitartean? Mutilak... Beti gauza berean pentsatzen! Zerbait desberdina, mesedez! Originaltasun pixka bat, bederen. Tira, nazkatu naiz, agur!

Elefante tronpa: Ez! Mesedez nire azukre koskor, ez zaitez joan! Zer deritzozu jarraipen erromantiko honi?”

Eta, ez dakit zelan demontre maitea, baina bat-batean nire gainean ikusi zaitut begiak ireki ditudanean, gustura gaudenean mementoak hain dira laburrak ze, ia ez bainaiz jabetu zeruaz: larruazalen fereka, ezpainen laztantzea... Zure zakil handia nire

bagina artetik barneratu didazunean, inoiz sentitu ez dudan plazerik handiena sentitu dudanean... Gela zure garrasi grabe eta nire oihu agudoek maitasunez hornitu dute. Jo eta ke aritu gara. Azkenean, zure semen likatsuak freskagarritasun pixka bat eskaini dit. Orduan, gorputzetatik beroa iragan da, eta eguzkitik datozen izpiek bere xarma naturala berriz berreskuratu dutenean, eta euren beroa gure larru biluzietan sentitu dugunean, odei bat bezalakoa den ohean etzanda egon gara. Larrutan egin dugu. Baina, ekintza hori ez da garrantzitsuena, neurea besterik ez zarela sentitu baitut, maite nauzula eta maite zaitudala, hain zuzen ere. Bata bestearentzat eginda gaude, eta biok ondo egoteak ematen digu plazera: zoriontasuna.

“Elefante tronpa: Jo tia, zoragarria da. Ez al dun uste?

La Deboh to: Txo mutil, ez zaitez hainbeste emozionatu gero... Chat lizun horietako batean baikaude nire lagunak eta ni barre algaraka ia negarrez ere, zu bezalako txerrikiak bizitza errealean saihestu nahian, alegia. Lehenik eta behin, ez dut uste zure txilibitua hain handia izan daitekeenik. Bigarrenez, zurrupatu orde ez ebaki egingo nizuke. Hirugarrenez eta bukatzeko, laztana, seguru nago guztiz zut daukazula honezkero, baina tentaldiari eutsi beharko diozu, izan ere, hau istorio soil bat besterik ez da!”

“ERREALITATEA”

(Egilea: Gorka Madariaga Ikarán)

Eguzki Amandreak,
mendi magalen artetik
isil-isilik, pausaz, ateratzean denean,
jalgitzen du
izpi firñir bat,
zeru infinitu urdin batean,
aurpegi hits eta zurbila
bere epeltasunarekin emeki ferekatu arte.

Nahiago izango litzateke ordea,
kotoizko ohean geratzea,
errealitate gordinari kasurik ez egitea,
mundu irreal baten bizitzea.
Halere, ez dago erremediorik,
denok nahiko genukeen mundua atzean laga,
eta egunari egunonak
desiratzea baino.

Badira bai munduan
bizitzeko grina galdu dutenak,
eta nonbait baizik,
hurbil baino gertuago.

Bada neskaxa bat:
ile basatitsua,
begirada umil galdua,
liraina zalantza gabe,
bere aitaren etxea
atzean laga,
eta Gabriel Arestirenera
sartu dena noraezean.

Diru barik,
galdurik, beldurturik,
negozio zikin batean murgildurik.
Gizonezkoei zakila txupatzeak,
sexua eurekin praktikatzeak,
ematen dizkion sos apurrengatik,
birjinitatea galtzearren
oraindik are gehiago eskaintzen diotenagatik.

Lehenengo aldia lapurtuko diote,
ez du maitasunean sinetsiko,
ezta adiskidetasunean.
Sentimendu gabe
objektu sexual esplotatua izango da,
zorigaitzekoa.
Baina, halere,
ez zaio askorik inportako.

Argiaren ñirñirraz,
intriga mutil harengan.
Zalantzaz begiratzeko,
islatu zaio bat-batean.
Barnera iragan zaizkio
ortzadar koloreak.

Bere egoeraz jabetuta,
beste mutil bat ikustean,
patuaren onarpena.
Autoestima handitzea,
norbere burua errespetatzen hastea,
bidean da eudemonismoa.

Horma irauli;
lotsa, nahigabea, atsekabea,
koldarkeria, alukeria, beldurra...
ausardiarekin batera,
maitasuna;
zoriontasun gorena.

Larruazalen fereka,
ezpainen laztantzea,
utopia;
plazera, gozamina, bizi poza...
oh! Hura beregan
eta bera harengan.

Egina da.
ez dago atzera bueltarik.
gizakia da,
ez perfekzioa,
bere bekatu bakar,
izatea.

Bada hemendik
neska bat.
Edertasunaren gatibu,
neurri zehatzetan mugatua,
90-60-90

Neurri horiek jomuga dituela,
ispilura hurbildu,
eta badago ustetan zer hobetu:
mitxelinak, esku handiegiak...
Beldurraren isla dira.

Erremedio gisa,
aho-zuloan behatza sartzea,
botaka egitera behartu,
irtenbide gabeko tunel batean murgiltzea
azken emaitza.

Jolas bat bezala hasten da,
pisua galtzen,
baina denboraren poderioz,
anorexia eta bulimia
zein baino zein hilgarriagoak.

Kalean dago umea, jendez inguraturik,
baina aldi berean ederki isolaturik,
bakar-bakarrik.
Denen jomuga da, edozein une da-eta hura iraintzeko egokia,
jendeak beragatik barre egin dezan.
Esan ere ezin dezakeen iraina da.

Ekaitz zital eta arrotz baten antzean datorkion jipoia da,
mina sentitzera behartzen diona.
Negarrez hasteko gogoia,
dena aitortu ezinaren amorrazioa,
amesgaizto horri amaiera emateko nahia...
Hiltzeko desira. Bere buruaz beste egitea.

Zenbat kasu egongo ote daitezkeen hausnartzen,
gizarteak baztertzen dituen gai hauen prototipoa ez denik.
Jada ez baitakit nola esan,
badela gugandik hurbil
prostituta asko,
homosexual anitz,
anorexia daukaten beste horren beste,
jipoitzen ari diren beste batzuk.

Edota badira
etorkinak,
umezurtzak,
tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak,
pobreak...
Eurengatik, neugatik eta zeuengatik poema hau
ez baitugu jada ezer aldatzeko idazten,
bizirik gaudelako baino.



Jasmina Sanchez

Batx. 2. maila

“Bizi itzazu ametsak, amestu beharrean”

ZORITXAR MADARIKATUA

Pertsianaren zirrikituetatik izpiak sartzen ziren, izpi indartsuak. Eguraldi ona zegoen, edo hori uste nuen. Izpiek begietan min egiten zidaten. Burua bueltaka neukan. Zarata fin bat entzuten nuen inguruan, piiiiiiii. Zarata hori segika neukan, ezin nuen aldamentetik kendu. Ezin nuen burua altxa, hamar kilo izango balitu bezala pisatzen zuela sumatzen nuen. Momentu batetik bestera nire aurpegi zurbileko gortinak altxa ziren. Argitasun handia zegoen. Zuria, zuria eta zuria. Zuria zen dena. Zeruko egongeletako batean etzanda nengoela pentsatu nuen. Metro eta laurogeiko hodei bigun batean etzanda nengoen. Erlaxaturik eta siestatik jaiki berri. Ez nuen ulertzen nola nengoen hodei hartan, ez nuen ezer ulertzen. Burua galduta neukan. Oroitzapenetan murgiltzea erabaki nuen. Baina ezer ere ez. Ez nintzen ezertaz akordatzen, ez nuen memoriarik. Nire bizitza “zero” bat izan zela pentsatzen nuen. Baina bizitzarik eduki al nuen? Ez nekien, ez nekien ezer.

Begiak itxi eta ireki nituen. Segundo batzuen ondoren burua hirurogei gradu eskumarantz biratzea lortu nuen. Egongelako beste irudi batzuk identifikatu nituen. Neska bat zegoen, hamasei urte ingurukoa. Etzanda zegoen eta bere begirada berdea neuri zuzenduta zeukan. Ez nekien zergatik baina ezaguna iruditzen zitzaidan bere aurpegi zuria, sudurra, ezpainen forma, katu-begiak ... Bere begirada oso ezaguna egiten zitzaidan, baita saman zeukan orbain marroixka ere. Ez nekien zer pentsatu. Ez nekien non nengoen. Ez nekien nor zen aldameneko neska. Ez nekien ezer.

Bat-batean neskaren atzealdean norbait agertu zen.

- Maider, Jaiki zara azkenean! Badirudi hartzen adinako loaldia bota duzula! ”

Ahots hori, ahots hori, ezaguna egiten zitzaidan. Jaio berria nintzenetik entzuten egon naizen ahots berbera zela iruditu zitzaidan. Baina bera bazen, zer egiten zuen neskaren atzean? Harrituta geratu nintzen. Orduan eskerrerantz biratu nuen aurpegia. Musu bero bat jaso nuen bekokian, besarkada goxo baten ostean. “ Ama, ama ” xuxurlatu nuen goxotasunez.

- Istripu gogorra izan da! Zorionez ondo ...

Amak berbetan jarraitzen zuen. Ni ordea, pentsamenduetan murgilduta nengoen. Ama bikoiztuta ikusteak harrituta utzi ninduen; hasieran neskaren atzean zegoen eta gero nire atzean.

- Maider, ispilu ederra ezta? Begira eta begira zabilta eta.

Ispilua. Bai, ispilua. Azkenean aurkitu nuen galdera misteriotsuaren giltza, ispilua zen nire burua nekarazi zuena, nire pentsamenduen sorburua. Nire inbestigazioak alde batera utzi eta amaren hitzak harrapatzera abiatu nintzen.

- Maider gogoratzen zara ezertaz?

Gogoratu? Ez nekien zertaz zebilen hizketan. Gogoratu, zertaz gogoratu?

- Ez ama, zer gertatu da, ba?

- Herenegun Lekeitioko parrandatik bueltan zentozela kotxearen aurre guztia apurtu zenuten. Zu zorionez ondo atera zara, baina bestea...

Buruari bueltak ematen hasi nintzen. Bestea? Nor zen bestea? Irudiak “ flash ” eran agertzen zitzaizkidan. Dantza, musika, mutila, taberna, garagardo bat, beste garagardo bat, erromeria, alkohola, lagunak, Lekeitio, txupitoak, jaia, kalimotxoa, autoa eta zast; istripua!

- Bestea zer, non dago? Zelan dago?

Urduritasuna bilakatu zen nagusi nire barnean. Ez nekien nola jokatu, ez nekien zer egin.

- Ba... oso gaizki dago. Edurne Zuriren antzera dago lo, eta hemen gaude ipotx guztiak jaikiko ote den zain.

Begiak urez estali zitzaizkidan, eta bat-batean negar tanta potolo bat irristatu zen nire aurpegi zurbilean zehar. Amak bakarrik utzi ninduen, bakardadearen bila nembilela sumatuko zuen agian. Negarrari ekin nion, ezin nuen gehiago eutsi. Barrua hustu nahi nuen, pena guztiak kanpora atera nahi nituen. Baina, hala ere, barnean nuen min hura ezin nuen inolaz ere kendu. Bihotzean orratz zorrotz bat sartuta edukiko banu bezala sentitzen nintzen. Ez nuen indarririk, ezta gogorik ezertarako, ez nintzen pertsona ezta inolako izakia ere. Hildakoa sentitzen nintzen.

Egun bat, bi egun, hiru egun, aste bete, bi aste, hilabetea... Baina ezer ere ez. Egunaren zati gehiena bararekin pasatzen nuen, ospitalean zein ametsetan. Banekien ez zidala entzuten, baina nik hala ere, neure kontuak kontatzen nizkion. Berarekin nengoenean hobeto sentitzen nintzen, nire sentimenduak kanporatzen nituen, indarra ematen zidala nabaritzen nuen.

“Ai Gorka, antzarren gau madarikatua. Edan genituen litro guztiak edan ez bagenitu, honelako ezer ez zen gertatuko. Ez genuen arazorik edukiko, eta orain hemendik eta handik ibiliko ginateteke parrandarik parranda. Ez genuen autorik hartu beharko. Ez genuen hainbeste edan beharko. Sentitzen dut benetan. Ez nintzen konturatu hain mozkor geundenik. Baina orain ez dago atzera bueltarik. Gertatutakoak seilu bat utzi du nire bihotzean, eta batez ere nire barruan, ez bainaiz istripu honetaz inoiz ahaztuko. Ikasi dut ikasi beharrekoa. Zoritxar madarikatua. Bueno maitea denbora amaitu zait. Bihar itzuliko naiz. Maite zaitut laztana!”

Makinei lotuta ikustea ez zen batere atsegina, baina errealitatea zen. Zenbat aldiz pentsatu nuen nik amets bat izango zela? Baina ez, errealitate gordina.

Ikastolako lagunak guztiz arduratuta zeudela sumatzen nuen. Izugarritzko prezioa jasan beharra neukan. Momentu batetik bestera alde egiteko gogoia izaten nuen, eta bakardadean, neure mutilarekin egoteko. Jada ostiral arratsaldea zen, eta lengoaiako klase aspergarrietako batean murgildurik geunden. Begiak itxi eta ireki nituen. Papertxo zatiak ikusten nituen dantzan eskutik eskura, pertsonatik pertsonara. Niri ere Amaiurren eskutik iritsi zitzaidan. *“Gaur iluntzean jaia mutilen lokalean.”*

Ez dakit nola baina lagunek ni animatzea lortu zuten. Ni ere nire buruarekin harrituta geratu nintzen. Festa dibertigarria izango zela pentsatu nuen. Zaila izan zen ordu batzuek Gorka buruko toki ezkutu batean gordetzea, baina izerdi tanta bat jaurtiz, lortu nuen.

Gorka ikusteko irrikan nengoen. Nire droga zen. Aurreko egunean huts egin nion eta beraz lehenbailehen besarkatu nahi nuen. Jada hilabete eta hamabi egun, puff!

Logelara hurbiltzen nindoan heinean, zirrara sentitzen nuen. Ate aurrean pausatu nintzen, baina ezin nuen itxoin. Ahoa zabal-zabalik geratu zitzaidan. Ez zegoen, ez zegoen inor. Begiak distiratsu jarri zitzaizkidan. Gauza txarrean pentsatzen hasi nintzen. *“Zerbait gertatu zaio, zerbait gertatu zaio!”*. Heriotza neukan buruan, heriotza. *“Ez, ez... nire errua da...”*. Negar errekak erortzen zitzaizkidan. Ohe gainean etzan nintzen. Jada ez zegoen bere arrastorik, ez bere usainik, ez ezer. Makina bat bakarrik, bizia mantentzen zion makina. Bakarrik sentitzen nintzen, ez neukan indarririk ezta gogorik ezertarako. Nire bizitzako gauzarik edo pertsonarik garrantzitsuena joan egin zen. Betirako. Inoiz ez zen itzuliko. Neure buruari botatzen nuen errua. *“Ez diot neure buruari barkatuko! Atzoko lokaleko jaira joan beharrean, hona etorri behar nintzen, zeure ondora, zu zaintzera. Zergatik joan zara? Zer ba?”*

Negar jarria geroz eta handiagoa zen. Ahul nengoen. Gaixoen etxe hartatik irtetea erabaki nuen, jada han ez baineukan zereginik. Dortoken adinako pausoekin joan nintzen aurrera, burumakur eta nire arrastoa pasillo guztian zehar utziz. Negar malko bakoitzarekin oroitzapen polit bat etortzen zitzaidan burura. Oroitzapenetan murgildurik nengoen. Labirinto zurietatik ateratzea lortu nuen. Ate aurrean nengoen, geldi-geldi. Buelta erdi eman eta azkeneko begirada bota nahi nion leku hari. Harreragilea, hiru erizain, agure bat, emakume haurdun bat eta Gorkaren aurpegia gurpildun eserlekuan. Gorka. Jada pentsamenduetan barik fantasma moduan ikusten nuen. Zoro bihurtzen hasi nintzen. Birritan pentsatu gabe ospitaletik irteten saiatu nintzen. Baina lotuta nengoen, gorputzak ez zuen aurrera egiten. Norbait zegoen ni eutsi nahian. Bira erdi ematen derrigortu zidan. Gorka, Gorka! Bera zen. Izugarritzko besarkada eman nion. Inoiz ez nintzen hainbeste poztu norbait ikusteaz. Baina zoritxar madarikatua. Gurpilen menpe zegoen, gurpilen menpe bizitza guztirako. Zulo hartatik irten ginen lehenbailehen.

Azkenean, batera, eta bizirik. Gure harremana zen. Orain hiru ginen. Baina nik hala ere, asko maite nuen.

“Ezin duzu horrela jarraitu. Bizitzaz gozatu behar duzu! Ez dut nahi zu nigatik hemen gurpilei lotuta egotea. Nik betirako beharko dut laguntza, ezin naiz bakarrik moldatu. Eta zu, ezin zara beti ondoan egon. Benetan, joan eta disfrutatu! Joan lagunekin, edo aurkitu beste mutil bat. Zure onerako izango da, benetan, egin kasu. ”

Buruari bueltak ematen hasi nintzen berriz. Berak benetan desiratzen zuena nik ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea zen. Triste ikusten al ninduen? Ez nekien. Baina nik ere baten baino gehiagotan pentsatu nuen horretaz. Ez nekien zer egin, nik izugarri maite nuen eta berari lotuta nengoela sumatzen nuen. Ez nuen esklaboa izan nahi, baina ezin nuen bakarrik utzi.



Maite Santiago Garabieta
BATX. 2. maila
“Berezkorik ez dago ezer”

HARRIKO HARRITXU

NIRE GAN

Nire eskuetan dago.
Nire eskuetan dago izatea.
Zer izan behar dut?
Nire eskuetan dago izatea.
Zer espero dute nitaz?
Nire eskuetan dago esperantza.
Zer bide aukeratu behar dut?
Nire eskuetan dago aukera.
Zer gora-behera jasango ditut?
Nire eskuetan dago jasatea.

Nirea da erabakia,
eta nireak dira eskuok.
Hala ere,
guztiok bezala,
norbait izan nahian
helduko naiz
ni ere,
noizbait
izar bakar,
propio
eta batez ere
apartekoa izatera.

IZATERA

Nor izatera?
Ni naiz.
Zeu zara.
Hura da.
Eta gu gizartea gara.
Gu globalizatuta gaude.
Gu kutsatuta gaude.
Gure arazoa dugu,
gure buruhaustea da.
Jira-biraka darabilt burua
eta ez zait konponbidea
hurbiltzen barrura.

BARRURA

Barrurantz begiratzen dut,
noizean behin behintzat.
Zer aurkitzen dut?
Nire bihotza.
Betiko metafora merkeek inguratzen dute kanpoa,
hala ere,
inoizko preziatuena dago barruan.

PREZIATUENA

Familia dut urrerik gorriena.
Lagunak ditut zilartzat.
Gainerako guztia dut brontzea.

Ez dut ezer falta,
ez dut ezer soberan.
Baina horregatik,
konpartituko dut
nirea dena.

Esku zabala naiz,
guztioek elkar hartzearen aldekoa.
Bihotz nimiñoa daukat,
baina barruan,
inoiz ikusi gabeko
korapilo sendoena gordetzen duena.

GORDETZEN DU

Gordeta dauzkat ametsak.
Nire baitan ditut gogoak.
Atera beharrekoak ditut ahaleginak,
gaurko elurtearen erdian.
Hizkuntza dut lurzoru,
lurzoru elurtua.
Laprast egin dezaket gaur,
baina ez bihar.
Horregatik ausartu behar dut orain,
euskaraz hitz egitera.
Oraindik harritzar dena,
harri pusketa galaraziz bihurtzera.

HARRIPUSKETA

Kostako haitz
haitzeko harri,
harriko harritxu.
Norbaitek zure begi ederrak ikusiko balitu.

Olatuek jo dute
goizean gogor
zeru urrunean.

Zuri itxaroten nengoen
egunaren azkenean,
ea agertuko zinatekeen
nire ondoan bat-batean.

Agertu ezean nengoke ni triste,
nire harkaitza litzateke erori,
eta bihotza zeniezadake txikitu.

Kostako haitz
haitzeko harri,
harriko harritxu,
norbaitek nik bezala maiteko bazintu.



Mikel Elgezabal Garmendia
BATX. 2. maila

“Askok ez daukate hezkuntzarako aukerarik eta beste askok ezin dugu osorik gure hizkuntzan jaso. Aldatzeko ordua da!”

ESKOLA KONTUEZ?

Uda osoa pasatu dut une honen zain, eta kostata, baina iritsi da. Aurton berriz ere eskolara joango naiz. Gogoan dut nire lehen eskola eguna, baita azkenengoa ere. Zirrargarriak izan ziren biak. Chris dut izena.

Hamabi urte bete berri ditut, eta oso pozik nago. Kivu herrialdean bizi naiz. Etxean asko gara: ama, aita, sei neba-arrebak eta amona. Asko maite dut amona. Aita mendira joaten denean lanera eta amak janaria egiten duen bitartean amonarekin egotea dut gustukoen. Asko ikasi dut berarekin, nahiz eta eskolara inoiz joan ez den. Amonak dio jende gaizto ugari dagoela munduan, eta ez garela edonortaz fio behar, baina ni babestuta bizi naiz. Lagunek eta familiak babesten naute. Euria egiten duenean ipuinak kontatu ohi dizkit. Amonak dio, mendien beste aldean, hiru egunetara edo, laku eder eta handi bat dagoela, eta bertako ura edan ezkerreko betirako zoriontsu izango garela. Ez dut ezagutzen laku hori, baina handia egiten naizenean, nire lehenengo bidaiaren helmuga izango da. Amona ere nirekin eramango dut.

“Gaur, amonarekin, nola ez, eskolara joan naiz lehendabiziko aldiz. Nire anaia zaharrena ere eskolan egondakoa da, sei urtez edo. Aitak dio ezin duela denok eskolaratzeko haina dirurik lortu, eta horregatik batek soilik izango duela aukera. Niri tokatu zait.”

“Ederra izan da. Herriko eta inguruko haurrak geunden bertan. Batzuk nire adinekoak ziren, beste batzuk gazteagoak eta gutxi batzuk zaharragoak. Andereñoak abesti bat erakutsi digu, alfabetoaren abestia. Ez dakit alfabetoa

zer den, landare edo animalia arraroren bat ziurrenik, baina abestia martxa handikoa izan da. Etxera bueltan abesten etorri naiz.”

Iragan dira bi ikasturte nire lehenengo eskola egunetik, eta bitartean asko ikasi dut. Idazten eta irakurtzen moldatzen naiz, eta matematiketan ere abileziaz aritzeko trebetasuna hartu dut. Andereñoak dio asko aurreratzen ari naizela, eta etorkizun oparoa dudala zain. Uda honetan, ordea, lan egin behar dut. Aitari amaitu zaio zuen diru apurra, eta datorren ikasturtean berriz ere eskolara joan nahi baldin badut, udan lan egin beharko dudala esan dit. Nik harro-harro lagunduko diot, gizonek egin ohi duten modura.

“Lehenengo eguna entretenigarria izan da. Olivier ezagutu dut. Bera ere lanean dabil, baina denbora asko daramala esan dit. Nik baino bi urte gehiago ditu, eta bere arreba Cecile nirekin eskolan izandakoa da.”

Hurrengo hilabeteak gogorrak izan ziren. Gu menditik lurra ateratzen ibiltzen ginen, eta ostean gizonek (nire aitak barne) bertatik zer bait ateratzen zuten. Ez dakit zer zer, baina badakit oso preziatua zela. Olivierrek eta nik ez genuen hitz egiteko aukera handirik izaten, baina aukera txikienak ere ondo aprobetxatzen genituen. Gure ametsez hitz egiten genuen. Nik esan nion hurrengo ikasturtean berriz ere eskolara joan nahi nuela, eta handitan mendiez beste aldeko lakura joango nintzela. Hark ez zidan gauza handirik esaten. Urte asko zeramatzala bertan lanean eta... Beldur zen bere bizitza bertan igaroko ote zuen. Eskolara joan gabekoa zen, eta zekien gauza bakarrenetarikoa menditik lurra ateratzea zela esaten zuen. Nik ez nuen hala uste. Olivier mutil jakintsua zen. Berak bazekien noiz egingo zuen euria, txoriek noiztik noiz arte lo egiten zuten, nortaz fidatu gintezkeen eta nortaz ez... Berak asko zekien.

“Gaur Cecile etorri da bisitatzera. Ez da askotan etortzen, gurasoek ez baitiote uzten (Olivierrek berak ere ez). Gure hamar minutuko atsedenaldia alaitu digu. Oso neska alaia da, eta bere begiek txoratu egiten naute.”

Gogoan dut Olivier lehengo aldiz negarrez ikusi nuen egun hura. Lanean nenbilen, nire pentsamenduetan murgilduta, mendi barrenetik lurra ateratzen, burua altxatu eta Olivierren begi distiratsuak ikusi nituenean. Gaua etxean pasatu zuen (aspaldiko partez, askotan ez baitu aukerarik izaten etxera joateko, eta izan duen aukera bakanetan lanera bueltatzeak ikaragarritzko pena eman dionez, inoiz joan ere ez da egin). Aurpegia zuri-zuri zeukan. Ukabila amorruez estutzen zuen eta begietatik malko zaparrada ez irteteko alferrikako ahaleginak egiten ari zen. Ustekabean harrapatu ninduen egoera hark. Hasieran ez nion ezer galdetu, baina bere begiradak ez zuen ezer onik adierazten. Entzutera nindoana benetan latza zen.

“Anaiari bisita egitera nindoan, bidean mutil gazte bat aurkitu dudanean. Hizketan hasi zait. Nik hasieran ez diot kasurik egin. Berak hizketan jarraitu du,

eta niri segika hasi da. Gelditu egin naiz. Agian galduta egongo zen (bertakoa zirudien, baina batek daki!) eta laguntzeko prest nengoen. Nor naizen galdetu dit, nongoa naizen, zenbat urte ditudan, non bizi naizen, nora nindoan... Eta berari zer axola zion ba horrek? Abiadura bizkortu dut. Tipi-tapa, tipi-tapa, korrikan amaitu dudan arte. Mutila nire atzetik zetorren. Basoan sartu naiz, eta bat-batean esku batek besotik heldu nau. Indar handiz heldu nau eta ezin izan dut ihes egin. Lurrera bota nau, eta nire gainean jarri da. Garrasika hasi naiz, eskuarekin ahoa estaliz isildu egin nau. Hortik aurrerakoa... Ez dut ondo gogoratzen. Amaitu denean mutilak inori ezer ez esateko esan dit, bestela nireak egingo duela. Zartako batez lurrean utzi nau berriro.”

Olivierren arreba berriz ere etxean zegoen. Gertatutakoaren berri soilik bere nebak izan zuen, eta ez bata eta ez bestea ez ziren ausartu etxekoei ezer kontatzera. Baina Olivierrek argi utzi zion arrebari egunen baten tipo hori aurkitzen bazuen txiki-txiki egingo zuela. Bitartean bisitak debekatu zizkion. Ez zion gehiago mendira bakarrik joaten utziko, ezta pentsatu ere!

Ikasturte berria hasita zegoen, baina nik mendian jarraitzen nuen. Aitari galdetu nion eskolara berriz noiz bueltatuko nintzen, eta berak beti “laster” erantzuten zidan. Ez zekien beste erantzunik. Dirua aurrezten zuenean, edo hurrengo hilean edo bihar bertan izan zitezkeen erantzun posibleak, baina berak “laster” esaten zidan. Egunak ordea aurrera zihoazen, eta laster hori inoiz iritsiko ez zela pentsatzen hasi nintzen.

Asteak igaro ziren. Olivierrekin gero eta konfiantza handiagoa hartuz nindoan eta azkenean lagun handiak bihurtu ginen. Askotan berak laguntzen zidan zuloa egiten, beste batzuetan nik laguntzen nion... Eta atsedendiak (hala deitu ahal bazaie) berbetan ematen genituen. Nire lehengusua bailitzan ibiltzen nintzen berarekin. Bere arreba jada ez zen bisitan etortzen, eta eskerrak, bestela oso urduri jarriko nintzen. Egia da bere bisitak barealdia bezala zirela ekaitzen artean, baina gertatu zitzaiona berriz gerta ez zekion nahi nuen, eta horregatik lasaiago sentitzen nintzen herrian geratzen zela ikusita. Gertakizun latz hartatik geroztik ez nuen berriz ikusi, baina noizean behin gutun bat bidaltzen zidan, herriko kontuez hizketan, bere neba zaintzeko eskatzen... Hirurotatik gazteena zen arren, guztion artean arduratsuena eta argiena bera zen, eta nik asko estimatzen nuen.

“Laugarren hilabetea mendi honetan. Egun euritsua bezain gogorra izan da gaurkoa. Ez dut indarrik, hankak dardaraka ditut, eta ezin dut nire begietatik malkoak isurtzea ekidin. Lanean aritu gara goiz osoan zehar jo eta ke. Tunel estu-estu bat egin dugu mendian barna, barru-barruko lurra atera ahal izateko. Ni sartu naiz lehenengo, ostean Olivier, gero ni osterera ere, eta jarraian bera. Txandaka ibili gara, nagusiak arin ibiltzeko esan baitigu, eta azkarren ibiltzeko metodo onena txandakatzea zelakoan, hala aritu gara. Bera, ni, osterera ni, gero bera, ni, bera, ni, eta bera. Ez da gehiagorik izan. Tximista batek zuhaitz bat

zatitzen duen moduan zauritu da nire bihotza. Bularrean ikaragarritzko presioa sentitu dut. Ezin nuen ulertu. Nik ateratako lurra gizonei ematetik bueltan, mendiak Olivier nola irentsi duen ikusi dut. Sentitu egin dut. Segundu pare bateko kontua izango zen, baina amaitezina iruditu zait niri. Mendiaren hegala bat maldan beheara abiatu da, buztinezko erreka bat osatuz, eta bertan joan da Olivier ere, igerian ez zekien arrainaren antzera. Debekatu egin didate bere atzetik joatea, eta esku batzuek estu heldu naute, ihes egin ez dezadan.”

Bakarrik nago. Aita apenas egunean behin edo birritan ikusten dut. Lanean bakarrik aritzen naiz, eta beldur naiz. Olivier mendiak irentsi zuen. Inoiz ezagutu dudan bere adineko mutilik azkarrena zen, eta mendi batek irentsi du. Bitartean guk lanean dihardugu, herritik urrun, eta okerreana da ez dakidala zertarako!

“Gaur atsedenaldira, aitak paper bat eta boligrafo bat lortu dizkit, eta gutuna idazten hasi naiz. Ez nekien nola hasi. Ez nekien ondo idatziko nuen ala ez, baina gertatutakoa Cecileri kontatu beharra neukan, hala sentitzen nuen. Inor ez zen herrira jaitsi, eta Olivierren familiak ez zuen gertatutakoaren berririk. Ez dut gaur amaitu, ez dut asti nahikorik izan, baina bihar derrigor amaitu behar dut. Olivierren familiak gertatutakoaren berri izan behar du, eta inork ez duenez horretarako asmorik, neuk idatzi beharko dut gutuna. Ez dakit herrira nork eramanez ahal izango duen, baina lortuko dut hala edo hola gutuna Cecileren eskuetara heltzea. Negar egin dut. Aitak ikusi egin nau, baina ez dit ezer esan. Ez da ausartzen erantzunaren beldur delako, edo agian ez dio garrantzirik eman. Eskolara joan nahi dut. Bakarrik sentitzen naiz.”

Chris dut izena. Hamabost urte ditut eta Kivu herrialdekoa naiz. Bi urtez eskolara joandakoa naiz, eta bertan nola edo hala pixka bat idazten eta irakurtzen ikasi nuen. Nire ametsa mendiez beste aldeko lakura joatea da. Nire amona ere eramango dut, nirekin dago-eta! Atzo hil nintzen lehenengo aldiz. Ez dut bigarrenez hil nahi. Lanean ari nintzen mendi barrenetik lurra ateratzen. Hasierako hilabeteetan ez bezala, banekien zer balio zuen ateratzen ari nintzenak, eta zer balio nuen nik. Goizean, lanean nenbilela, eguzkia ezkutatu, lainotu eta euria hasi zen. Bat-batean ikaragarritzko zaparrada hasi zen. Mendi barrenetik lehenbailehen irten behar nuen badaezpada, eta argitasunaren atzetik nindoala, bularrean ikaragarritzko presioa sentitu dut. Dena ilundu da. Besoak alde batera eta bestera egiten zuen. Harri baten kolpea nabaritu dut belaunean lehenengo, eta hortik aurrera ezer gutxi. Lurra.

Koltana ateratzen aritu izan naiz hiru urte luzez. Lagunaren heriotza ezagutu dut, mendeku gosea eta eskolarik gabeko mundu ustela. Olivier eta nik ateratako lurretik koltana ateratzen zuten gizonek, eta gero bertatik tantalioa bereizten zen. Telefono mugikorretako bateriak, kotxeko piezak... Oso ona omen zen jendearen bizi kalitatea hobetzen duten tresna horiek egiteko, eta tira, inor ez zen gutaz arduratzen. Isilpean gordetzen gintuzten. Isilpean

sufritzen segitzen dugu, eta estatu aberatsek, beraiek “demokrata” izenaz autodefinitzen direnek, ezkutatu egiten gaituzte. Hobe baita hamar urteko haur bati ikaragarriko sakelako telefonoa erostea, hamar urteko gurelako haur bati hezkuntza eskaintzea baino. Zer da, ba, hezkuntza txabola batean bizi den haur batentzat? Etorkizuna!

Hezkuntza ez da “laster” hasiko den ikuskizuna, orain hasi behar dena baizik.

EGUNEROKOA

Urteak dira eguneroko zahar hau begi bistatik galdu nuela. Garai hartan ez nituen, bada, hogeita bost urte baino gehiago izango, ez horixe. Hogeita bost urteko gazte lerdena nintzen, bizitasunez betea. Etorkizun luzea ikusten nuen aurretik, hamaika itxaropen eta egitasmo betetzeko denborarekin.

Gaur, ordea, ispilura begiratzean, hirurogeita hamasei udaberri pasa dituen emakume zimurtsua islatzen dit honek. Garai batean horren ederra izandako neskatoaren aztarnaren bat, ordea, oraindik agerian da. Horrenbeste egoera latz ikusi dituzten begi berdeak, adibidez, hor darraite, bere bizitasuna galdu gabe, beti bezain ausart. Duela berrogeita hamar urteko ikatz koloreko ile sorta galantak, ordea, ez dirudi lehengo berdina. Orain, geratzen den ile apurra urdinduta dago erabat, eta lehen zeukan luzeraren erdia ere ez dauka.

Zenbat urte, zenbat oroitzapen, zenbat aldaketa... egia esan ez dakit ondo egin dudan egunerokoa zabaldu eta irakurtzen hasten.

Kontua da, alabak logela berritzeko konbentzitu nauela azkenean; ahalegin gogorrek egiten igarotako bi urte luzeren ostean lortu du. Nire logelak pasa dan mendekoa dirudiela esatea ere! Beno, zer egingo diogu, bada, gaur egun bizitza oso azkar doa, eta aldaketak egun batetik bestera gertatzen dira. Agian egia izango da telebistan diotena, teknologia eta kontu horiek guztiak direla honen arrazoia.

Logela berria jartzekotan, alabak IKEA izeneko saltoki erraldoi batera eraman ninduen, bertan omen daude prezio onenak eta altzaririk modernoak. Dena itsusia. Bere amak ulertuko dituen izen bitxiak dituzten altzariak, existitu ere egiten ez diren letrekin idatziak. Jendea; jende asko; jende gehiegi.

Aspaldi izan dudan goizik okerrena izan da IKEA delakoan emandakoa. Telebistako iragarkian “Bienvenido a la república independiente de tu casa” esatera ausartzea ere! Nire etxea ez da horrelakoa, ezta antzik ere! Eta eskerrak Jainko Ahalguztidunari!

Laburbilduz, esku hutsik eta erdi zorabiatuta (ni behintzat bai) itzuli ginen odisea hartatik. Hurrengo egunean, bizitza osoan egin dugun legez, Gernikan bertan aldameneko dendara joan ginen, eta bertan erosi genuen behar genuen guztia. Ez dago alde makala, neska gernikar jator batek argibide guztiak ematetik, paperezko metro eta miniaturazko arkatz batekin apuntatzen eta lurreko gezi madarikatuei segika labirinto zatar batetik ibiltzera!

Eta nola ez, kuartu berria etorri orduko, zaharra kendu behar! Gaur bertan, armairutik arropak ateratzen ari nintzela, gorengo mailako tiradorean, hara zer, eta hautsez betetako eguneroko zahar hau aurkitzea ere! Hura zoriona! Olentzero etorri berri zaion ume bat baino pozago sentitu naiz!

Nire gaztaroko pasadizo guztiak gordetzen dituen liburu sekretua, nire izkutuko sentimendu eta amodioen gordelekua, konta ezineko gertaeren babeslekua. Horrenbeste urteren ostean, berriz nire eskuetan dago. Urteak igaro arren, ez du bere usaina galdu, are gehiago, lehen baino usaintsuagoa da. Proporzio perfektuan nahastutako narru, paper eta tinta usaina, orain itxi usain puntu perfektuarekin lagundua. Nire eskuetan ikusi dudana momentuan, urteak pasa izan ez balira bezala sentitu naiz, hogeitau urte gozo izango banitu bezala. Momentu zoriontsu bezain laburra izan da, ordea, liburuxka eusten zuten esku zimurtsuei bigarrenez so egitean errealitateak berehala bereganatu bainau.

Garbigailuaren deiei kasurik ere egin gabe, egunerokoa ireki, ohe gainean etzan, eta irakurtzeari ekin diot. Berehala murgildu naiz ezaguna baina aspaldikoegia iruditzen zitzaidan istorioan.

Mugitu ere egin gabe ordu erdi bat pasa ondoren, garbigailuaren etengabeko txistu hots nekagarriek altsatzera behartu naute. Korrika batean sukaldera joan, arropak garbigailutik atera, eta lehorgailuan sartu ditut. *“Hauek bai direla teknologiaren aurrerapenaren seinale, eta ez erretzeko papera bezain finak diren telebista, edota deitzeko izan ezik beste edozertarako balio duten sakelako telefono horiek!”* pentsatu dut. Lehorgailuaren ON botoia sakatu, eta aurkitu berri nuen ametsezko mundu hartarantz bueltatu naiz.

Lehengo posizioa berreskuratu, eta minutu bat pasa orduko banintzen berriz ere hemeretzi urteko neskatua.

Garai hartan Ibarrangeluko tabernan egiten nuen lan, herriko mozkorrei ardo beltzak zerbitzatzen. Egunero jende berdina etortzen zen tabernara, eta guztiz gogaituta ninduten jadanik. Oso bizitza monotonoa zen nirea. Etxean dirua behar zela eta ikasketak utzi behar izan nituen lanean hasiz. Nik irakasle izan nahi nuen, baina ezin. Irakurtzea oso gustoko nuen, matematiketan ona nintzen, eta neska langilea gainera. Irakasle ona izango nintzen utzi izan bazidaten, bai horixe.

Batzuetan idatzi ere egiten nuen, bertsoen bat edo beste herriko plazan abesteko, ipuinen bat ahizpa gaztearentzat, baina ez gauza handirik.

Halako batean, piperrak lehortzen jartzera ganbarara igo nintzen egun batean, amaren gaztetako egunerokoa aurkitu nuen. Irakurri nuen momentu berean erabaki nuen neuk ere neurea idatzi behar nuela.

Hurrengo astelehenean bertan, Gernikara azokara jaitsi ginenean, paperdendara joan eta nire soldata eskasaren puxketa on bat gastatuz, narruzko azala zuen koaderno dotore hau erosi nuen. Inor baino harroago nengoen ni nire altxor berriarekin.

Ordutik aurrera, tabernako ordu luzeak nire frustrazio eta desirei buruz idazten pasatzen nituen, betiko gizon zakarrei inolako kasurik egin gabe. Orduak bata bestearen atzetik argiaren abiaduran igarotzen zitzaizkidan, nire txokotxoan eserita, neure barrena paperera pasatzen nuen bitartean.

Orrialde hauek irakurtzean pixka bat atsekabetuta sentitu naiz, egun triste haiek gogoratuz, baina istorioan zer gertatuko den dakienaren abantailarekin, gertaera desiratu baten zain egon naiz. Eta nola ez, iritsi da.

Tabernako beste lanegun normal bat zirudien hartan gertatutako pasadizoa da, inoiz ahaztuko ez dudan 1955eko martxoaren 11 hartan gertatutakoa.

Igandea zen, eta Lagako hondartzaren bila zebilen gizon bilbotar bat sartu zen tabernan. Gizon harroa zen bera, berrogei bat urtekoa, dotore jantzia eta lotsagabe xamarra. Beti tabernan zegoen Josetxori itaundu zion ea Lagara heltzeko zein bide jarraitu behar zen. Gaztelera egin zuen, ordea, eta gure Josetxuk gaztelera oso ondo ulertzen ez zuela, eta ardo pare bat gainean zeramatzala kontuan hartuta, barrez ari zitzaiola pentsatu zuen. Han hasi zena bai izan zela ikustekoa eta ez gaur egun telebistan ematen dituzten “Pressing Catch” eta horren tankerakoak! Ukabilkada bat hemendik, ostiko bat handik, ileetatik tirakadak... Segundu batean taberna osora zabaldu zen liskarra, denak bata bestea jipoituz zebiltzan, eta bitartean ni barra atzean kikilduta, zer egin jakin gabe.

Aitak asko tardatzen zuela eta, bat batean bere bi semeak sartu ziren tabernan. Zaharrak 20 urte inguru izango zituela kalkulatu nuen, eta gazteak 15 bat. Mutiko gaixok zer gertatzen ari zen ikusteko astirik izan baino lehen, liskarrean murgilduta ikusi zuten beren burua.

Ni ohartu nintzenerako, mutil koskor hark “arerio” guztiak kontrolatuak zituen. Haizea baino azkarrago mugitzen zen, mugimendu zehatzak egiten zituen eta ez zuen uzten inor beregana hurbil zedin. Laster odolez jositako

gizon guzti haiek eserleku banatan esertzera behartu zituen, eta hitz egiten hasi zen. Ahots indartsua zuen, sendoa benetan. Zer gertatu zen galdetu zuen, eta inork erantzuten ez ziola ikusirik, niri galdetu zidan. Nik gertatutakoa azaldu nion, eta gaizki ulertu bat izan zela ikustean, Josetxo lotsatu egin zen eta haiekin adiskidetzen saiatu zen. Zerbait hartzera gonbidatu zituen hiru gizonak, eta ondoren Lagaraino berak gidatu zituen.

Gau hartan ez nuen ia lorik ere egin, nire heroia bihurtu zen gazte lerdan hartan pentsatuz. Cupidoren geziak bete betean bihotza zeharkatu zidan, ez zegoen dudarik. Koaderno zahar hartako orrialdeak gazte adoretu hari buruzko pentsaerek bete zituzten.

Hori izan zen, beraz, Serapio ezagutu nuen eguna, nire Serapio maitea. Duela lau urtera arte beti nire ondoan izan dudana senar adeitsua. Modu bitxi xamar batean ezagutu genuen elkar, baina tira, gaur nire bizitzako egun zoriontsuenetako bat kontsideratzen dut hura. Guzti hau irakurri ahala, negar malkoak ere atera zaizkit; bere falta sentitzen dut. Irakurtzeari utzi behar izan diot, oroitzapen gehiegi dira.

Lehorgailura hurbildu, arropak atera, eta gaztaroko egun haietan murgiltuta oraindik, arropak lisatzen hasi naiz. Erre usaina nabaritzen hasi naizenean plantxa alkandoraren gainetik altxatu dut ahal bezain azkar, baina beranduegi zen jada. Alkandora bat gehiago trapuak egiteko, zer egingo diogu bada.

Arropak lisatzea ez dela oso ideia ona ikusi ondoren, berriz ere egunerokoa hartu eta irakurtzen segitu dut. Oraingo honetan, ordea, erdirago ireki dut, 1958ko urrian hain zuzen ere.

Orduan jadanik Gernikan bizi ginen Serapio eta biok, ezkondata geunden, eta nik gure lehenengo alaba sabelean neraman. Serapiok Gernikako banketxean egiten zuen lan, gizon ikasia baitzen, eta nik bitartean etxeko lanak egiten nituen. Oso pozik bizi ginen, maiteminduta geunden, etxe polit bat genuen, eta lagun ugari. Zer gehiago eska dakioke Ahalguztidunari!

Gustura irakurri ditut orrialde horiek, momentu zoriontsuak berpiztuz. Hala ere, orrialde sorta bat pasatu eta momentu jakin bat bilatzera joan naiz: gure alaba Alazneren eskolako lehen eguna. Gogoan nuen idatzia nuela, eta hor nonbait egon beharra zuen. Alazneren negarrak ezin hobeto gogoratzen ditut oraindik, ez zuela emakume ezezagun harekin gelditu nahi garrasi eginez, eta nire hanka gogo biziz helduz. Irribarre bat irudikatu zait ezpainetan eta orriak pasatzen jarraitu dut, haren bila.

Egun polit hori aurkitu beharrean, ordea, tamalez beste pasadizu baten aurrean aurkitu dut neura burua. Nire bizitzako momenturik txarrenaren aurrean, hain zuzen ere. Hainbeste esfortzu egin ondoren pixka bat ahaztea lortu nuen egoera hura.

Bigarren aldiz haurdun nengoela, Alaznek bi urtetxo zituela, larriki gaixotu nintzen. Medikuek ere ez zekiten zer zen pairatzen ari nintzen hori, baina oso bortitza zela zioten. Sukarra oso altua nuen, burua eztanda egin beharrean neukan, gorputzeko muskulu guztiek mina ematen zidaten, ezin nintzen mugitu ere egin, asko argaldu nintzen... oso larri egon nintzen. Sufrimendu eta min horiek guztiak, ordea, ez ziren ezer izan umea galdutakoan bihotzean sentitu nuen zuloarekin konparatuz. Apurka apurka gaixotasuna gainditu nuen, baina umearena ezin izan nuen inoiz gainditu.

Hasiera batean egunerokoan hainbat sentimendu irakur daitezke, barruan sentitzen nuen gorroto guztia ateratzeko modua zen. Errudun sentitzen nintzen haur hari bizitza lapurtzeagatik, mundu honetara etortzen ere ez uzteagatik. Paperean ere oraindik zimurrak igartzen dira, negar malko lehortuek utzitako zimurrak.

Eta bat batean egunerokoa bukatu egin da. Jarrera aldatu nuen eta idazteari utzi nion. Liburuxka armairuaren goreneko tiradorean gorde nuen eta ez nuen sekula gehiago handik atera.

Gaur, ordea, hainbat urtez lozorroan egon den printzesaren moduan, iratzarri egin da barruan zuen dena argitaratuz.

Jadanik zaharra naiz eta gerta dakidakeen gauzarik interesgarriena lagunekin briska jokoan irabaztea da, baina hala ere badaukat zer idatzi. Nire historiari jarraipena emango diot, gaurko egunera arte gertatua kontatuko dut. Une hartan hori pentsatu arren, nire bizitza ez zen jaio ez zen haur harenarekin batera amaitu, nire bizitzak gaur arte jarraitu du. Bihartik aurrera, auskalo, baina gaur oraindik bizirik nago eta idazteko gai naiz.

Bizitzan momentu onak eta momentu txarrak izan ditut, baina guztiei aurre egin diet, eta bada garaia hauek hilezkortzeko eta betikortzeko.

Ama izandako urte haiek kontatuko ditut, geroago jostun bezala lan egindakoak, Serapioren azken urteak azalduko ditut, eta baita bere heriotza ere. Gainera, amona izandakoak ere kontatuko ditut, beragatik bizia emango nukeen ilobatxoia ere badaukat eta. Emakume ausarta naiz ni, beti izan naiz, eta eguneroko hau etorkizunean inork irakurtzen ez badu ere, behintzat neure buruari erakutsiko diot nor naizen.

Beraz, gaur sarreratxo hau idatzi ostean, bihar bertan, 2012ko urtarrilaren 15ean, 1963ra jauzi handi bat emango dut eta nire historia berpiztuko dut.



Euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza

Euskara etengabe biziberritzen den hizkuntza da. Prozesu polita da, baita ikusgarria ere; ez dakit gaztelerak horrelakoak jasaten ote dituen. Euskal Herrian hitz egiten diren beste hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortu ondoren, euskara hizkuntza propio eta ofizial bakarra bezala aurkezteko Euskal Herrian, euskaraz bizitzeko borondatea euki behar dugu.

Resurrección María Azkuek lehenbiziko euskaltzain buruak euskerazko egunkaria sortu eta haren zuzendaria izan nahi zuen. *Egunkaria* euskarazko lehen egunkaria izan zen. Haren garrantzia komunikabide enpresa proiektutik harago zihoa. Horretaz ondo jabetuta zeuden proiektuaren bultzatzaileak, zeinak pentsaera desberdinetakoak baitziren... Euskararen normalizazioa izan zuten ardatz. Dena den, diru arazoengatik ez ziren argitara atera.

1990ean ametsa bai, amets hura bete zen. Sortze prozesuan aurrekoen bezalakoak izan zen baina emaitzetan bestelakoa, zorionez.

Normalizatzekoa bazen, euskarak egunkari idatzi bat behar zuen. Irrati eta telebista autonomikoak martxan ziren; egunkaria falta zitzaien. Funtsezko gogoeta hori betetzen aritu ziren *Egunkaria* sortzen plataformako hirurogeita hamabost kideak.

Euskal kultura berezia da. Euskal jende guztiek gazteleraz edo frantseseraz hitz egiten dute non bizi diren arabera, baina denek ez dute euskaraz egiten. Denek dakite erderaz baina euskaldunak, hau da, euskaraz dakitenak bakarrik dira elebidunak, gainerakoak elebakarrak dira.

Euskal Herrian kezkatzeko modukoa da gure kultura munduan hain minoritarioa izatea. Hala ere, haren nortasun sendoa eta gizartean eta politikan duen babesa tresna zoragarriak dira mundu global irekian indarrez eta ahaleginez garatzeko. Komeni da proiektu politikoak eta kulturalak bereiztea, nahiz eta kulturek ondorio politikoak ere izaten dituzten.

Bilduta geratzeko arrisku gutxi du. Norberarena eta besteena arazorik gabe batzen dira; gure herentzia eta kultura birsortzen dituzte etengabe. Azken batean, zaindu eta garatu beharra dago milaka urteko ondare historikoa dugu. Batez ere, hizkuntza kultura irekia da, malgua. Bere subjektibotasunean multiplea, bere errepertorioetan osoa, kultura unibertsalarekin eta inguruko kulturekin zenbait kategoria partekatzen dituen da euskara. Euskal jendearen berezko hizkuntza eta ondarea, eta haien kultur ezaugarriak nabarmenena.

Historialarientzat zaila da ulertzea nolatan iraun duen euskarak, mende eta mendeetan zehar halako modu miresgarrian. Frankismoak euskara erabiltzea zapaltzen baitzuen, haren kontra herri mugimendu bat sortu zen hizkuntzaren alorrean eta haren ondorengoak dira ikastolak. Euskara ez da indo-europar hizkuntza, preindo-europarra

baizik. Jatorri lausoa du, ez baitu zer ikusirik inolako hizkuntza familiekin. Seguruenetik, mendebaldeko zaharrena da.

Literatura ez bezala, eta musikaren antzera, artea ikusteko eta entzuteko da; horregatik ez dado hizkuntzarik lotuta eta askeagoa izan beharko luke egoera diglosikoen edo diskriminaziozkoen aurrean.

Euskal Herria bizirik da. Mapetan onartua ez izan arren, errealitate bizia da mundu globalizatuan. Gero eta gehiago aipatua, han eta hemen naizoarteko egunkari edo agerkari digitaletan; entziklopedietan edo You Tube kanal berezian. Bagara, bagaudelako. Ari garelako, besteak beste, daukate gure berri.

Hizkuntza herri baten arima da eta hizkuntza bakoitzak berezko kultura edo erreferentziak ditu. Euskara Euskadido berezko hizkuntza berezia da eta euskal nortasunaren osagairik bereizgarriena eta nabarmenena da munduko kulturen moltzoen artean. Euskara da elkarrekin bizitzeko oinarria askotariko nazio politiko eta ideologiko batean.

Historiagileek sekulako altxorra eta lan tresna paregabea dute bertsolaritzan, garai bakoitzean gizarteak zertaz hitz egiten zuen, zerk kezkatzen zuen, zer nahi zuen bertsolariaren ahoan zegoen; batzuetan gai jartzaileak gaia emanda, eta beste batzuetan entzuleak entzun nahi zuena esateko ausardia eta gaitasuna zituelako:

***Hizkuntza bat ez da galtzen
ez dakitenek ikasten ez dutelako,
dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.***

Euskal Herriko ohitura-kontu
hau esan nahi det lau hitzez:
itsas bazterrak inguratuak
nola ditugun harkaitzez,
ohitura hoiak sortutakuak
maite ditzagun bihotzez.
Ai antzinako guraso zaharrak
gaur ere bizi balitzez!

Danak dakite euskera dala
Euskadiren oinarria
lehen zapalduta, baina oraintxe
altxatzen dago jarria
oraindik gehio irtengo dala
daukagu iragarria.
Esna dedila eusko zalea!
Esna dedila herria!
Denon artean salbatu daigun
euskera maitagarria.

Nortasuna hartzeko noiz bait
uste dut garaila dala
ikurrin hutsa izan liteke
mami gabeko azala
guk nahi duguna Euskal Herriak
herri libre bat bezala
bere burua gobernatzeko
indarra euki dezala.